

# Zu hemen zaude.

# goiena



## ARTIBISMO EKINTZA, PALESTINARREN EGOERA SALATZEKO ETA ZABALTZEKO

UNRWA elkarteak eta Arrasate Institutuko ikasleek  
hainbat sormen-lan jarri dituzte herrian / 11

UNRWA elkarteko eta Arrasate Institutuko kideak, herri erdigunean jarritako aldarrikapen artelan lan baten aurrean. XABIER URTZELAI ATXA

**15 urtetik beherako herritarrak baino txakur kopuru handiagoa dago Debagoiengan / 2**



**ESKORIATZAKO ETA ELGETAKO JAIK / 18 ETA 31**

### SINADURAK

	XABIER ARREGI MURGIÓNDO / 6		ANA CARPINTERO / 24
	EVA ABUIN / 10		MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 48



Patologia duala: diagnostiko zaila duen gaixotasuna

Iñaki Anasagasti politikariari elkarrizketa

**Udan hasiko dira Debagoieneko ospitaleko eraikin berria egiteko lanak**

Iñigo Urkullu lehendakariak jarri du lehen harria; karguan egin duen azken ekitaldi publikoa izan da / 4



Iñigo Urkullu, Maider Morras, Eider Mendoza eta Gotzone Sagardui. T.M.

**Mondragon Unibertsitateko neskek LF2 mailan jokatuko dute denboraldi berria / 40**

**Bergarako Orfeoiak mendeurrenako dokumentala eta San Pedroko kontzertua iragarri ditu / 27**

## MERKEALDIA

# 2 MÓ 189€

lehen 229€  
erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



## MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA


www.multiópticas.com



## SARETZEN: MASKOTAK

## Haur eta txakur kopurua

ITURRIA: RIAC-EUSKADI, SARETZEN



# 15 urtetik beherako herritarrak baino 1.002 txakur gehiago bailaran

Debagoiengan ez ezik, Aramaion, Elgetan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Oñatin ere haur eta nerabeak baino txakur gehiago daude. Horietako gehienak –zehazki, %51– konpainiarako erabiltzen dira, eta 'Argi', 'Lur' eta 'Txiki' dira izenik ohikoenak

## Amaia Ramirez de Okariz

### Kortabarria DEBAGOIENA

15 urtez azpiko herritarrak baino 1.002 txakur gehiago daude Debagoiengan, EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrek emandako maiatzeko datuak aintzat hartuz gero: 8.851 haur eta nerabe daude, eta 9.853 dira txakurrak. Beste adierazle batzuei erreparatu gero, honako hau da errealitatea: hamar umeko 11,1 txakur daude.

Biztanleria orokorraren eta txakurren arteko konparaketa eginez gero, bestelakoa da egoera, txakurrak gutxiago baitira: hain justu, 64.178 biztanle daude eskualdean eta 9.853 txakur; beraz, hamar biztanleko, txakur kopurua 1,5koa da.

### Haur eta nerabe gehiago

Herriz herri, Arrasaten daude txakur gehienak, baina, hamar

biztanleko datuarekin alderatuz gero, Debagoieneko baxuena da; hau da, hamar biztanleko 1,09 txakur daude. Era berean, 15 urtez azpiko biztanleko txakur gutxien dituen herria ere bada: zehazki, 8,8.

Beste bi herritan ere, Antzuolan eta Aretxabaletan, Arrasateko joera bera antzematen da, gaztetxoak txakurrak baino gehiago baitira: hurrenez hurren, Antzuolan 9,1 txakur daude haur eta nerabe, eta 9,5 dira Aretxabaletan. Bergaran ere txakurrak baino gehiago dira 15 urte baino gutxiago dituzten herri-

**64.178 BIZTANLE DAUDE ESKUALDEAN, ETA 9.853 TXAKUR: 1,5 TXAKUR HAMAR BIZTANLEKO**

tarrak, baina lauko aldea dago soilik haien artean.

### Txakurrak nagusi

Debagoieneko gainontzeko herrietan, ordea, haur edo nerabeak baino gehiago dira txakurrak; esate baterako, Aramaion: 15 urtez azpikoak diren 204 herritar daude, eta 706 txakur; hala, hamar haur edo nerabe txakur kopurua 34,6koa da. Are gehiago, nabarmena da Leintz Gatzaga ere, laukoiztu egiten baita txakurren kopurua –91, guztira– hamar umeko –22, denera– konparatuta: 41,4.

Oñatin, Elgetan eta Eskoriatzan ere gehiago dira txakurrak 15 urtez azpiko herritarrak baino. Oñatiren kasuan, hamar haur eta nerabe 11,3 txakur daude; Elgetan, berriz, 14,8 dira; eta Eskoriatzan, azkenik, 19,9. Aldi berean, Eskoriatzako kopuru-

absolutuko diferentziala da nabarmenena Debagoiengan, 15 urtetik beherako 544 herritar eta 1.080 txakur baitaude; hau da, erdia.

### Erdiak, konpainiarako

EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrek txakurrak zertarako erabiltzen diren ere jasotzen du, lau multzo banatuta: konpainia, ehiza, zaintza edo artzaintza, eta beste erabilera batzuk. Bada, hori gogoan izanda, Debagoieneko txakurren erdia baino gehiago –%51, zehazki– konpainiarako erabiltzen da, ondoren ehizarako –%34–, eta, azkenik, zaintza edo artzaintzarako –%15–.

Herriei dagokienez, aipagarria da Arrasateko egoera, hamar txakurretik ia zazpi –%66,9– konpainiarako erabiltzen baitira. Datua, ordea, ez da harrizkoa, hirigune bat baita; harri-dura sor dezake, ordea, Leintz Gatzagak, landagunea izanik txakurren %58,2 darabiltzatelako konpainia egiteko. Kontrara, berriz, Aramaio da txakurrak funtzio horretarako gutxien erabiltzen dituen herria: %32,6.

Ehizarako erabilerari dagokionez, Oñatikoa da daturik deigarriena: txakurren %46,7 erabiltzen dira ehizan egiteko, eta ondoren Aramaio dago –%42,9–. Beste aldeari erreparatu gero, gutxien, Leintz Gatzagan: %14,3. Zaintza edo artzaintzarako, azkenik, Leintz Gatzagan darabilte gehien: hamarretik ia hiru txakur.

### Izen erabilienak

Debagoieneko txakurren izenak ere jasotzen ditu EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrek, eta *Argi* da izenik ohikoena herri guztietan –9.853 txakurretik 341ek dute izen hori–, Aramaion eta Elgetan izan ezik: bi herri horietan *Mendi* eta *Lur* dira erabilienak, hurrenez hurren. *Txiki*, *Bat*, *Lagun* eta *Beltz* edo *Beltzi* ere izenik ohikoenak dira bailarako txakurren artean.

**HAMAR HAUR ETA NERABEKO 8,8 TXAKUR DAUDE ARRASATEN; LEINTZ GATZAGAN, 41,4**

## Animalien ongizaterako ordenantza

Euskal Udalen Elkarteak (Eudel) etxeko animalien ordenantza berria landu du, "udalerrian dauden etxeko animalien babesa, ongizatea eta edukitza arduratsua bermatu dadin araubide juridikoa ezartzeko". 47 artikulua biltzen ditu, eta gomendio izaera du.

Esther Apraiz Eudeleko lehendakariaren hitzetan, udal ordenantza horrek "jauzi kualitatiboa" dakar, "animalien ongizatearen kontzeptua barneratu duelako eta izaki bizidun sentikortzat" aitortzen dituelako.

### Debeku eta betebeharrak

Ordenantzaren arabera, etxeko animaliek debekatuta izango dute parkeetan eta kirol askotariko pistetan sartzea; baita elikagaien salmentarako establezimenduetan, ikuskizun publikoko guneetan, igerilekuetan eta osasun zentroetan ere. Era berean, ezingo dira iturri apaingarrietan bainatu, eta ezingo dute giza kontsumorako iturrietatik ura zuzenean edan. Aldiz, beharrezko baldintzak beteta, garraio publikoan eta elikagaien ez diren establezimenduetan baimenduta egongo dira.

Pertsonen dagokienez, debekatuta egongo da janaria eremu publikoan uztea eta animalien gorpuak norbere kontura desagerraraztea. Udalek, berriz, katu kolonien kontrola eta kudeaketa euren gain dute, eta eurek zehaztuko dute txakurrak aske egon daitezkeen ordutegiak eta eremuak.

Isunak ere proposatzen ditu ordenantzak: 100 eta 100.000 eurora artekoak izan daitezke.

# Elikadura burujabe baterako urratsak, abian

Debagoiena Elikadura Burujabetzarantz egitasmoak antolatuta, 'Esperientziak ezagutuz gurean erein' jardunaldiak egin zituzten eguaztenean Aretxabaletan, Arkupen. Eman diren pausoen berri eman eta proiektuaren gainean hausnartu zuten

## Iñigo Barrena ARETXABALETA

Debagoiena Elikadura Burujabetzarantz egitasmoak antolatuta, *Esperientziak ezagutuz gurean erein* jardunaldiak egin zituzten eguaztenean Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean. Egitasmo horrek Debagoienean elkarlanean elikadura burujabetzako proiektu bat garatzen dihardu, etorkizunean oinarri konpartitu bat sortu eta bertako produktuak modu agroekologikoan sustatzeko.

Dagoeneko hiru prozesu abiatu dituzte: baratzezaintza profesionalean eredu kolektibo bat; sektoreari babesa eta sostengua emango dion egitura komunitario bat sortzea; eta ekoizpena traxzionatzeko Fagorrek jantokietan bertako produktua hornitzeko sistema garatzea. Eguazteneko jardunaldia, orain arte egindakoren berri emateaz gain, proiektuaren gainean hausnartzeko ere baliatu zuten.

## Hurrengo urratsak

Hasitako bideari jarraipena emanez, aurrerantzean, jangelen eta sukaldeen eraldaketarako proposamen osoa jaso, ekoizpen arloan eredu kolektibo bat bultzatzeko lantaldea sortu eta banaketa zentro eta eraldaketarako guneentzako beharrak identifikatu eta dimentsionatzea da asmoa.

## Esperientziak ezagutuz

Gainera, Euskal Herriko hainbat tokitako esperientziak ezagutzeko aukera izan zuten. Hernanin Elikadura burujabetzarako bidean lantzen hasi diren bidez aritu zen Xabier Lertxundi Hernaniko alkatea; Ipar Euskal Herriko esperientziak hitz egiteko, berriz, Argitxu Ithourriak Lekornen (Lapurdi) dagoen Garro kooperatibaz eta Iparlab-az azalpenak eman zituen; eta Sustriak kooperatibako David Gonzalezek Aleko egitasmoaren berri eman zuen.



Eguaztenean Arkupen egin zuten jardunaldia, Aretxabaletan. EREINDAJAN BERGARA



DIKAR

## Dikarrek planta berria du

Asteon inauguratu dute, Arrasateko Garagartza auzoan. Inaugurazioan izan ziren –irudian ezkerretik eskuinera– Iñigo Ucin, Mondragon Korporazioko lehendakaria; Inmaculada Riera i Rene, Espainiako Merkataritza Ganbarako zuzendari nagusia; Marisol Garmendia, Espainiako Gobernuaren ordezkaria EAEn; eta Esther Korta, Dikar enpresako zuzendari nagusia.

**GIPUZKOA**

**Ekin.**  
Gipuzkoa oparagoa izateko.

**Zaindu.**  
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

**Bizi.**  
Ondo eta duin bizi daitezzen.

**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia



Urkullu, Debagoieneko ospitaleko eraikin berriaren lehen harria jartzeko ekitaldian. TXOMIN MADINA

## Urkulluk jarri du ospitale berriko lehen harria

Lehendakariak eguaztanean hartu zuen parte bere karguko azken ekitaldi publikoan. Nabarmendu gura izan zuen "pandemia garaian osasungintzako langileek eginiko lana" eta eskertu egin zien euren "zerbitzu publikoaren aldeko bokazioa"

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE Debagoieneko ospitaleko eraikin berriaren lehen harria jartzeko ekitaldia egin zuten eguaztanean Arrasaten, eta hura izan zen, hain justu, Iñigo Urkulluk lehendakari moduan parte hartu duen azken ekitaldi publikoa. Urkulluk alboan izan zituen, besteak beste, Gotzone Sagardui Osasun sailburua, Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Maider Morras Arrasateko alkatea. Lehendakariak adierazi zuen berak nahi izan zuela azken ekitaldia Arrasatekoa izatea, pandemia garaian osasungintzako arduradun zein langileek eginiko lanak eskertzeko. "Azken hitz hauen bidez, Osasun Sailaren eta Osakidetza erantzuna eta erantzukizuna aitortu nahi ditut. Egoera zailari aurre egin zenioten, egoera larriaren aurrean zeuen hoberena eman zenuten. Egundak gaur Osakidetza eta Osasun Sailaren langile ororen, arduradunen eta goi kargudunen profesionalta-

sun eta zerbitzu publikoaren aldeko bokazioa eskertzeko". Horrez gainera, Urkulluk gaineratu zuen Osasun Publikoaren Defentsarako Elkartearen Federazioaren urteko txostenaren arabera, Euskadik 105 puntu lortu dituela, Espainiako batez bestekoa baino hogeita gehiago, eta, besteak beste, prozedura kirurgikoetarako eta espezialisten kontsultetarako egun gutxienerako itzarote-zerrendak dituela.

**Hogeita hamar milioi euro** Gotzone Sagardui Osasun sailburuak nabarmendu zuen ekitaldia esanahiz beterikoa zela, ipini zuten harria "badelako ere, zentzu askotan, mugarrira; hain

**HOGETA HAMAR MILIOI EURO BIDERATUKO DITUZTE ERAIKINERA; UDAN HASIKO DIRA LANEAN**

zuzen ere, herritarren osasunaren alde orain arte egindako lanaren eta aurrerantzean egingo denaren arteko zubi".

Eraikin berriak 9.300 metro koadroko azalera izango du, zazpi solairutan banatuta. Bloke berrian, besteak beste, eguneko ospitale mediko kirurgikoa, medikuntza fisikoaren eta errehabilitazioaren arloa, erresonantzia magnetiko nuklear bat, endoskopia-unitate bat eta larrialdi-oinarria egongo dira, eta zuzenean egongo da lotuta kanpo kontsulten eraikinerara. Aurreikuspenen arabera, udan hasiko dira lanak, 30 hilabeteko exekuzio epearekin: "Eraikin horretarako, guztira, hogeita hamar milioi euro bideratu ditugu. Osakidetza zentroak eta egiturak hobetzeko eta egokitze Osasun Sailak duen konpromisoari erantzuten dio. Gure helburua da aurrera egiten jarraitzea, pertsona guztiei ahalik eta arretarik hurbilena, kalitatezkoena eta irisgarriena eskaintzeko".



Igor Ortega hitzaldia egiten kooperatibismoaren gaineko jardunaldian. J.M.M.

## Pertsonen ardura hizpide VIII. Kooperatibagintzan Topaketan

"Kooperatibetako bazkideen artean erantzukidetasuna sustatzearen garrantzia aztertzea" izan da helburua

**J.M.M. ESKORIATZA**

Zortzigarrenez antolatu du Mondragon Unibertsitateko Lanki Kooperatibismoaren Ikertegiak Kooperatibagintzan Topaketa. Asteon egin dute. 50 bat lagun bertaratu ziren, eta nazioarteko hamabost entzulek jarraitu zituzten hitzaldiak Internet bidez. Elena Perez Laneko eta Gizarte Segurantzako jarduneko sailburuordeak eta Nagore Ipiña Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok hartu zuten hitza jardunaldian, eta, ostean, Igor Ortega eta Unai Elorza ikerlariak aritu ziren

kooperatibismoaz. Ortegak *Pertsonen erantzukidetasuna enpresa kooperatiboan* liburuan bildutakoak laburtu zituen; Elorzak, berriz, lanaren jabe izateak dakartzen ondorioen gainean hitz egin zuen: "Pertsona ondo dagoenean enpresa errentagarriagoa da, eta enpresa errentagarriagoa denean pertsona hobeto dago".

**Amitzeko, mahai-ingurua**

Bigarren zatian, Marta Carazok, Javi Torrellak, Axier Lekuonak eta Iñigo Iñurrategik erantzukidetasunari buruz jardun zuten mahai-inguru batean.

## Zentroetako udako ordutegien berri eman du Osakidetza

Arrasateko osasun-etxeako ordutegia bakarrik aldatuko da; gainontzeko osasun-etxeetan berdin jarraituko dute

**J.M.M. DEBAGOIENA**

Bailarako osasun-etxeetako arreta emateko ordutegiek, oro har, ez dute aldaketarik izango udako hilabeteetan. Hala ere, bada go salbuespen bat. Arrasateko osasun-etxean 08:00etan irekiko dituzte ateak, betiko legez, baina 20:00etan itxi beharrean 17:00etan itxi dute zentroa. Gainontzeko herrietako osasun-zentroetan ez da ordutegi aldaketarik egongo: Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko osasun-etxeek betiko ordutegia izango dute -08:00etan ireki eta

17:00etan itxi ditzate ateak. Eskoriatzako osasun-etxeako ordutegian ere ez da inolako aldaketarik aurreikusten, eta, betiko legez, 08:00etan hasi eta 15:00ak arteko lan jarduna izango dute bertako langileek.

Horrez gain, Debagoieneko ESItik jakinarazi dute kontsultategien ordutegia "ahalik eta gehien" mantenduko dela; baina, aitortu dutenez, ordutegi horiek "egun batzuetan ez dira beteko". Kasu horietan, "erreferentziako osasun-zentroek" eskainiko dute laguntza.

# "Pozik egoteko moduko" urtea izan du Goienak

Batzar Orokorra egin zuen Goiena Komunikazio Taldea Koop. Elkartek pasa den eguaztenean, Garaia Parke Teknologikoan. 2023aren balorazioa egin zuten bertan, eta "pozik egoteko moduan" daudela adierazi zuen Iban Arantzabal zuzendariak

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA Batzar orokorrak ohikoak izaten dira urteko sasoi honetan, eta Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartek ere hala egin zuen, joan den eguaztenean. Garaia Parke Teknologikoan egin zuten batzarra, eta 2023aren balorazio orokorra egin zen bertan.

## Urte ona Goienarentzat

Alor ekonomikoari erreparatuta, Goienak galera txiki bat izan zuela azaldu du Iban Arantzabal zuzendariak: "2023a galera txiki batzuekin bete dugu. Bete dugu esaten dut Goiena Komunikazio Taldea irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat delako, eta irabazi ez dugulako egiten inoiz, ez bada mila euro inguru gora eginda edo beste horrenbeste behera eginda". Galeraren arrazoiak egindako inbertsioak dira adierazi du zuzendariak: "Langileetan, aparatuetan, telebista eta sare sozialetan inbertitu dugu, eta horrekin pozik egoteko moduan gaude".

Goienaren bueltako enpresek ere urte ona izan dutela esan du zuzendariak: "Kasu honetan ere ondo joan da". Abao Komunikazio Agentziak merkatu zabala du aurretik "eta garapena izango du oraindik". Joan den urtean 17.000 euroko irabaziak izan zituen. Batu Banatu ere "ondo dabil": GOIENA eta *Puntu* banatzeaz gain, etxez etxeke banaketa zerbitzuak egiten ditu eta 25 lagun inguruk dihardute bertan lanean. Batura enpresa mugikorretarako aplikazioak egiten dabil, eta, gaur egun, Argentinara saldutako aplikazio berezi batekin dabilta lanean.

## Audientzia datuak

Audientzia datuak ere kontuan hartu dituzte: "Geroz eta digitalagoa da mundua, eta hedabideak ere bai. Paperak jarraitzen du izaten oraindik oso estimatua



Goienaren batzar orokorra. GOIENA

den hedabide bat, eta ikus-entzunezkoek ere bai. Ez horrenbeste telebista formatua bere horretan, nahiz eta telebista oraindik egunero-egunero 5.000 lagunek ikusten duten. Bai esango nuke ikus-entzunezkoek badutela indarra *Goiena.eus*-en eta gainontzeko plataformetan".

2023tik aurrera Goienaren hainbat eduki Primeran plataforman ikusgai egotea ere aipatu du Arantzabalek, Goienaren aplikazioan bezala, nahieran ikusi ahal izateko. Bideo bertikalen alde egindako apustua ere izan du hizpide zuzendariak.

## Goienakideak mimatu

2024an, Goienakideak mimatzeko asmoz, berrikuntzak izango direla adierazi du Arantzabalek. Batzarrean bertan, etorkizunean "e-papera, e-Goiena edo Goiena digital aberastu bat" izango dena aurkeztu zuten.

**GALERA TXIKI BATZUK  
IZAN DITUEN ARREN,  
EKONOMIKOKI URTE  
ONA IZAN DA  
GOIENARENTZAT**

## Ulma taldeak Bai Euskarari Saria jaso zuen atzo Donostian

Ulma taldeak euskararekiko erakutsi duen konpromisoa azpimarratu dute Bai Euskarari Elkarteko kideek

### G.B.Z. OÑATI

Bai Euskarari Elkartek 2024ko Bai Euskarari Sariak banatu zituen atzo, Donostiako Victoria Eugenia antzokiko Club aretoan. *Txinparta bizia euskararentzat* izan da aurtengo sari banaketako leloa. Lelo horren arrazoia "euskara lan munduan biziartzen duten txinpartak" saritu izana dela adierazi zuten Bai Euskarariko kideek.

Hiru sari banatu zituzten, eta horietako bat Ulma taldeak jaso zuen. Ibon Calvo presidentea bertaratu zen saria jasotzera. Eskerrak eman zituen Calvo saria jasotzeko orduan. Kide Aholkularitza eta Izarkom enpresak izan ziren beste bi sarituak. "Euskararen erabilera areagotzeko lan handia egiten ari diren hiru entitate saritu ditugu aurtengo", esan zuten elkarteko kideek.

### Ulma eta euskara

Ugariak izan dira Ulmak euskara sustatzeko abiatutako ekimenak, eta hori balioetsi nahi izan du elkartek: "Oñati eta Ulma edo Oñati eta euskara ezin dira banandu, eta ezin dira Ulma, Oñati eta euskara banandu". Jarraian, urte luzez Ulmak landu duen Euskara Plana eta honen duen Bai Euskarai ziurtagiria izan zuten hizpide: "Ulmaren parte da euskara eta urte asko dira Euskara Plana dutena. 2006an hasi zuten lanketa, Bai Euskarari ziurtagiriarekin".

Amaitzeko, Ulmaren nazioarteko izaerak euskararen hedapenerako duen garrantzian jarri zuten arreta: "Nazioarteko enpresa talde industrialia izanik, beren jardunean kanpora begira eragiteko euskara zabaltzeko ahalmen handia dute; horren aldeko apustua egin dute".



DEBAGOIENENKO

# PROFESIONAL LIBERALAK



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
blasaga@icagi.net

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**ARKITEKTOAK**

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE  
Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

**AHOLKULARITZAK**

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA  
Araba ibilbidea 20, behea  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**ETXE  
ADMINISTRATIOAK**

**URIBESALGO  
ADMINISTRATIOAK**  
ARRASATE  
Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

# 10 urteko ibilbide luzeegia

Duela 10 urte egin bezala, domekan, ekainaren 23an, Donostian elkartuko gara presoan, iheslarien eta erbesteratutako pertsonen giza eskubideen alde lanean dihardugun herritar oro. Izan ere, duela 10 urte jaino zen Sare, eta, luzeegia izan den ibilbidean eginikoak gogora ekartzeaz gain, herri honetan oraindik ere bakearen, konponbidearen eta elkarbizitzaren auziari aterabide osoa emateko konpromisoa berretsiko dugu.

12 urte igaro dira dagoeneko ETAk bere aktibitate armatuari amaiera emateko erabakia hartu zuenetik. Denbora nahikoa baino gehiago jarrerak eta legediak eraldatzeko. Izan ere, Artzain Onaren atarian eginiko agerraldian plazaratu genuen bezala, urruntze politikaren gaingiditza ez du berariaz ekarri euskal presoan eskubideen urraketa

## ELKARREKIN EGINDAKO URRATSAK GOGORA EKARRI ETA OSPATU NAHI DITUGU DOMEKAN

da 78 urte dituen Joseba Arregi preso oñatiarraren kasua: haren bizitzaren 32 urte baino gehiago preso igaro ondoren, hirugarren gradua eskuratu eta berehala espetxeratu dute, bigarrenez; edo Joseba Borderen eta Juan Karlos Subijananen aurka jarritako helegiteak: biak hirugarrenez espetxera itzularazi dituzte.

Oraindik ere preso dituzten 134 euskal presoan eskubideak urratzeko baliatzen diren salbuespeneko jokaerei eman behar diegu amaiera. Eta bide horretan dihardugu, tinko, *giltzak* gure eskuetan ditugula sinistuta. Horregatik, elkarrekin egindako urratsak gogora ekarri eta ospatu nahi ditugu domekako ekitaldian; besteak beste, atzerazinezko bidean jarri gaituzten urratsak, gaingiditu ditugun etapak eta esparru politikoan, sindikalean zein sozialean lortutako kontsentsuak. Giltzak eskuan hartuta, etor zaitez Donostiara!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ibilian

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
HTTPS://LABUR.EUS/I1R6I

Bilbon ipini dute abian.

Donostian ere urte bukaera alderako ipintzekoak omen dira.

Hiriguneko hainbat lekutan auto jakin batzuekin ezin sartua arautuko duen legeaz ari naiz.

Ez zait gaizki iruditzen.

Begiratu egin beharko dugu -nik behintzat bainoizkoa eta nolakoa den gure autoa, eta garraio ohiturak aldatzen hasi beharko dugu legeak hala agintzen badu.

Honetan ere, dirua nagusi.

Asko duenak, ohiturarik aldatu nahi ez badu, autoa aldatuko du eta kito.

Asko gara autoa bizitzaren ardatz bilakatu dugunak.

Horrek xextrak, arauak, arau-hausteak, isunak eta gainerakoak dakartza.

Niri, ez behaketa gaitasun handia dudalako, asko ibilia naizelako baizik, bi detaile txikik eman izan didate beti atentzioa.

Bat:

Geurekoiak gara oso pertsonak.

Gai gara autoa *doble filan* uzteko.

Nahiago dugu hurkoa molestatu, legeari aurre eginez debekatua dagoen

lekuan utzi eta arriskatu baino.

Zerk eragiten digu gure minututxo bat beste inoren minututxo bano garrantzitsuagoa delako ustea?

Geurekoiak gara, eta koldarrak.

Bi:

Edozein aitzakia arrazoi bihurtzeko gaitasun paregabea dugu gizon-emakumeok.

Badakizue non aparkatzen dugun okerren?

Beti sumatuko duzue autoren bat espaloi gainera igota, beste bat lau argiei emanda...

botika inguruetan. Horrelakoak gara.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ane Bereziartua eta Beatriz Aldai, Nautalia bidai-agentziaren bulegoan.

## Edonora bidaiatzeko aukera Nautaliarekin

Arrasateko Iturriotz kaleko 17. atarian egongo dira Ane Bereziartua eta Beatriz Aldai, 20 urtez aritu diren bezala, euren bezeroei edonora joateko bidaiak eskaintzen. Orain, baina, Nautalia agentziaren izenpean arituko dira, hasierako esentzia galdu gabe

Nautalia bidai-agentziak bulego bat ireki berri du Arrasaten herritarrei oporrik onenak eskaintzeko asmoz. Era horretara, agentziak aurretik zuen presentzia handitu egin du Gipuzkoan, Arrasateko erdigunean, Iturriotz kalean, dagoen saltoki berriarekin, ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko. Nautalia bidai-agentzia 360°-ko turismoan

oinarritzen da: hau da, adituak dira oporretan, baina baita edozein bidai motatan ere. 200 bulego baino gehiago dituzte Espainia osoan, eta 1.000 profesional baino gehiagoko lantaldea dute. Era berean, 62 herrialdetan presentzia duen agentzia bat da, 12 Business Traveler Centers dituen eta 2.300 enpresarentzat lan egiten duena.

**Esperientzia handiko lantaldea**  
Nautaliak Arrasaten ireki berri duen bulegoan 20 urte baino gehiagoko esperientzia duen lantaldea arituko da buru-belarri lanean, bezeroei ahalik eta esperientzia hoberena eskaintzeko: Ane Bereziartua eta Beatriz Aldai. Aurretik ere aritu ziren herriko bidai-agentzia batean lanean bi hamarkada luzez, eta "urte horie-

tan guztietan lortutako esperientzia eta bezeroei erakutsitako konfiantza" baliatu nahi dute "kalitatezko zerbitzua eskaintzeko".

Kruzeroak, irletara bidaiak, Espainia mailakoak... eskaintza zabala dute Bereziartuak eta Aldaik, baina, betiere, herritik hasitako bidaiari ere garrantzia emanda: "Nautaliari esker eskaintza oso zabala dugu bai nazio mailan, baina baita nazioartean ere. Horrez gain, urte hauetan eskaini ditugun herritik irtenda-ko bidaiekin ere jarraituko dugu:

asteburuko bidaiak, aste osoak, atzerrira joatekoak... Hainbat proposamen erakargarri ditugu esku artean". Interesik izanez gero, zoaz Nautaliaren bulegora!

**Informazio gehiagorako, deitu telefono-zenbaki hauetara:**  
**843 63 08 39 eta 657 33 50 53**



Bulegoaren irekiera eguneko argazkia.

### Bezereen fidelotasuna giltzarri

20 urte baino gehiagoko esperientziak bezero askorekin lan egiteko aukera ematen du, eta hori bera nabarmendu dute Bereziartuak eta Aldaik euren lan ibilbideaz galdetuta: "Urte hauetan guztietan herritar askorekin egin dugu lan, eta gaur egun gauden lekuan gaude eurei esker. Pandemiak geroztik etxetik egin genuen lan, eta bezeroek gurekin jarraitu zuten. Ezinbestekoa da eurekin dugun harremana eta lortu dugun fidelotasun maila. Orain Nautalia izena badugu ere, betiko bezeroek gurekin jarraitzen dute, eta esker hitzak besterik ez dugu eurentzat".

Horren erakusle da bulegoaren irekieran 150 pertsona inguru batu izana, eta hori "biziki eskertzekoa" dela diote langileek. Fidelotasun hori sustatzeko, Karibera bi laguntzako bidaiaren zozketa egingo dute bulegora joan eta interesa dutenen artean.

**Itsasoa nonahi.**  
OPORRETAN ZAUDE ETA

#### LA PALMA

8 egun / 7 gau  
La Caleta apartamentuak 3\*  
Ostatua eta gosaria

**739 €** tik aurrera

#### AZORE UHARTEAK

8 egun / 7 gau  
VIP Executive Azores 4\*  
Ostatua eta gosaria

**729 €** tik aurrera

#### MALTA

8 egun / 7 gau  
Canifor 4\*  
Ostatua eta gosaria

**649 €** tik aurrera

**UHARTEAK UDAN 2024**  
**HEGAZKINEZ BILBOTIK**

**NAUTALIA**  
Bidaiak

Gela bikoitzeko prezioa pertsonako (prezio horetatik hasita). Baina hartzen du Bilbotik autoneko hegaldia, lekualdaketa, hotelko egonaldi eta adierazitako erregimena, simeportuko tasak eta bidaiako oinarritze aseguru. Nautaliaren erreserbatzeagatikko kudeaketa-gastuak 25 euro.

Iturriotz Kalea, 17 - 843 630 839 - Arrasate - Gipuzkoa



**Josle**  
LENTZERIA & MERTZERIA

Ondo ibili!!  
Gora sanjuanak!

Otalora Lizentziaduna 21 • Arrasate • Tel.: 943 79 71 39



**KARRIKIRI**  
RESUSTA

Gora San Juan jaiak!

Erdiko kalea 38 ARRASATE • ☎ 943 79 01 07 • 📱 🌐



**SAMPRU**  
INMOBILIARIA  
HOME STAGING

Ondo ibili sanjuanetan!

Irune Elexpuru  
☎ 607 791 000

Oihana Garcia  
☎ 624 343 882

Otalora Lizentziatua 5, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)  
✉ info@sampru.es 🌐 www.sampru.es



**JUBAR**  
ATEAK - AUTOMATISMOAK

ERA GUZTIETAKO ATEAK  
ETA AUTOMATISMOAK

www.jubar.com  
Kataide Industrialdea 18  
ARRASATE  
943 79 10 20  
jubarateak@jubarateak.com

Ondo ibili sanjuanetan!

# San Juan suarenaz gain, euskararen eta festaren garrak ere isiotuko dira

Egutegiak hala aginduta eta asteburua tarteko, sanjuanak ohi baino luzeagoak izango dira aurten. Gaur hasita, festa giroan murgilduko da herria, eta Udalak zein Arrasateko Txosna Batzordeak (ATX) azken prestaketak egiten dihardute, guztia ondo joan dadin

## Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Asteburua tarteko, gaur hasiko dituzte ohi baino luzeagoak izango diren San Juan jaiak, eta Udalak eta Txosna Batzordeak azken prestaketa lanak egiten dihardute. Trafikoan, esaterako, hainbat aldaketa egongo dira egun hauetan, "segurtasuna bermatze aldera", Andoni Arratibel Kultura zinegotziaren esanetan. Hain zuzen, ekainaren 22an, 23an, 24an eta 25ean, 18:00etatik 06:00etara, Otalora Lizentziaduna eta Zarugalde kaleak moztu egingo dituzte, Muzibarko biribilgunetik San Frantziskoko biribilguneraino. Edozelan ere, garajeetako ibilgailuak eta hondakinen kamioiak salbuetsita egongo dira.

Herribusa ez da igaroko itxiatoko eremutik eta egun eta ordu tarte horietan San Frantziskoko biribilgunean eta Muzibarkoan izango ditu geralekuak jaiak iraun bitartean.

Horrekin batera, nabarmentzekoa da TAO sistema ere bertan behera geratuko dela ekainaren 24an, 25ean eta 26an. Ondorioz, tasa ez da indarrean egongo egun horietan.

## Errefortzua kale garbiketarako

Bestalde, jaietan kale garbiketa bermatzeko, langile errefortzua kontratatu du Udalak. Hala, egunerokoan lanean ari diren langileei errefortzu taldea batuko zaie jaiegunetan, eta, batez beste, hamazortzi garbitzaile izango dira lanean egunero. "Bereziki, ekimen jendetsuetan indartuko dira garbiketa zerbitzuak; besteak beste, Gazte Olinpiadetan eta Zeuk in zeuk jan bazkarian. Horiek amaitutakoan, garbiketa zerbitzuak sartuko dira ingurua txukuntzera".

Prebentziorako bitarteko berriak ere jarriko dituzte. Berrikuntzen artean, kaleko komunak jarriko dituzte Zeuk in zeuk jan bazkarian eta Gazte Olinpiadetan. "Ekimen jendetsuak dira eta zerbitzu horren beharra ikusi dugu. Ekimen puntual

## 'IXOTU EUSKGARRA' LEOA DUTEN ZAPI MOREAK IZANGO DIRA JAIETAKO BEREIZGARRI NAGUSIAK AURTEN

horiez gain, txosnagunean ere egongo dira komunak, ohi bezala. Horrela, jendeak kalean pixa egitea ekidin nahi dugu, eta kaleak garbi mantentzen lagundu".

Azkenik, zera gogorarazi dute: "Kaleak garbi mantentzea herritar bakoitzaren ardura ere bada; zentzuz joka dezagun".

## Jaietako zapiak salgai

*Ixotu euskgarra!* leloa duten zapi moreak dagoeneko salgai daude, bi eurotan, Kajoi, Monte, Taupa eta Osorik tabernetan. "Horrez gain, herri bazkarira doazen gazte guztiei zapi bana oparitu diete, baita Gazte Olinpiadetako parte-hartzaile guztiei ere", adierazi du Arratibelek.

## Indarkeria matxistaren aurka

Arrasateko Udaleko Feminismoa eta LGTBI+ Sailak, indarkeria matxistarik gabeko aldarriarekin batera, hainbat euskarri eta baliabide plazaratuko ditu egunotan. Batetik, indarkeria matxisten prebentziorako eta sentibilizaziorako gunea jarriko dute Arbolapetan, bihurtik martitzenera, 20:00etatik 00:00etara. Indarkeria matxistan eta auto-defentsa feministan adituak diren emakumeak egongo dira laguntza, informazioa eta aholkularitza eskaintzeko.

Bestetik, Gazte Bulegoan arreta-puntua egongo da, bihurtik martitzenera, 00:00etatik 08:00ak arte. "Emakumeek\* eta neska\* gazteek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzeaz gain, arreta, babes zein elkartasun gune bat izango da. Indarkeria sexistan eta autodefentsa feministan emakume adituak aurkituko dituzu bertan. Horrez gain, espazioa irekita egongo da



**Izpi**

Ondo ospatu jaiak!!

Maisu Arano 2 • Arrasate • Tel.: 685 49 26 18  
izpi@outlook.es • IZPI\_Arrasate





Maidor Morras Arrasateko alkatea, iazko sanjuanetan, dantza egin ostean. I.S.

LGTBI komunitateak jaso ditza-keen erasoen aurrean".

Azkenik, arretarako telefono-zenbakia ere jarri dute: 688 80 91 37. 20:00etatik 08:00etara egongo da erabilgarri, eta, laguntza emateaz gain, informazioa eta aholkua emango dute.

#### Itxuraldatuta eta ATX izenarekin

Aurten eraberrituta dator Txosna Batzordea. "Orain arte, Arrasateko Txosna Batzorde moduan aurkeztu izan dugu geure burua. Edozelan ere, aurten, irudia aldatzearekin batera, izena ere aldatu dugu, eta aurrerantzean ATX izena izango du batzordeak", adierazi du Luken Ormaetxeak, batzordeko kideak.

Ohi bezala, txosnetan emango diete jaiet hasiera, txupinazoa-ekin. Pregoia egiteko ardura txandatur joaten da urtez urte eta aurten Gazte Koordinadora

## Sanjuanak duela 100 urte

1924ko sanjuanak ekarri ditu gogora, mendeurrena baliatuta, Josemari Velez de Mendizabalek. Arrasate Irratiko *Hala dio argazkiak* podcasteko denboraldiko azken saioa erabili du horretarako. "Primo de Riveraren diktadura garaia zen eta jaien antolaketa eta garapena nahiko kontrolatuta zeuden, inor normatik ez ateratzeko. Futbola eta pilota izan ziren nagusi 3.000 pezetako aurrekontua zuen egitarauan", dio. Tarte osoa, hemen: [goiena.eus/irratia/hala-dio-argazkiak](http://goiena.eus/irratia/hala-dio-argazkiak).

Sozialistako kideek egingo dute; performance batekin, gainera.

Aipatzekoa da txosnetan ere indarkeria matxistaren aurkako protokoloa martxan jarriko dutela eta arretarako telefono-zenbakia bera izango da.

Urtez urte indartuz doan batzordea da eta gaur egun zazpi eragilek osatzen dute: Askapena, Bilgune Feminista, Ikasle Atertzaleak, Ernai, Gazte Koordinadora Sozialista, Ttak eta Arrasateko Gazte Abesbatza. "Azken hori izan da taldera batzen azkena, eta, datozen urteei begira, herriko gainontzeko eragileei ere dei egiten diegu taldera batzeko, guztiendako lekua dago eta", dio Ormaetxeak.



Sanjuanetako egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Gogoratu!

**IRTEERAK ARRASATETIK ETA BERGARATIK:**

- Argentina urrian
- Thailandia azaroan
- Toscana abenduan

*Jai zorientsuak guztiak!*

Eta 2025ean... Hegoafrika eta Namibia

**Halcon** bidaiak

Informazio gehiago:  
Erdiko kalea 16 • ARRASATE  
943 79 99 28  
[halcon99@halcon-viajes.es](mailto:halcon99@halcon-viajes.es)

**CENTRO ECUESTRE ZABOLAÍN ZALDITEGIA**

Gora sanjuanak!

Gesalibar auzoa 36 • Arrasate • 627 83 15 55

**MAKOR LEIHOAK**

**Kömmerling®** BANATZAILE OFIZIALA

Ondo ibili sanjuanetan!

Ignacio Zuluaga 4 ARRASATE • 943 10 62 35 / 673 19 81 43  
[makortienda@gmail.com](mailto:makortienda@gmail.com) • [www.makordenda.com](http://www.makordenda.com)

**20 urte** goiena  
*seguru bizi*

Ondo ibili jaietan!

Antso Abarka kalea 6 - Arrasate  
Tel. 943 79 59 81 - [goiena@goienaaseguruak.com](mailto:goiena@goienaaseguruak.com)  
<http://www.goienaaseguruak.com>

Gora sanjuanak!

**Adara**  
ILE-APAINDEBIA

Tel. 943 08 10 68  
Biteri eterbidea 15 behe  
[adarailepaindegia@gmail.com](mailto:adarailepaindegia@gmail.com)  
Arrasate

Ondo dago gauzak  
ondo lotzea  
FALTA GARENERAKO

Ondo ibili sanjuanetan!

Alfonso X Jakintsua 3, Arrasate  
[www.sanfelipe.eus](http://www.sanfelipe.eus)  
24 ordu: 943 532 910  
Bulegoa: 943 773 022

**SAN FELIPE**  
EKIABAGUNTZA

**UME**  
Arrasate  
*Ondo ibili sanjuanetan!*  
Garibai Hiribidea, 6, 20500 Arrasate, Gipuzkoa

**ERRASTI  
KRISTALDEGIA**  
*Ondo ibili  
sanjuanetan!*  
943 79 14 25 | cristaleria@errastik.com

**Lubia**  
*Gora  
sanjuanak!*  
1947an sortua  
**OINETAKOAK**  
ARETXABALETA  
MITARTE KALEA, 14  
943 79 16 00  
ARRASATE  
BITERI ETORBIDEA, 1  
943 79 66 53

**ARGI-PLASTIK**  
*Gora  
sanjuanak!*  
Zigarrola 1, 8. pab  
ARRASATE  
943 77 11 30  
info@argiplastik.eus



Arrasateko Udal Gobernuako hainbat zinegotzi. ARRASATEKO UDALA

## "Aldaketaren oinarriak" ezarri dituela dio Udal Gobernuak

Urtebetean egindako lana ontzat jo du eta elkarlana, gertuko politika eta talde-balioa azpimarratu ditu

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Agintean egindako urtebete honetan "aldaketaren oinarriak" ezarri dituela adierazi du Udal Gobernuak. "Herritarrekin eta eragileekin elkarlanean oinarritutako politika egiten ari gara, gertuko politika".

Era berean, agintaldi honetan eraikitzen hasia aurreikusten duten bi obra handiren oinarriak ezartzeko urtea izan dela dio Gobernuak: Amaia antzokia eta Iturripe kiroldegia berritzea.

Halaber, kirol azpiegiturretan hainbat inbertsio eta mantentze-lan egin dituzte urtebete honetan: errugbi zelaia berritu, Mojategiko garbiketa integrala egin, igerilekuko aldagelen lurra aldatu, Uarkape berritu eta Antoñako frontoian segurtasunezko konponketak egin.

Horrekin batera, "ikusezinak" diren politikak ere aipatu dituzte. "Horien artean daude Aniz-

tasun eta Bizikidetzeta Plan berria, LGTBI+ pertsonen bizitzara duinak bermatzeko plana, hezkuntza diagnosis, udaletxe barruan politika feministak zehar-lerroan lantzea, zaintza aholkularitza zerbitzurako udal batzorde teknikoa eratzea edota Arrasaten osasun-ekosistema martxan jartzea, osasunaren mahai teknikoa martxan jarri eta desfibriladoreak herri osoan jarri".

### Fiskalitatea eta euskara

Politika fiskal berria ere ezarri du Gobernuak, eta euskara lehen lerroa ekarri. "Udalaren barne erabilerako plan berria martxan jartzeaz gain, Harixa egitasmoa aktibatuko dugu, esparru sozioekonomikoan eragiteko, eskualdeko beste herriekin batera". Azkenik, etorkizuneko hirigintza eredu irudikatzen hasteko, *Arrasate zeharkatuz* ekimen parte-hartzailea abiarazi du.

NIRE USTEZ



EVA ABUIN

## Hitzetatik ekintzetara

Guztiok dakigun bezala, ekainaren 28an LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko eguna borrokatzen eta ospatzen da.

Dagoeneko urte asko dira Arrasateko Udalak egun horretan adierazpen instituzionalak egiten dituela. Edozelan ere, aurtun, historian lehengo aldiz, Udal Gobernuaren erabaki politiko baten bitartez, Arrasateko Udalak instituzio bezala LGTBI+ kolektiboarekiko daukan zor historikoa kitatzeko lehengo pausoak eman ditugu.

Hau da, Arrasateko LGTBI+ pertsonen errealitatean erradiografia lortzeko eta bizi-baldintza duinak bermatzeko talka plan baten diseinua garatuko dugu hurrengo hilabeteetan.

Arrasateko Udal Gobernuak ordezkariorik LGTBI+ pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan daukagun konpromiso politikoa, hitzetatik haratago, baliabide tekniko eta ekonomikoekin islatzea erabaki dugu, helburu batekin: mugimendu feministako eta LGTBI+ mugimenduko ordezkariorik eta adituekin ildo politiko berri hau adostu eta garatzeko lehengo pausoak emanez, Arrasate berdinzaleagoa eta anitzago eraikitzea.

## Irakurketa klubarekin dator aurtun Freskura egitasmoa, uztailean

Txatxilipurdik eta Udaleko Euskara Sailak elkarlanean antolatutako aurtun ere. Hala, uztailean euskarazko irakurgaiak eta mahai-jolasak maileguz hartzeko aukera izango da Musakolako igerilekuan. Berrikuntza gisa, irakurketa kluba egingo dute uztailearen 17an, Nerea Loiolaren eskutik. Izena eman behar da udal webgunean.

**MILAR  
ELKORO**  
• Etxetresna elektrikoak  
• Telebistak  
• Plantxak, zartaginak...  
• Mugikorrak  
• Zuntza  
• Telefono finkoa  
• Informatika  
*Ondo pasau sanjuanetan!*  
OLARTE KALEA 35, ARRASATE - 943 79 18 86 / 628 512 083



Arrasate Institutuko zenbait ikasle lanetako bat itsasten. XABIER URTZELAI

# Artea, hausnartu eta mugitzeko

Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna izan zen atzo, eta, palestinar errefuxiatuek bizi duten errealitatea ezagutu eta zabaltzeko, artibismoa izan dute oinarri Arrasate Institutuko batxilergoko ikasleek UNRWArekin elkarlanean herrian barrena egin duten ekimenean

## Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Atzo, ekainak 20, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna izan zen. Egun seinalatu hori zela eta, Arrasate Institutuko batxilergo artistikoko bigarren mailako ikasleek tailerrak egin zituzten, errefuxiatu palestinarren egoeraren berri izan eta haien errealitatea zabaltzeko. Artibismoa, artearen eta aktibismoaren arteko nahasketa, izan dute oinarri egoeraren berri jaso, hausnartu eta ikasitakoa kalera zabaltzeko. Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslariei Laguntzeko Nazio Batuen Agentzia (UNRWA) izan zuten bidelagun proiektu horretan.

## Artibismoa

Artibismo ekintza gauzatu ahal izateko sei orduko tailerra egin zuten ikasleek, hiru saiotan banatuta. Hasteko, lehen saioan, Palestinako errealitatea ezagu-

tu zuten, baita okupazioak dakarrena ere. Bigarren saioan, Irantzu Lekue artistarekin batera artea aktibismoarako tresna bilakatzeko dauden aukerak ikasi zituzten. Horrekin batera, arteak gisa horretako gaiak lantzeko duen erabilgarritasuna ikusi zuten hainbat adibideren bidez. Saio haren amaieran, eta azken saioan, ikasleek taldeka ekintza artibista bat diseinatu zuten, Palestinako errealitateari buruz jendea sentsibilizatze helburuarekin.

Eguraldi txarrari aurre eginez, lan horiek ikasgelatik atera zituzten atzo, Arrasateko kaleetan barrena egindako artibismo ekintzaren bidez. Lanak Arrasateko hiru gunetan jarri zituzten ikusgai, alde zaharrean, Ferrerías kalean eta Nafarroa hiribidean, kolarekin paretetara itsatsita. 10:30etik 12:00ak arte inguru iraun zuen ekintzak.

Ikasleak gustura ibili dira prozesu osoan zehar. "Ondo egon da prozesua; ezberdina izan da, batez ere", adierazi du Naroa Sanzek, Arrasate Institutuko ikasleak. Kritikarako ere aukera izan dute parte-hartzaileek, eta hasiera batean "talka" batzuk izan zituztela onartu du Noa Iglesias ikasleak. Hala ere, behin tailer guztiak eginda eta lanak kalean ikusita, "amaierako emaitzarekin pozik" dagoela esan du Iglesiasek. "Gure pribilegiotik zerbait aldarrikatzeko aukera ona izan da", gehitu du Sanzek.

## UNRWArekin lanean

Palestinaren errefuxiatuei eta haien ondorengoei laguntzeko asmoz sortutako erakundea da Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslariei Laguntzeko Nazio Batuen Agentzia, UNRWA izenez ezagunagoa. Agentzia hori izan da batxilergoko ikasleen bidelagun artibis-

mo ekintzak gauzatzeko. Miriam Amubieta UNRWA Euskadiko Gipuzkoako Hezkuntza teknikariak adierazi du sarri egiten dituztela horrelako ekintzak, errefuxiatuen egoera ezagutzeko asmoz: "UNRWA Euskadik 2006a ezker lan egiten du sentsibilizazio eta herritartasun globalerako hezkuntza proiektuetan. Gure lana jendeak Palestinako errefuxiatuen errealitatea ezagutzea da, haien egunerokoa azaltzea eta errealitatearen inguruan herritarrek sentsibilizatzea".

Ikasleen jarrerarekin pozik dago Amubieta: "Esango nuke adi entzun dutela jasotako informazioa. Gazako sarraskia presente dago albistegietan, eta, beraz, gelara iristerako, jada informazio pixka bat badute. Gu saiatsen gara haiek eduki dezaketan informazioa areagotzen, errefuxiatuen errealitatea sakonago ezagutu dezaten eta datuen atzean dauden pertsonen istorioak ezagutarazten". "Esperientzia positiboa izan da, ikasleek interesa agertu dute errealitate honi buruz gehiago jakiteko eta arte diseinuak egiteko orduan ere inizatibarekin eta gogotsu aritu dira lanean", gaineratu du UNRWako kideak.

Datuen atzeko pertsona horietako bat Arrasate Institutuko ikaslea da, eta, gazteagoa izan arren, harekin ere egon dira. "Arrasateko ikastetxean bada palestinar jatorria duen ikasle bat. Honen berri izanda, saiatu gara ikasle horren testigantza saioretan txertatzen, eta herrian egindako ekintzan parte hartzera gonbidatu dugu. Palestinaren errefuxiatuen testigantzak zuzenean eta lehen ahotsetik entzutea beti oso aberasgarria da, gertuago sentitzen dute ikasleek azaltzen zaien errealitatea".

## PALESTINAREN ERREALITATEA EZAGUTARAZTEKO AKTIBISMO EKINTZA EGIN DUTE IKASLEEK

## ERREFUXIATU PALESTINAREN KOPURUA 5,9 MILIOITAN ZEHATZTU DU UNRWA-K

## Palestinaren errealitatea

Urriaren 7ko gertakarien ostean Israeliek palestinarren aurka abiatutako ofentsibak haien errealitatea irauli du, eta milaka hildako, zauritu eta erbesterratu utzi ditu. Hala ere, palestinarren aurkako jazarpena ez dela berria gogorarazten du UNRWak, *Nakba* izenez ezagutzen den 1948ko maiatzaren 15eko gertakarien eraginez sortutako lehen 700.000 errefuxiatu palestinarrei laguntzeko sortu zuten-eta UNRWA.

Errefuxiatu kantitateak, behera egitetik urruti, gora egin duela azaldu du Amubietak. Barne-desplazatuak ere aipatu ditu; hau da, etxea uztera behar dutako pertsonak, euren herrialdeko mugen barruan mantendu arren. "Palestinako errefuxiatuak mundu mailan errefuxiatu izaten denbora gehien daramaten biztanleak dira; aurtun 76 urte bete dira errefuxiatu bilakatu zirenetik, eta gaur egun ia 5,9 milioi errefuxiatu daude Ekialde Hurbilean; Libanon, Sirian, Jordanian, Zisjordanian eta Gazako Zerrendan".

Lekuaren arabera errefuxiatuek errealitate ezberdina bizi dutela gogorarazi du Amubietak. Egun palestinar lurraldeetan bizi diren desplazatuen muturrerako egoera aipatu du: "Bizi diren tokiaren arabera, haien errealitatea eta egunerokoa ezberdina da. Zisjordanian eta Gazako Zerrendaren kasuan –okupazioak, blokeoak, harresiak, kontrolak eta abar–, egunerokoan muga eta oztopoak dituzte, euren oinarrizko giza eskubideak maiz urratuak dira eta azken hilabeteetan Gazan gertatzen ari den erasoaldiak bertakoen egoera aurrekaririk gabeko larrialdira eramanez".

Gazan bizi duten egoerari aurre egiten dion talde nagusiengandako bat da UNRWA. Hala ere, Israeliek jarritako traben eraginez, haien lana modu egokian gauzatu ahal izatea ia ezinezkoa egiten zaie. "Gazako larrialdi humanitarioaren testuinguruan, herritarren beharrei erantzuna ematen saiatsen ari den agentzia humanitario nagusia da UNRWA. Momentu honetan, lan hori burutzea oso zaila da, gaur egungo baldintzak kontuan izanda eta Gazara laguntza humanitaria sartzeko jartzen ari diren oztopoak kontuan izanda", adierazi du Amubietak.

# Ane Zabala izan da onena, arrasatearren iritziz

Guztira, 927 boto jaso dira AKSko kirolari onena hautatzeko, eta mendi lasterkariak jaso ditu gehien: 190; talde onenaren saria, berriz, Ointxe!-k lortu du, jasotako 923 botoetatik 282 lortuta. 'Joshe' Elortzarentzat izan da aurtengo Udalaren aitortza

## Iñigo Barrena ARRASATE

Arrasate Kirol Sariak badituzte kirolari onenaren izen eta abizen berriak. Ane Zabala mendi lasterkariak eskuratu du aurten garaikurra. Kulturelan egindako ekitaldian zirrara zen nagusi aurtengo saritua nor izango zen jakiteko. Guztira, bederatzi kirolari zeuden izendatuak, baina irabazlea bakarrak izan behar zuen. Hala, herritarrek Ane Zabala aukeratu dute aurtengo herriko kirolari onena, eta motiboak, behintzat, ez ditu faltan izan.

Zabala mendi lasterketetan aritzen da, eta hainbat lorpen izan ditu. Esate baterako, 101 kilometroko Hiru Handiak (Gorbeia, Anboto eta Aizkorri) lasterketa irabazi zuen iaz, 14.30.02ko denbora eginda; lorpen handia ez bairik gabe. Era berean, etxeko lasterketa -Arrasate-Udalatx- eta Ahuntzen lasterketa ere irabaziak ditu, baita behin baino gehiagotan santamas krosean garaipena lortu ere.

## Sei botoren aldearekin

Zabala ez da izan, ordea, aurten lorpenak eta emaitza onak izan dituen bakarra. Lan bikaina egin duten beste zortzi kirolariren aurretik izan da hautatua, baina sei botoren aldearekin



Ane Zabala, aurtengo Arrasate-Udalatx lasterketan. ENEKO AZURMENDI

## KIROLARI ONENAREN SARIAN SEI BOTOKO ALDEA BAKARRIK EGON DA LEHEN BI SAILKATUEN ARTEAN

soilik. Guztira, 927 boto jaso dira, eta, 190 boto eskuratu ditu Ane Zabalak. Gertutik jarraitu dio Jokin Hurtadok, 184 botorekin, eta ez da urrun ibili, 170 botorekin, hirugarren sailkatua izan den Jare Urrutia ere.

## 'Joshe' Elortzari aitortza

Urtero bezala, Arrasateko Udalak aitortza egin dio herriko kirolean erreferente den edo izan de pertsona bati. Aurten Jose Ignazio Elorza *Joshe* izan da omendua. Arrasatek atletismoan izan duen sustatzaile nagusienetakoa izan da, eta hark egindako lana aitortzea erabaki du aurten Udalak. Garbiñe Heriz Velasco emazteak, Iker Elortza Heriz seme gazteak eta Izadi Elortza San Vicente ilobak jaso zuten oroigarria Maider Morras alkatearen eskutik.

# "Argi genuen beste disko bat zor geniela gure entzuleei"

## XABI SOLANO MUSIKARIA

Astlehenean kontzertua emango du, sanjuanen barruan

## I.B.K. ARRASATE

Esne Beltza taldeak kontzertua emango du astlehenean, San Juan jaien, barruan eta taldeko abeslari eta ikur Xabi Solanorekin izan da GOIENA.

## Lehenik Bergaran eta orain Arrasaten; Debagoienean begi onez zaituzten seinale da hori?

Oso gustura joaten naiz. Gainera, Bergaran irakasle ibilitakoa naiz eta lagun asko ditut Bergaran zein Arrasaten. Bergara nire proiektuarekin joan nintzen, eta orain Esne Beltzerekin goaz, baina oso gogotsu.

## Kontzertu berezia izango da, Agur deneri biraren parte da eta.

Asko esan nahi du guretzat. Azken urtea da, azken kontzertuak, eta, gainera, disko berriko kantuak ere joko ditugu. Kontzertuan, lehen diskotik hasi eta orain arteko ibilbide bat egiten dugu, eta gozatzen ari gara azken kontzertuekin.

## Esne bidea lana argitaratu duzue agur modura; musikari batek agur esateko duen modurik onena musikaririk bidez da?

Argi genuen uzteko horrela egin behar genuela. Beste disko bat zor genion gure entzuleriari. Azkena pandemia aurretik izan zen, oso une gogorak izan ziren denontzat, eta argi genuen disko batekin esan behar genuela agur.

## Hainbat kolaborazio, estilo eta erregristro bildu dituzue disko berrian; zergatik?

Beti gustatzen zaigu estilo berriak sartzea eta erregristro



Xabi Solano, Bergarako txosnetan. A.G.

berriak ikastea. Kasu honetan, esate baterako, Rafa Sardinarekin grabatu dugu, Los Angelesen, eta horrek bide asko ireki dizkigu leku askotara iristeko, eta diskoa horren ardatza da. Parte hartu duten musikariei dagokienez, bakoitza mundu batekoa da, eta hori ere gustatzen zaigu.

## 2025ean kontzertu bakarra emango duzue; ze asmo duzue kontzertu horretarako?

Oso berezia izango da. Gure bidaia osoan izan ditugun bide-lagunak alboan izango ditugu. Jai erraldoia izango da, gure jarraitzaileez inguratuta, haiek gabe hau ez litzatekeelako posible izango.

## 2025era arte egongo zarete biran; zein asmo duzue geroko?

Oraindik ez daukat oso argi. Hau ondo amaitu, eta gero gerokoak.

## Ointxe!, talderik onena herritarren ustez

Aurten berritasun moduan bi sari eman dituzte AKS sarietan. Kirolari onenaz gain, talderik onena ere saritu dute, eta Ointxe! saskibaloi taldeak jaso ditu boto gehien. Guztira, 923 boto jaso dira talde onena aukeratzeko, eta Ointxe!-koek 282 boto lortu dituzte; talde bozkatuena izan da. Denboraldi historikoa egin dute Iñaki Ogarak zuzendutakoek.



Ointxe! taldea, udaletxean egindako harreran. ANGEL AYASTUI

## Arrasate Musikalen bi emanaldi datozen egunetarako

Arrasate Musikalek bi emanaldi egingo ditu: bata jaien bezperan eta bestea jaietako egitarauaren barruan. Bezperako gaur arratsaldean bertan izango da, arratsaldeko zazpietan; izan ere, Arrasate Musikaleko dantza taldearen emanaldiarekin gozatzeko aukera egongo da. Emanaldia Amaia antzokian izango da

eta herritar orok izango du ikusteko aukera.

Bigarren hitzordua, osterara, klasiko bat da: Arrasate Musikaleko Bandaren jaietako San Juan kontzertua, hain zuzen ere. San Juan suaren biharamunean egingo dute, hilaren 24an, 13:00etan, Monterron parkean, ohikoa den moduan. Herritarrentzat plan bikaina, dudarik gabe, San Juan bezperako ajeak alde batera utzi eta musika bandaren doinuez gozatzeko.

# Organikoa errefusetik desagerrarazteko bidean

Gorbeialdeko Kuadrillarena da Aramaioko zabor kudeaketaren ardura, eta haren helburua da hondakin organikoa errefusetik bereiztea, etxeko eta auzoko konposta areagotuta; beste hainbat neurri jarri dituzte mahai gainean emaitza "arrakastatsua" izateko

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO  
Gorbeialdeko Kuadrillak berak dauka kuadrilletako zabor kudeaketaren ardura, eta errefusa murrizteko estrategia ari da lantzen herrietako Udalekin lankidetzan, tartean Aramaio-koarekin. Hortik abiatuta, biohondakinen plangintza dokumentua aurkeztu zuen Gorbeialdeko Ingurumen teknikari Jon Toñak pasa den astean Sastiñan. Araban hiri-hondakin solidoen %60 inguru errefusa bezala batzen dute, errefusa eta organikoa nahastuta jasotzen dituzte. Hori "arazo larria" dela azpimarratu zuen Toñak eta horretaz gain, 2022an Espainiako estatuan ere hondakinen kudeaketarako legea onartu zela.

## Ereduaren zehaztapena

Hori horrela, hondakin organikoa errefusatik ateratzea eta herri-mailan tratatzea da helburua; hau da, konposta egitea. Aurreratu zuen Toñak aholkulari tekniko batekin ari direla azterlan bat egiten eta azterketa horrek zehatuko duela organikoa nola kudeatu herri bakoitzean. Hala ere, Aramaion ze asmo duten aurreratu zuen. Batetik, etxeko konpostajearekin jarraitzea: "Hori aukera bat da, ez dena berria, baina estrategia

berri honekin indartu behar da". Bestetik, auzo-konpostaje gunea. Ibarren badaude bi gune, baina proiektu berriarekin organiko kopurua igo egingo dela ikusten dute, eta horregatik Toñak planteatu zuen litekeena dela dauden gune horiek handitzea edota gehiago jartzea. Auzo-konpostajearen modeloa auzoetan erabaki behar dela azpimarratu zuen Ingurumen teknikariak 15-20 etxebizitzaren parte-hartzea beharko delako.

Hala, elkarte gastronomikoei, tabernei, jatetxeei, dendei edota

eskolari ere eskatuko diete organikoa nola kudeatuko duten erabaki eta udalari jakinaraztea.

## Errefus edukiontzien kontrola

Aurreratu zuen Toñak errefusaren edukiontzia itxi egingo dituztela eta bilketa zerbitzu horren maiztasunak ere jaitsi egin beharko direla. Emaitza "arrakastatsua" izateko herritar guztien inplikazioa behar dutela azaldu zuen Ingurumen teknikariak, "denok sortzen baititugu hondakinak eta denok daukagu erantzukizun soziala".



Jon Toñak, biohondakinen plangintzaren dokumentua aurkeztzen Sastiñan. JULEN MURUA

## Edukiontzietan zaborra pilatuta

BAT sindikatuak jakinarazi du zaborrak batzeko ardura duen Daorje enpresak etenda duela hitzarmen-negoziaketa haren langileekin eta, horren ondorioz, langileek lanaldiak "murriztu" behar izan dituztela. Ondorioz, pilaketak sortzen ari dira edukiontzietan. Langileek euren lan-egoera salatu eta herrian sortzen ari diren pilaketengatik barkamena eskatu dute.



Zaborra Aramaioko edukiontzietan pilatuta asteen. GOIENA

## Egitaraua gertu dago Azkoaga auzoko sanjuanak ospatzeko

Biharko garagardo dastaketarako eta afarirako izena eman behar da; festak martitzenean amaituko dira

### I.A.A. ARAMAIO

Bihar hasi eta martitzenera bitartean ospatuko dituzte San Juan jaiak Aramaioko Azkoaga auzoan. Bihar 18:00etan igoko dute txopoa, eta 19:30erako garagardo dastaketa antolatu dute Garairen eskutik. Gaueko hamarretan izango da afaria, eta afalostea Beturra musika taldeak girotuko du.

Garagardo dastaketa sei euro izango da, eta 653 71 52 58 telefono-zenbakira deituta egin behar da erreserba. Afariak, berriz, 22 euro balio du eta 633 22 96 94

telefono-zenbakira deitu behar du joatea gura duenak.

Domekan haurrentako jolasak egingo dituzte, 18:00etan hasita, eta 19:30ean parrillada egongo da. San Juan sua 22:30ean piztuko dute, sorgin kalejirak eta trikitalariek lagunduta.

Astelehenean 12:00etan izango da meza eta ondoren ere parrillada egongo da. Arratsaldean, berriz, briska eta mus txapelketetan parte hartu ahal izango da eta haurrentako jolasak egongo dira. Martitzen eguerdiko meza-ekin amaituko dira jaiak.

## Zabalik dago Gazte Uda programan izena emateko epea

Hainbat ekintza antolatu ditu Txirritolak nerabeendako uztailean eta izena emateko azken eguna hilaren 28a da

### I.A.A. ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkartek 2008 eta 2011 urteen bitartean jaiotako gazteendako Gazte Uda programa antolatu du eta uztailean zenbait ekintza egiteko aukera izango dute nerabeek.

Uztailaren 4an egingo dute lehenengo irteera eta hondartzara egingo dute txangoa. Uztailaren 12tik 13ra bitartean, berriz, Albinan pasatuko dute gaua. Uztailaren 15ean, Ganborralden afari-merienda egingo dute eta 17rako, sukaldarien liga antolatu dute. Egitasmoa hasi

bezala bukatuko dute, uztailaren 26an hondartzara joango baitira.

Txirritolak aurreratu du urtean zehar Aramaioko gazte-lekua dinamizatu duten hezitzaileak izango direla ekintzen dinamizatzaileak.

Izena emateko epea hilaren 28ra arte dago zabalik eta *labur.eus/wIHVS*-eko galdetegian eman behar da izena. Ekintza guztietan izena emanez gero, prezioa 35 eurokoa da. Ekintza solteetan eren eman daiteke izena eta kasu horretan, ekintza bakoitzak 10 euroko prezioa izango du.

## Albinako bidean aldizkako itxierak, filmatze batengatik

Astelehenean, hilak 24, Albinako urtegiaren inguruan grabatuko du Vidania Films SLk eta White Leaf Producciones SL ikus-entzunezko ekoizleak *Singular* filma, eta A-2620 errepedean zirkulazioa itxi egingo dute, aldizka, bi noranzkoetan, lauzpabost minutuz, 15. eta 20. kilometroen artean, 12:00etatik 15:00era bitartean, zaratak ekiditeko.

**ION ANDER CASTRO ZABALA**

Era guztietako aukien konponketa  
Zumezko artikuluen salmenta

**TAPIZERIA OROKORREAN**

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

# Lagunartean sormena eta mugimendua lantzen

Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako hezkuntza, kultura eta aisialdi irigarria eskaini du Batera Aske elkarteak aurtengo ikasturtean, Udalak eskatuta, eta Aretxabaleako eta inguruetako hamarren bat gazte batu dira Bash proiektura

## Mirari Altube ARETXABALETA

Sormena eta mugimendua oinarri dituen aisialdi-gune bat izan dute aniztasun funtzionala duten gazteek Aretxabaletan, urritik ekaina arte. Hainbat gurasok egindako eskaerari erantzunez iritsi da Bash proiektua herrira.

## Norbera ezagutzeko gunea

Batera Aske elkartearengana jo zuen Udalak, hainbat herritan abian duen Bash proiektuaren bermea aintzat hartuta –bestek beste, Arrasaten, Eibarren eta Zarautzen–. Hamazazpi lagunek eman zuten izena ikasturte hasieran eta zortzi-hamar bat gazte elkartu izan dira, bi hezitzailek lagun eginda. Urria ezkerre bi asteen behin, zapatu goizetan, Ibarra kiroldegia izan dute topagune, eta ekainaren 15ean oporrak hartu zituzten. Gehienak aretxabaletarak dira, baina badaude inguruko herrietako hainbat ere. "Oso talde polita osatu dute, giro ona sortu da haien artean, eta hemendik kanpo ere elkartzen dira", azaldu du Ibai Zangituk, Kultura zinegotziak.

"Ondo pasatzeko" gunea eskaintzen diete gazteei. Oihane Montejo da haiekin elkartzen den hezitzaileetako bat: "Jola-



Bash proiektuan diharduten gazteak, hezitzailea eta Kultura zinegotzia. MIRARI ALTUBE

serako espazio bat ematen diegu, gazteek ondo pasatzeko gunea bat da; mugimenduen bidez, dantza mugimenduak, esaterako, norberaren gorputza ezagutzeko lekua da". Dantzas gain, inprobisazio jarduerak egiten dituzte, eta barreterapia saioak ere bai. "Egun bereziak ere izan ditugu eta halakoetan gosaltzera joan izan gara, poteoan eta mendira". Ekintza horiez gain, gazteek eurek ere proposa ditzakete beste batzuk: "Eta *Bashero liderrak* izeneko ekimen bat ere badugu; orduan, lider denak berak pro-

posatzen du zein dinamika eta jolas egin".

Gurasoen laguntzarekin eskertuta dago Montejo, "oso aktiboak" direla iritzita: "Saio batzuetan gurekin izan ditugu".

## Datorren ikasturtean jarraipena

Batera Aske elkarteak eta Udala pozik daude ikasturteak emandakoarekin: "Oso giro polita sortu da haien artean eta familiarak ere pozik daude". Hortaz, oporraldiaren ostean, urrian, dinamika saioak berreskuratzeko asmoa dute guztiek.

## GORA ETA BEHERA



## Futbol zelaian botatako etxafuegoak

Bizilagun batek haserre idatzi du: "Zorionak UDARI. Baina haserre gaude futbol zelaian gol bakoitzeko botatzen dituzten etxafuegoengatik. Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonetako eta animalietako maitasun falta erakusten dute. Piroteknariak ez!".

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



## San Juan bezpera urteroko usadioen bueltan dator


San Juan bezperari Leizarra musika eskolako plaza dantzek emango diote hasiera domekan, 18:00etan. Ondoren, buruhandiek irtengo dira, txistulariekin batera; eta 20:45ean, Bide Batez taldeak dantzaldiari ekingo dio. Sanjuanetako kalejira egingo dute dantzariak 22:15ean, Mitarte kaletik plazarantz, eta, jarraian, sanjuanetako zortzikoa dantzatu. Gero, San Juan sua piztuko dute, eta, itzalitakoan, zezensuzkoa irtengo da. Gaua borobiltzeko, 2006an jaiotako kintoek tantaia altxatuko dute Herriko Plazan.

Usadioari utsiz, irak zabalduko dituzte taldetxo batek herriko atarien aurrealdeetan.

## Puzgarriak eta musika nerabeendako igerilekuan gaur

Pool party jaia –puzgarriak eta musika– izango dute 12 eta 16 urte arteko nerabeek gaur, egubakoitza, Ibarra kiroldegiko igerilekuan. Sarrera debalde izango da eta ez dago aldeaz aurretik izenik eman beharrik. Bi txanda egingo dituzte, pilaketarik izan ez dadin: 16:00etatik 18:45era, DBH-1ekoak eta DBH-2koak; eta 19:00etatik 22:00ak arte, DBH-3koak eta DBH-4koak.

Bestalde, gaztelekuak nerabeentzako uztailerako antolatutako *Udaero* programan izena emateko epea domekan bukatuko da, ekainaren 23an. Lehen hamabostaldian eguneko ekin-tzak izango dituzte eta bigarrenean, *Gaztekonkis* irteera.




IRATI LETE  
ARETXABALETA

"Hainbat dantza egiten ditugu eta batzuetan kanpora ere joaten gara, buelta bat ematera; gustura etortzen naiz eta lagun asko egin ditut".



JUNE ELKORO  
ARETXABALETA

"Gure arteko gauzak egiten ditugu, eta dantzan; lagunekin egotea dut gustuko nik, kontuak kontatzeko. Lagunik berezienak Maialen eta Manel dira".



MAIALEN BITERI  
ESKORIATZA

"Dantzan egiten dugu. Niri guztia gustatzen zait, baina, bereziki, *Goazen*. Lagunekin egoten naiz gustura, haiek gonbidatu gura izaten ditut".

Jou Díaz  
Karakina  
Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENAZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Unai Calzon entrenatzailea herritarren aurrean pozik zapatuan, atzean jokalariai dituela. MIRARI ALTUBE

## Ur-aparretan ibili da UDA, ametsetik esnatu ezinik

Denboraldi polita egin du Erregional Mailako futbol taldeak, eta herritarrengan sortutako ilusioa ase zuen zapatuan; Gasteizko Aurrera taldea 4-1 mendean hartu eta Hirugarren Mailarako txartela eskuratuta, sekulako jendetza batu zen ospakizunetara

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Emozio eta urduritasun handiko arratsaldea izan zen zapatuko Aretxabaleko futbol zaleendako. 1.000 lagunetik gora batu ziren futbol zelaian, eta partidua bukatu orduko hasi zituzten ospakizunak; lehenengo Ibarren, gero kaleetan, kamioian zeharkatu zituztelako, eta bukaeran, Herriko Plazan. Sekulako jendetza batu zen haiekin batera ospatzeko.

Astlehenean, osteran, Udal Gobernu Taldeak egin ziren harrera, udaletxean, eta Agurtzane Elkoro presidentea, zuzendaritzako hainbat kide, entrenatzailea eta taldeko kapitainak elkar-tu ziren. Gari Iturbe alkateak



Udal Gobernu kideak UDAko ordezkariak eta taldeko kapitainekin. M.A.

guztiak zoriondu zituen: "Baita atzeko lantaldea ere. Eta herriri emandako hauspoa eskertu". Presidentea "hunkituta eta bizi izandakoa" sinetsi ezinik zegoen.

EAJren udal taldeak ere zoriondu du UDA: "Oinarrian

egindako lanaren erakusle da lorpena. Eta orain arte bezala babesa ematen jarraituko dugu". Argitu gura izan dute ez zutela jaso udaletzeko harrerara joateko "ez abisurik, ezta gonbidapenik ere".

## GuGeu Atxabalta taldea sortu dute, "herria piztea" xede

Epe motzeko helburuei dagokienez, andramaixetan Kurtzebarriko pistan txosna bat jartzeko asmoa dute

Amaia Ramirez de Okariz

ARETXABALETAKO

Gazteen aisialdiari dagokionez hutsune "nabarmena" antzemanda, GuGeu Atxabalta taldea sortu dute: "Egun bizi garen gizarte kapitalista honek gure aisialdia kontsumismora bideratzen baitu, eta gazteen isolamendu soziala sustatzen du. Horrez gain, herrian aniztasun falta, autokritikarik eza, gustura eta seguru egoteko espazio falta, zentsura... ikusten ditugu", eta "oso garrantzitsutzat" jotzen dute "aretxabaltar guztiei euren lekua edukitzeko" aukera ematea alternatiba bat eskainiz: "Horregatik erabaki dugu GuGeu Atxabalta sortzea; herri identitatea indartzea izango dugu helburu".

Taldeko kideek adierazi duteenez, "herritik eta herriarendako" sortu duten talde bat da: "Hemen ez dugu sexu, adin eta jatorri ezberdinetako jendea baztertzeko".

gure ezaugarrietako bat baita aniztasuna. Gure taldean denon parte hartzea bermatuko da; izan ere, kolektiboan pentsatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Eta adierazpen askatasun osoa bermatuko da".

Sortzaileen erakusleak

Helburua erdieste aldera, beraz, epe motzera, andramaixetan txosna bat jartzea izango dute xede, "autogestionatua eta xumea" izango dena, Kurtzebarri eskolako pistan: "Herritar guztiak gonbidatuta egongo dira, eta, nola ez, herriko sortzaileek euren proiektuak erakusteko aukera izango dute". Horretarako hainbat batzar egingo dituzte.

Hala ere, nabarmendu dute taldea ez dela itxia, "antolatua ahal izateko leku bat baizik". Eta parte hartzeko dei egin dute, "denak batera antolatua eta Aretxabalea berpizteko".



Talde berriaren aurkezpena joan den zapatuan. GUGEU ATXABALTA

RPS: 83/19

**Durana**  
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO  
ESPEZIALISTAK 3D  
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETAKO • TEL.: 943 79 93 55



Joan den astean, lau gazte Eskoriatzako udaletxeko arkupeetan, kontzejupean, eskupilotan jokatzen. IMANOL BELOKI

## Hogei urte beteko ditu udaletxeko arkupeetako eskupilota txapelketak

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatzen duen Kontzejupe Eskupilota Txapelketa jokatu dute zapatuan, 10:00etan hasita. 16 urtetik gorakoak arituko dira, eta 25 tantora izango dira partiduak; kanporaketarako, multzoka banatuko dituzte bikoteak

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Zapatuan jokatu dute Kontzejupe Eskupilota Txapelketa, eta, pilota txokoan edo zabalean uzteaz batera, kosketara bideratu beharko dute pilota parte-hartzaileek, aurkariak eramateko zailtasunak izan ditzaten.

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatzen duen txapelketaren urteurren berezia izanda, egunerako dena prestatzen izan dira egunotan, eta, azken orduko izen-ematerik ez bada izan, gutira, hamaika bikote arituko dira zapatuan, 10:00etan hasita, eskupilota txapelketa berezi horretan lehian.

### Nagusien txapelketa

Zapatu honetan jokatu dute nagusien txapelketa izango da, 16 urtetik gorakoena. Haurren txapelketa ere jokatu da aurtengo edizioan, joan den domekan;

eta zenbait edizioetan emakumezkoen kategoria ere osatu da. Hori horrela, partidu ederrak ikusteko aukera izan dute urte hauetan guztietan. Hauxe dio antolakuntza taldeko Enrique Iregik: "Azken urteetan Edorta Zubizarretak eta nik bikote egin dugu txapelketan. Irabazi izan dugu edizioen bat, baina finallera iritsi ere. Horrekin batera, Felix Diaz de Gereñurekin irabazi izan dut, eta beste hainbat herritar ere aritu izan da; ondo jokatzen, gainera: Felipe Diaz de Gereñu, Angel Kortazar, Julian Mari Ezeiza, Gracia, *Boliña*...

### HAMAIKA BIKOTE ARIKO DIRA BURUZ BURU KONTZEJUPE ESKUPILOTA TXAPELKETAN

Jende pila bat aritu da hemen. Zapatura begira, talde polita osatu da, gaztea, eta lehia bizia izango da".

### Partiduak 25 tantora

Azken bi edizioetan moduan, garagardea jarriko dute antolatuzaileek parte-hartzaileentzat. Multzotan banatuko dituzte bikoteak, eta partiduak 25 tantora izango dira. Gainera, baldintza ugari ezarri dituzte, eta lehiketa hasi aurretik emango dizkiete azalpenak jokalariei; honako hauek dira horietako batzuk: "Sakean erdiko marra pasa behar du pilotak, baina sabaia jotzen badu txarra da; sakeak, gainera, ezkerreko hormara bideratutakoa izan behar du; errebotek balio du, kontzejupeko paretetan dauden koskek, eta udaletxeko atean daudenetan ematen badu pilotak, ona da..."

## "Indarra baino garrantzitsuagoa da pilotarekin txokoak bilatzea"

**EDORTA ZUBIZARRETA** ANTOLAKUNTZA TALDEKO KIDEA  
**ENRIQUE IREGI** ANTOLAKUNTZA TALDEKO KIDEA



Edorta Zubizarreta eta Enrique Iregi, kontzejupean, astean. IMANOL BELOKI

Kontzejupeko beterranoak dira Zubizarreta eta Iregi. Jokoan aritutakoak dira, baina azken urteetan antolatuzaile gisa ari dira. Hala, ondo ezagutzen dute bertako jokoa.

### Zein da trukoa Kontzejupe Eskupilota Txapelketan?

**Zubizarreta:** Pilotan ondo jokatzea garrantzitsua da, baina indarra izatea ez da ezinbestekoa. Txokoak ezagutu behar dira, eta pilota koska horietan sartzen saiatu behar da.

**Iregi:** Zehazten ditugun baldintzak ezagutu behar dira. Sabaian jotzen badu pilotak edo fokuetan, ona da; kanpoaldean, koskan jotzen badu eta botea barruan, ona da, errebotea, udaletxeko atea... Parte-hartzaile asko hilabete lehenago etortzen dira eremuan praktikatzera, eta hori ere garrantzitsua da.

### Azken urteetan giroa ere handitu dela esango zenuke?

**Zubizarreta:** Bai. Parte-hartzaileen partetik, eta baita ikusleen aldetik. Duela bi urte Apotzagan egin genuen lehenengoz afaria parte-hartzaile guztiekin, eta izandako arrakastaren ostean iaz ere egin genuen. Aurten, berriz, Txalapartan afalduko dugu.

**Iregi:** Bertan arituko direnez gainera, azkeneko partiduetara joaten da jendea iluntzean, eta oso giro ona izaten dugu.



## Haurren txapelketa jokatu da

Haurrentzako Kontzejupe Txapelketa egin zuten joan den domekan. Iaz ez zuten egin, ez zuelako inork izenik eman, baina aurten taldetxoa batu da, eta 16 eta 18 tantora aritu ziren zenbait gaztetxo eskupilotan.



# Ikasturtea amaitzeko eta eskerrak emateko saioa

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Beheko Errota Musika Eskolak ikasturte amaierako kontzertua emango du Fernando Eskoriatza plazan. Abenduan izan zuten lapurretaren kalteak arintzeko laguntza jaso dute, eta haiek guztiak eskertzeko emanaldia izango da

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Kontzertu berezia eman nahi dute gaur, eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete musika eskolari lagundu dioten guztiei. Izan ere, 2023ko abenduko zubian lapurreta egin zieten eskolan, eta lapurtutakoaren balioa 15.000 euro ingurukoa izan da. Tresnak eta material informatikoa eraman zituzten, eta ia lan-tresnarik gabe utzi zituzten. Hala, kaltea arintzeko asko lagundu diete herritarrek, eta kontzertua haien tzentzat izango dela adierazi dute musika eskolakoek.

## Eskertza mezua

"Lapurte zigutenean, herriari eta gure ezagunei laguntza eskatzera eraman gintuen egoerak. Gure eskaera zabaltzen lagundu zigun hedabide honek, GOIENAK, eta pertsona pribatuen eta anonimoen zein hainbat elkararren laguntza ekonomikoekin erantzun da: Eskoriatzako Txistulari Taldea, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik, Kinttaden Eguneko Kinttadak, Izaskun Murgia Elkarte, Ad Libitum txaranga, Atxorrotx Kultura Elkarte, Mikros Informatika... baita partikularren instrumentuen dohaintzak ere. Eskoriatzako Udalaren laguntza ere izan dugu", adierazi du Ara-



Araceli Telletxea eta Amaia Arzamendi, Arriaga kontserbatoriokoekin. A. TELLETXEA

celi Telletxeak, Beheko Errota Musika Eskolako zuzendariak.

## Materiala dohaintza

"Herritarren laguntzaz gain, beste dohaintza bat Bilboko Arriaga Kontserbatoriotik jaso dutela dio Telletxeak. Ales Larrazabal zuzendariak lutheria eskolako tailerraren ateak ireki zizkigun, Unai Igartua irakaslearen bitartez. Gainera, Javier Guraya, Ander Arroita-jaregi eta Luis Artola, guztiak lizentziatuak edo diplomatuak lutherian, euren ikasle onenek

egindako bi biolin eta biolontxelo bat eman nahi izan zizkiguten. Guillermo Diazek instrumentuak prest jarri zizkigun eta Bartzelonan luthier ari den Ricard Bertran ikasle ohiaren biolontxelo aukeratu genuen", adierazi du Araceli Telletxeak.

Orain arte jaso duten laguntza ekonomikoa 5.084 eurokoa da, eta zenbait instrumentu erosi dituzte dagoeneko diru horrekin. Hala ere, oraindik laguntza behar duten arren, gaurko kontzertua ematea posible izango dute.

gauera arte ikusgai jarriko dute plaza aurrean, beti bezala.

Hala ere, aurretik zenbait ekintza izango dira: 18:00etan, txorimaloaren bila irtengo dira eta lore-sendorra prestatzeko landareak batuko dituzte; 19:30ean, buruhandiak irtengo dira; eta, 22:00etan, berriz, tantaia jasoko dute 2007an jaiotako eskoriatzarrek. 22:30ean, sua piztuko dute; eta ekitaldia Eskoriatzako txistulariek egingo duten erromeriarekin eta *San Juan* dantzarekin amaituko da.

## 2007an jaiotakoek tantaia igo ostean piztuko dute sua

Bolibar elizateetik eramango dute tantaia herrigunera, eta gero, garabiak lagunduta altxatuko dute, domekan

## I.B. ESKORIATZA

Aurtengo San Juan sua 2007. urtean jaiotako eskoriatzarrek piztuko dute, Fernando Eskoriatza plazan, domeka honetan. 49 lagun inguru batuko dira hilaren 23an, goizean, Bolibar

elizatera joateko eta tantaia botatzeko.

"49 lagun batuko gara Bolibarrrera igo tantaia bota eta herrigunera eskuz jaisteko", adierazi du Alazne Urkiak, 2007an jaiotako eskoriatzarrek. Tantaia

# LEINTZ GATZAGA | 17



Duela bi urte Otxandioko Hontza Extremera egindako irteeran. GUREL

## Haurrentzako aisialdi eskaintza zabala prestatu du Gurelek

Uztailerako udaleku itxiak eta irekiak dituzte aukeran gatzagarrek, eta dagoeneko ireki dute izen-ematea

## Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Beste urte batez, Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteak udaleku irekiak eta udaleku irekiak prestatzen aritu dira herriko gaztetxoek aisialdi eskaintzaz gozatu dezaten. Hori horrela, uztailearen 8tik 12ra udaleku itxiak antolatu ditu Gatzagako Gurel Guraso Elkarteak eta uztailearen 15etik 17ra bitartean, berriz, udaleku irekiak. Batean, bestean, bietan edo nahi duten irteeretan eman dezakete izena gaztetxoek.

## Irteerak udaleku itxietan

Udaleku itxiei dagokienez, bost eguneko oporraldia izango dute gaztetxoek gozagarri. Horietako bi egunetan –uztailak 8 eta 10– herrigunean jolasak egingo dituzte, partaideen nahiak kontuan izanda, eta gainontzeko hiru egunetan, berriz, irteerak egingo dituzte. Batetik, uztai-

laren 9an Landara joango dira, bertako belardian jolasteaz batera bainua hartzera; uztailearen 11n, Hontza Extremera, Otxandioko abentura parkera; eta uztailearen 12an, mendi irteera egingo dute.

## Angosto kanpinera

Arabako Gaubeako bailaran dagoen Villanañe herriko Angosto kanpinera joango dira, udaleku itxien barruan. Uztailearen 15ean irtengo dira Gatzagatik, 17:00etan, eta uztailearen 17an 16:00etan bueltatuko dira. Egonaldiaz gozatzeko orotariko zerbitzuak izango dituzte bertan, eta bainua hartzeko igerileku klimatizatu estalia izango dute, baita kanpoko igerilekua ere.

Prezioak honako hauek dira: irekiak, 40 euro; itxiak, 50 euro; udalekuak eta itxiak, 80 euro; eta mendi irteera bakarrik, aldiz, 10 euro.

## San Juan Gauerako egitaraua betea prestatu du Udalak

Espiritu txarrak uxatzeko eta udari ongietorria emateko San Juan sua piztuko dute domekan, gatzagarrek, San Migel enparantzan. Gauerako prestaketa lanak 11:00etan hasiko dituzte, izan ere, ira bila joango dira; 19:00etan, berriz, bola txapelketa herrikoia jokatuko dute; 21:00etan, txistor pintxoak eta 22:00etan sua piztuko dute.



Iaz, Gatzagako San Juan sua. GOIENA

**EGUBAKOITZA 28****SAN PEDRO BEZPERA**

**11:00** Umeentzako MARRAZKI LEHIAKETA, plazan (4-12 urte).

**12:00** BURUHANDIAK, plazan.

**17:00** ATSOLOERRA: 2023an jaiotakoei ongietorri ekitaldia, udaletxean.

**17:00** Kuadrillen arteko jokoak, Zaldibar antzokiaren kanpoaldean (8-12 urte).

**18:30** Jai kanpaiak.

**19:00** Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta PREGOIA herriko plazan. Aurtengo pregoia TXIMELETA GELAK egingo du. Ondoren, Musika Eskolako bandaren kalejira, txistulari taldearen kalejira eta Castellers de Vilafranca taldearen emanaldia.

**19:00** SALBEA, parrokian.

**22:30** NAGUSIEN DANBORRADA.  
**00:30** MUGI PANDEROA taldea, plazan.

**ZAPATUA 29****SAN PEDRO EGUNA**

**08:00** SOKAMUTURRA, plazan. Debekatuta dute sokamuturrean parte hartzea 16 urtetik beherakoek eta alkoholaren edo bestelako substantziaren baten eraginpean daudenek.

**10:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**11:45** ELIZBIRA.

**11:50** Korporazioa elizara joango da, txistulariek lagunduta. **12:00** MEZA NAGUSIA, San Pedro elizan.

**12:00** ZIRKU TAILERRA, plazan, Zirku Zirkolaren (+ 4 urte).

# JAIETAKO EGITARAUA



Gu Geu konpainiako bi kide iazko sanpedroetako nagusien danborradan; aurten, egubakoitzean izango da, 28an. AITOR AGIRIANO

**13:00** Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA, Gorosarri plazan.

**18:00** Kuadrillen arteko jokoak gaztelekuan (12-16 urte).

**18:00** ESKUPILOTA partidak, Joseba Inurrategi pilotalekuan. Sarrera: 5 euro (16 urtetik beherakoek, doan). 1. partida: IRIBARREN eta MARKAIDA vs ZUGASTI (eskoriatzarra) eta OLIDEN. 2. partida: ARTEAGA II.A eta GARMENDIA vs VICTOR eta BERGERA.

**18:30** Arrasateko ERRALDOI eta KILIKIEN konpartsarekin, kalejira.

**20:00** LONDON ORKESTRA, plazan.

**21:00** Afaria gaztelekuan.

**23:00** AKELARRE FOC ikuskizun piroteknikoa Lekittoko Deabruak taldearekin, plazan. Ikuskizun piroteknikoa eta parte-hartzailea da! Arropa zaharra edo bakeroa, mahuka luzea, praka luzeak eta txanoa eramatea gomendatzen da.

**00:00** LONDON ORKESTRA, plazan.

**DOMEKA 30**

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**11:30** Herriko hildakoen aldeko MEZA.

**12:00** UMEEN DANBORRADA, kiroldegitik hasita (ibilbidea: kiroldegia, Gaztañadi, Jose Arana, San Juan kalea, plaza).

**13:15** DUO IMPERIAL, plazan.

**16:30** 31. MUS TXAPELKETA, Gernika plazan. Izena ematea: 30 euro bikoteko (16:00etik 16:30era). Sariak: 1. Jasotako diruaren % 50, txapela eta bertako produktuen sorta. 2. Jasotako diruaren %25 eta bertako produktuen sorta ertaina. 3. Jasotako diruaren %15 eta bertako produktuen sorta txikia. 4.- Jasotako diruaren %10.

**18:00** AURKITU GABEKO ALTORRA ikuskizuna plazan, ZIRIKA ZIRKUS taldearekin.

**19:15** Eskoriatzako AIREAN taldearekin aire akrobazien erakustaldia, Gorosarri plazan.

**22:00** LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS taldearen kontzertua, plazan.

**00:00** SUZKO ERRUBERAK. Gernika plazatik botako dira. Ikusteko leku aproposa: Olazar auzoa, errekarren bestaldetik.

**ASTELEHENA 1****EUSKAL JAIA**

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:30** TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK, plazan.

**13:00** Musika Eskolako EUSKAL DANTZA TALDEA, plazan.

**13:00** TRIKITILARI ESKOLAKO IKASLEEKIN KALEJIRA.

**15:00** HERRI BAZKARIA. Menua: 12 euro (0-17 urte): pateia, urdaiazpiko-kroketak, baserriko oilaskoa parrillan patatekin, izozkia, ogia eta edariak. Menua: 21 euro (18 urtez gorakoendako): entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri-saiheskia parrillan, goxua edo limoi-sorbetea, edariak, kafea eta txupittoa. Txartelak salgai: Inkernu, O'Dogherty, kiroldegia, udaletxea eta [www.bibe.me](http://www.bibe.me) (Internetetik erosita, 1 euro gehiago). Erosteko azken eguna: ekainak 24. Leku erreserbak eta menu bereziak (azken eguna: ekainak 26).

**16:30** Bazkalosteko DANTZALDIA KITTU taldearekin.

**19:00** ELEKTROTUXUFLA.

**22:00** AKERBELTZ taldearekin kontzertua, plazan.



**MARTIN frutategia**  
Frutan eta txarkuterian espezialista  
*Gora Eskoriatzako jaiak!*

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

# "Ikasleak izango dira protagonista nagusiak"

MAIER MEDIAVILLA TXIMELETA GELAKO IRAKASLEA

Sanpedroei hasiera emateko ardura izango dute Tximeleta gelakoek, eta protagonista nagusiak ikasleak izango dira: Imama Lehsen, Peio Mendizabal eta Manahil Afzaal

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Maier Mediavilla (Eskoriatza, 1996) irakasleak gidatuta, San Pedro jaietako txupinazoa bota eta pregoia irakurriko dute udaletxeko balkoitik 2014-2015eko ikasturtean gizarte inklusiboa lortzeko bidean sortu zen Eskoriatzako Tximeleta gelako kideek. Ekainaren 28an, San Pedro bezperan, 19:00etan izango da ekitaldia, Fernando Eskoriatza plazan.

**Jaiei hasiera emateko ardura izango duzue; prest zaudete?**

Gu hautatu gaituzte gela bezala pregoirako, eta pozik gaude. Luis Ezeiza Herri Eskolako Tximeleta gela, Aspaceko gela garen



Maier Mediavilla, Tximeleta gelan. I.B.

aldetik, guretzat sekulako aukera da eta ilusioz gaude aurtengo jaietara hasiera emateko.

**Nortzuek osatzen duzue Tximeleta gela?**

Aspacek duen gela egonkor bat da, eta Luis Ezeiza Herri Eskola barruan kokatzen da. Hau da, Aspaceko gela gara, baina baita eskolakoa ere. Tximeleta gelatik haur asko pasa dira, baina momentu honetan, gaur-gaurkoz, hiru ikaslek osatzen dute gela: 11 urte dituen Imama Lehsenek, 8 urte dituen Peio Mendizabalek eta 6 urteko Manahil Afzaalek. Ikasleez gain, hainbat profesionalak esku hartzen dugu: hezitzaileak, logopeda, fisioterapeu-

ta, irakaslea, terapeuta okupazionala... Talde zabala gara.

**Prestatu duzue ezer ekitaldirako ala horretan ari zarete?**

Oraindik ez dugu guztia estrukturatuta, eta gauzak lotzen ari gara. Nola egingo dugun ez dakigu, baina mezua, berriz, oso argi dugu: gure egunerokotasunean egiten eta zabaltzen dugun mezu bera helaraziko diegu herritarrei. Argi daukagu protagonista nagusiak ikasleak izango direla.

**Aitortza ekitaldia ere izango da zuentzat Eskoriatzako Udalaren partetik?**

Alde batetik, nor garen ikusteko, guk egiten dugun lana eta guretzat hain garrantzitsuak diren mezuak herrira zabaltzeko, eta, nola ez, gure ikasleak, lehenengo mailako ikasle izateaz gain herritarrak diren aldetik ere, haien eskubideak ere bermatzeko hitzordua izango da.

**Azken mezurik?**

Aurtengo jaiak eta datozenak denondako izatea. Hau da, edozein ezaugarri, gaitasun, behar... dituzten pertsonendako jaiak izatea, eta, bide batez, herritarrek ondo pasa dezatela.

**laz jaiotakoentzako ongietorri ekitaldia egongo da; Atsolorra**

San Pedro bezperan, 17:00etan, atsolorra egingo dute; hau da, 2023an jaiotakoei ongietorri ekitaldia, udaletxean. Bidea komunitatean errazago egiteko, elkarrekin ibiltzeko, babesteko eta eraikitzeko. Hori horrela, herri komunitateak familia berriari babesa eskainiko dio.

Horrekin batera, umeendako ekintza ugari izango dira jaietan. Hilaren 28an, marrazki lehiaketa, buruhandiak, kuadrillen arteko jokoak; San Pedro egunean, zirku tailerra plazan eta Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsarekin kalejira; ekainaren 30ean, umeen danborrada eta *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna... Barrakak ere izango dira, eta honako hauek dira prezioak: bidaia bat 2,5 euro, hiru bidaia 6 euro eta sei bidaia 10 euro. Zaratarekiko hipersentsibilitatea dutenek edo behar bereziko haurrek ere berdin gozatzeko, hilaren 29an eta 30ean, 17:00etatik 18:30era, barraken gunea musika gabe egongo da.



**Hemen**  
garbiketak  
Ura bezain garbia

**GOZATU  
SAN PEDROAK!**

T.- 943 71 48 45  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)





**Petronor**

*Disfrutatu jaiak!*



**KÄRCHER**



**Aingeru**  
ESTACIÓN DE SERVICIO

Aingeru Guarda pasealekua z/g  
20540 Eskoriatza • Telf.: 943 71 53 73

# Aurtengo danborrada, errekor guztiak hausten

Guztira, 330 eskoriatzar irtengo dira herriko kaleetara jaietako hitzordu garrantzitsuenean. Ekainaren 28an izango da, 22:30ean hasita, eta "inoizko danborrada jendetsuena" izango dela iragarri dute antolatzaileek

**Julen Murua Mesonero** ESKORIATZA Urteroko hitzordu garrantzitsuenak ere izango du tokia aurtengo egitarauan: danborradak. San Pedro egunaren bezperan, hilaren 28an, irtengo dira batailoiak kalera, 22:30ean, eta iazko ibilbide bera egingo dute. Ekainaren hasieran ekin zieten entseguei, eta azken asteetan izango dira "entsegu garrantzitsuenak", Andoni Moto danborradako zuzendari orokorrak dioenez. Hilaren 27an egingo dute entsegu orokorra, "hurrengo egunerako guztia prest uzteko".

## Inoizko jendetsuena

Zortzi batailoi irtengo dira zapatuko danborradan, eta iazko pieza berberak interpretatuko dituzte; Dorleta elkarteak, Euskal Giroa, Elizoste, Gu Geu, Irrintzi, Eguzkilore, San Pedro Txiki eta Elkartasuna talde gaztea dira danborrak astintzera irtengo diren batailoiak; betiere, musika bandak lagunduta. Guztira, 330 danbor-jole arituko dira Eskoriatzako kaleetan. Motoren hitzetan, "errekor guztiak hautsi dituen zifra" da aurtengoa –aurreko errekorra 248 partaidetako zen–.

Elkartasuna talde gaztea izaten da urtero-urtero jende gehien



Egokiena elkarteko kideak iazko danborradan. AITOR AGIRIANO

batzen duen batailoia, eta aurtengo euren taldea osatzen duen kopurua ere handitu egin da, nabarmen, Motok adierazi duenez: "Iazko danborradan 150 lagun inguruk osatu zuten taldea –ez zen 150 pertsonara iristen–; aurtengo berriz, 220 eskoriatzar daude talde horretan, eta bereziki pozten gaituen kontu bat da, noski".

## Haurren danborrada

Haurrak ere irtengo dira Eskoriatzako kaleetara danborra jotzera, baina euren txanda hi-

laren 30ean izango da. 12:00etan hasita, kiroldegitik abiatuko dira, kalez kale, plazara iritsi arte; haurrek ere iazko pieza berberak joko dituzte.

Iaz 106 haur irten ziren danborradan, eta aurtengo ere "kopuru antzekoa" mantenduko dela adierazi du antolatzaile batek, Arantxa Unzuetak. "Azken urteetan geroz eta ume txikiagoek" hartzen dutela parte aitortu du, "helduagoak konbentzitzea zailagoa" dela iritzita; hala ere, antolatzaileak "pozik" daude egindakoarekin.



Hiru hamarkadaren ostean, iazko sokamuturren une bat. J.M.M.

## Iazko arrakasta ikusita, aurtengo ere sokamuturra egongo da

Ekainaren 29an, zapatua, egingo da sokamuturra, 08:00etan hasita, eta "zortzi buru inguru" arituko dira

### J.M.M. ESKORIATZA

Aurtengo ere sokamuturren parte hartzeko aukera izango dute eskoriatzarrek. Iaz izan zuen arrakasta ikusita, beste urte batez hitzordua egitarauan sartu eta "arrakasta bera" izatea espero dutela dio Iñigo Almortzak, Bergarako Zezenen gaudetegiko arduradunak. Dagoeneko aukeratu dituzte herriko plazan arituko diren abelburuak, eta, iaz bezala, "zortzi buru inguru" eramango dituztela adierazi du Almortzak. "Aurtengo ere soka gabe irtengo direla erabaki dugu. Gehienak behiak izango dira, besteak beste, biziagoak direlako eta uste dugulako Eskoriatzako plazaren ibilbiderako egokiagoak direla".

Iazko arrakasta ikusita, herri-tarrak plazara joateko eskakizuna egin du Almortzak: "Aurtengo urtean plaza bete egin zen, eta, horrenbestez, espero dugu

aurtengo ere jendea elkartzea sokamuturrez gozatzeko".

### Udaletxetik ikusteko aukera

Herriko plazan hesiak jarriko dituzte iazko modu berean, eta horrek eragingo du mundu guztiak sokamuturra plazatik ikusteko aukerarik ez izatea. Hortaz, iaz egin bezala, sokamuturra udaletxeko balkoitik ikusteko aukera egongo da. Bertako edukiera mugatua denez, interesdunek izena eman beharko dute, 943-71 44 07 telefono-zenbakira deituta edo *whatsapp* mezu bat bidalita 650 49 51 65 zenbakira. Edukiera baino pertsona gehiagok izena emanaz gero zozketa egingo dela jakinarazi du Udalak. Horrez gain, gehitu dute ezingo dutela sokamuturren parte hartu "16 urtetik beherakoek eta alkoholaren edo bestelako substantziaren baten eraginpean dauden pertsonen".



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatza  
Aretxabaleta  
Bilbao AS Fabrik

# Gozatu eta ondo pasa San Pedro jaiak!



Airean taldeko kideak ikuskizun batean. AIREAN TALDEA

## Adin tarte guztientzako egitaraua osatu dute

Haur, gazte zein heldu izan, guztiek izango dute zer egin aurtengo sanpedroetan; izan ere, gaztetxoentzako ekintza eta jolasek, gazte kuadrillentzako lehiaketek eta nagusiagoentzako dantza eta su emanaldiek osatzen dute hiru eguneko egitaraua

**Julen Murua Mesonero** ESKORIATZA Urteroko legez, adin guztietako jendeak izango du egitarauaz gozatzeko aukera; izan ere, askotariko ekintzak antolatatu ditu Udalak, eta ez da asperraldirako unerik egongo Eskoriatzako kaleetan. Ekainaren 28an, San Pedro egunaren bezperan hasiko dituzte jaiak, 19:00etan jaurtitako txupinazoarekin, baina

aurretik ere egongo dira jai giroan murgiltzen hasteko zenbait ekintza.

Jaiei hasiera emateko txupinazoa eta pregoia bota ostean, Musika Eskolako bandak eta txistulari taldeak kalejira egingo dute herriko kaleetan. Ostean, Castellars de Vilafranca taldeak emanaldia egingo du, giza dorre eta guzti.

### Gaztetxoenei zuzendutakoak

Bezpera egunean, 11:00etan, gaztetxoenek euren marrazketarako dohain guztiak erakusteko aukera izango dute plazan egingo den marrazki lehiaketan; 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta egongo da. Toki berean, baina 12:00etan, korrika egiteko berotze ariketak egin beharko dituzte bertaratzten di-

ren gazteek, orduan irtengo dira-eta buruhandiak plazara.

San Pedro egunean, ekainaren 29an, zirku eta artista mundua gustuko dutenek aukera izango dute, Zirkun Zirko eskolako kideen eskutik, zirku tailer bat bertatik bertara bizitzeko. 12:00etan hasiko da tailerra, herriko plazan, eta 4 urtetik gorako haurrei zuzenduta egongo da. Bertan, zenbait zirku modalitatetako lehen urratsak egingen erakutsiko dute zirku eskolakoek, bertako kide Izaskun Ruedak adierazi duenez: "Aire akrobazia, lurreko akrobazia, oreka edota malabarrak nola egin erakutsiko dugu, eta, hurrek ez ezik, gazteek zein helduek ere izango dute parte hartzeko aukera".

Gainera, zirkuarekin jarraituta, Zirika Zirkus taldearen eskutik *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna bizitzeko aukera egongo da hilaren 30ean, 18:00etan hasita, herriko plazan.

### Kuadrillak lehiari

Lehiarako tarte ere egongo da aurtengo sanpedroetan; izan ere, kuadrillek elkarren aurka jokatzeke jokoak antolatu dituzte ekainaren 28rako eta 29rako. Hilaren 28an, 8 eta 12 urte bitarteko gazte kuadrillen arteko jokatu dira, Zaldibar antzokiaren kanpoaldean, 17:00etan hasita. Ekainaren 29an, berriz, 12 eta 16 urte bitarteko txanda izango da, elkarren artean lehiatuko baitira, 18:00etan hasita, gaztelekuan.

### Suaren bueltan

Jai giroak ekartzen du berotasuna, baina giroa are beroagoa izango da San Pedro egunean eta hilaren 30erako antolatu dituzten suaren bueltako ekin-

tzein. Gaua izaten da suzko emanaldiez gozatzeko eguneko une hobereana, eta Eskoriatzan ere bide hori jarraituko dute. Ekainaren 29an, 23:00etan hasita, *Akelarre Foc* ikuskizun piroteknikoa eskainiko du Lekittoko Deabruak taldeak. Suarekin hainbat motatako ikuskizunak egingen dituzte eta, adibidez, San Mames futbol-zelaian antzeztutakoak dira. Lekittoko Deabruak taldekoek jakinarazi dute *Akelarre Foc* "ikusizun piroteknikoa eta parte hartzailea" dela, eta, hortaz, gomendatu dute "arropa zaharra edo bakeroa, mahuka luzea, praka luzeak eta txanoa eramatea".

Horrez gain, ekainaren 30ean, suzko errubera botako dituzte, 00:00etan. Gernika plazatik botako dituzte, eta Udalak adierazi du suzko errubera horiek ikusteko leku aproposa dela "Olazar aztoa, erreka bostaldetik".

### Airean dantzan

Hilaren 30ean, 19:30ean hasita, aire akrobazia erakustaldia egingo dute Airean taldeko artistek Gorosarri plazan, sabaira lotutako oihalen artean dantzan eginda. "Urte osoko lana" egin ostean, "irrikan" daude taldekideak euren ikuskizuna eskoriatzarren aurrean erakusteko. Gainera, aurreratu dute oihaletako dantzaren ikuskizunari laguntzeko musika egongo dela eta euren istorioak kontatuko dituztela.

**SUA, ZIRKUA ETA AKROBAZIAK EGONGO DIRA EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 1ERA ESKORIATZAN**



# Euskal Jaia, festak borobiltzeko eguna

Herri bazkaria aurten Jose Arana kalean –plaza pareko errepidean– egingo dute eta txartelak hilaren 24ra bitartean erosi ahalko dira. Tokien erreserba, berriz, hilaren 26ra arte egin ahalko da. Aurten ez da buruhandien lasterketarik izango

## Amaia Txintxurreta ESKORIATZA

Uztailaren 1ean, Euskal Jai Eguna borobilduko ditu aurten ere San Pedro jaiak. Urteroko herriar taldea egongo da taloak egin eta saltzen, eta, aurreko urteen antzera, espero dute 25 kilo arto-irin inguru erabiliko dutela oraingoan ere taloak jotzeko. Noski, sagardoa dastatzeko aukera ere ez da faltako, 12:30etik aurrera.

13:00etan, Euskal Dantza Taldea arituko da Fernando Eskoriatza plazan erakustaldia egiten, eta ondoren, herri bazkaria egingo dute, aurten leku berri batean: Jose Arana kalean, plaza pareko errepidean.

## Bazkarirako txartelak sagai

Menuak 21 euro balioko du 18 urtetik gorakoendako, eta hau zerbitzatuko dute aurten: entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri-saiheskia parrillan, goxua edo limoi-sorbetea, edariak, kafea eta txupittoa.

17 urte bitartekoendako menuak, berriz, 12 euro balio du, eta hau eramango du: patea, urdaiazpiko-kroketa, baserriko oilaskoa parrillan patatekin, izozkia, ogia eta edariak.

Txartelak hilaren 24ra bitartean eskuratu ahalko dira, leku hauekin: Inkernun, O'Doghertyn, kiroldegian, udaletxean eta *Bibe.me* webgunean –Internetetik

erosita, euro bat gehiago–. Leku erreserbak egiteko eta menu bereziak erosteko, hilaren 26a izango da azken eguna. Udaleko Kultura teknikari Arantxa Unzueta esanetan, iaz 450 pertsona inguru elkartu ziren bazkarian eta lekuen erreserba ehuneko oso altu batek egiten du; hala, bazkarian elkarren ondoan egongo direla ziurtatzen dute eta kuadrillen arteko toki solteak saihesten dituzte.

## Buruhandien lasterketarik ez

12 urtez egin izan dute egun horretan buruhandien bizikleta lasterketa, baina aurten erabaki dute ez egitea.

## Los Zopilotes Txirriaos taldearen zuzenekoa, beste urte batez

Nafarroako taldeak hilaren 30ean emango du kontzertua, plazan, eta askotariko saioak izango dira

### A.T. ESKORIATZA

Musikari dagokionez, eskaintza zabala jaso du jaietako aurtengo egitarauak, eta askotariko kontzertuak izango dira Fernando Eskoriatza plazan. Duela urte batzuk herrian izan zuen arrakasta errepikatu nahian, Los Zopilotes Txirriaos taldeak hilaren 30ean emango du kontzertua, 22:00etan. Aurrez, Txosna Batzordeak eskatuta izan ziren Eskoriatza, eta oraingoan ere euren rantxerekin dantzatzeko aukera izango da.

Mugi Panderoa taldeak ere errepikatu egingo du sanpedroetan: hilaren 28an 00:30ean izango dira. Eta Akerbeltz ere mitikoa da herriko festetan; haiek uztailaren 1ean 22:00etan egingo dute emanaldia.

Estreinakoz izango dira, berriz, London orkestrakoak Eskoriatza. San Pedro egunean egingo



Zopilotes, Arrasateko saio baten. GOIENA

dute ikuskizuna: 20:00etan lehenengo saioa eta 00:00etan hurrengoa.

Gauetan bakarrik ez, hilaren 30ean, Duo Imperial izango da, 13:15ean. Eta Kittu taldea, aldiz, uztailaren 1ean, bazkalosteko dantzaldian izango da, 16:30ean.

## TXUPINAZOA ETA PREGOIA ESKORIATZATIK

EKAINAREN 28AN, EGUBAKOITZA, 19:00ETAN

ZUZENEKOA GOIENA.EUS



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.



Inde ibili jaietan!!

Akeita • Alkazar • Aldatz  
Goxo Txiki • Inkernu  
Urrestilla • Txalaparta



# Pike "sanoa" aldarrikatu dute kuadrillen jolasetan

Hilaren 30ean ospatuko da Kuadrillen Eguna, eta aurtengo XI. Banderia antolatzeko ardura 2002an jaiotako kuadrilla batek hartu du; askotariko jolasak izango dira. Txosna Batzordeak hainbat nobedade dituen egitaraua prestatu du, gainera

## Amaia Txintxurreta ESKORIATZA

Jaietako ekintza garrantzitsu bat izaten da gazteendako kuadrillen arteko jolasena. Aurten, hilaren 30ean ospatuko da Kuadrilla Eguna, domeka, eta bazkalostean, 17:00etan, XI. Banderia izango da jokoan.

Azken bi urteetako jolasak antolatzen ibili den kuadrillak erreleboa pasa dio 2002an jaiotako kuadrilla bati, eta haiek arduratu dira aurtengo jolasak zehazten. Txosna Batzordeko kide Leire Lezetak aurreratu du jolasetan urtero errepikatzen direla joko "historiko" batzuk; esaterako, kuadrillen arteko zaku lasterketa eta faboritoe-



lazo kuadrillen arteko jokoetan, kuadrillen arteko zaku lasterketan lehiatzen. GOIENA

tako bat izaten den urez ahalik eta azkarren bete beharreko botilarena. Duela pare bat urte ere sartu zituzten beste era batzuetako jokoak: galderei lotutakoak eta mimika jolasak. Eta aurten, oraindik ez dituzte aurreratu nahi nolakoak izango diren.

## Lehia estua, baina pike "sanoa"

Lezetak adierazi du egun horretan pike "sanoa" egotea aldarrikatu nahi dutela: "Pikea egoten da kuadrillen artean, eta normala da, jaien emozioaz gain irabazi egin nahi izaten delako. Baina aurtengo helburua da pike hori sanoa izatea. Izan ere, iaz egon ziren jarrera batzuk ez zirenak guztiz egoki ikusi, eta aurten espero dugu, behintzat, pike hori sanoa izatea eta denok disfrutatzea. Irabazi edo galdu, baina denok gozatzea".

## Askotariko ekintzak egitarauan

Hainbat nobedade daude egitarauan. Esaterako, hilaren 28ko danborrada egunean, txosnen irekiera Aretxabaletako oihal akrobaziak egingo dute. Eta egun hori LGTBIQ+ mugimen-

duaren aldeko eguna izanik, drag showa egingo du 01:30ean Andregina artistak.

San Pedro egunean egin izan duten *Zeuk iñ, zeuk jan* bazkaria aurten ez egitea erabaki dute, eta horren ordez merendola egingo dute. Eta 21:00etan hasiko diren kontzertuetan, esaterako, herriko mutil talde batekin osatutako *Terrible* taldeak joko du. Ostean izango dira Korda Rota, Herdoil eta La Txama.

Kuadrilla Egunean, hilaren 30ean, eguerdian, *Marianitada* egingo dute eta Inkernu kanpoko plazatxoan reggae eta ska estiloko musika egingo da. Guerdian hasiko diren kontzertuetan, berriz, Kaparrak eta Trikidantz izango dira.

Euskal Jaiaren Egunean, uztailearen lehen zumbak herrikoia egingo dute, 01:30ean hasita. Gasteizko Judizmendiko hiru kote bat etorriko da hori gidatzen, eta gero, DJ Ittaurren saioa egingo da.

Batzordekoek adierazi dute "txosnagunea denongandik eta denondako sortutako gune segurua" izatea nahi dutela, eta, errespetutik, ondo pasatzeko.

**maulanda  
j a t e t x e a**

*Gora  
sanpedroak!*

943 71 47 20  
678 62 74 85

Maulanda auzoa 1 • 20540 Eskoriatza  
[www.maulandajatetxea.com](http://www.maulandajatetxea.com)



**MIRVAT**

ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK

*Ondo ibili jaietan!*



Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza - Tel.: 943 71 45 06 - [www.mirvat.com](http://www.mirvat.com)



Pentsiodunek deitutako manifestazioa Boni Laskurain pasealekuan sartu berritan, anbulatoriora bidean. J.B.L.

## Lehen arretoa "duinagoa" nahi dute udan ere

Bergarako pentsiodunek manifestazioa egin dute asteon, bestak beste, lehen osasun arretan Osakidetzak udarako iragarri dituen "murrizketak" salatzeke, eta bereziki kritikatu dute herriko anbulatorioan lanpostuak beteko diren bermerik ez dagoela gaur-gaurkoz

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Bergarako pentsiodunek deituta, manifestazioa egin zuten astelehenean, plazan hasi eta anbulatorioraino. *Zerbitzu publiko duinak orain! Privatizaziorik ez!* lelopean egin zuten protesta, bereziki, udara begirako Osakidetzako "murrizketak" salatzeke.

Udan Osakidetzak 77 anbulatorioan arretoa-ordutegiak murriztuko dituela salatu zuten, baita 44 anbulatorioan zerbitzua zenbait egunez itxi egingo dutela eta beste hamar anbulatorio itxita izango dituztela ere: "Murrizketa beste uda batzuetan baino zabalagoa da, ekainean hasten baita, eta beste urte batzuetan uztailean eta abuztuan aplikatzen zen. Murrizketa horiek justifikatzeko, Osakidetzaren aitzakia betikoa da: udan arretoa-beharrak gutxitu egiten direla, osasun-profesionalek oporrak hartzeko eskubidea dutela eta ez dagoela medikurik lehen mailako arretan zentroetan behar bezalako arretoa emateko".

**Bergarako kasuaren irakurketa**  
Pentsiodunek diote Bergarako kasuan ez dela ordutegi murrizketarik izango, urte osoan zehar pairatzen den "errealitatea" delako: "Lehen 20:00etan ixten zen eta gaur egun 17:00etan ixten da. Gainera, Bergarako anbulatorioioko lanpostuak beteko diren bermerik ez daukagu. Normalean, lanean dauden langileen %50 bermatzeko jarraibidea dute, baina hori ezin da bermatu lan baje kasuan. Izan ere, momentu honetan mediku bat falta da, leku aldaketagatik, beste mediku bat falta da baje egoteagatik, eta lizentziagatik ematen ari diren hutsuneak ez dabiltaza betetzen, horiek dakartzaten zerbitzu galerarekin. Urtero erre-

**PENSIODUNEN  
ASTELEHENETAKO  
ELKARRETARATZEAK  
IRAILAREN 23AN  
ITZULIKO DIRA**

pikatzen den beste murrizketa bat ere badago: gaixotasun kronikoak dituzten gaixoei erizainek egiten dieten jarraipena da; izan ere, garai hauetan inor ez zitzatzeko jarraibidea dute. Alde horretatik, pediatria zerbitzuak iaz izan zuen egoera salatu nahi dugu. Egundak batzuetan Bergarako osasun zentroan ez zen zerbitzu hori eman. Eta nahiz eta pentsatu zerbitzu horrek guregan ez duela eraginik, gure senitatekoek zerbitzu hori behar dutenean zuzenean eragiten digu".

### Gobernu berriari mezua

Jaurlaritzako gobernu berria osatuko duten EAJri eta PSE-EE-ri ere zuzendu zitzaizkien: "Osakidetzako egitura-arazoak onartzeari uko egiten diote. Sindikatu guztiek salatu dute egoera, eta hauteskunde-kanpainako EAJren eta PSE-EEren Imanol Pradales eta Eneko Andueza hautagaien promesetatik harago, ez dugu ezagutzen egoera gainditzeko neurri zehatzik".




NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

### Eredu garelako

Azken boladan asko irakurri dut gazteen osasun mentalaren inguruan, eta kezkarriak dira oso frustrazioa eta ziurgabetasuna kudeatzeko dituzten zailtasunak, kontsumoak, sozializatzeko moduen eragina, antsietatea, suizidio tasak... Benetan testuinguru kezkarri baten aurrean gaude. Hezkuntzara dedikatzen garenok, Mandela gisa, argi daukagu "hezkuntza, mundua aldatzeko armarik boteretsuena dela" edo izan daitekeela, baina hezkuntza osotasunean, denok baikara hezitzaile, irakasle, eredu... denok daukagu erantzukizuna. Ikerketek konfirmatzen dute helduonagatik hasi behar dela, ezin ditugulako gazte orekatuak, emozionalki ongi erregulatutakoak espero gu hala ez bagaude. Honekin lotuta, entzundako ipuintxo bat: *Bazen behin sutan hasi zen baso bat, animalia guztiak ihes egin zuten bitartean txoritxo batek ondoko laku batetik mokoan ura hartu eta sutara botatzen hasi zen buelta eta buelta. Tigreak ikustean, gerturatu eta galdetu zion: "Zertan ari zara lan eta lan ezer ez lortzeko?". Txoritxoak begiratu eta erantzun zion: "Agian ez dut lortuko, baina nik nire zatia egingo dut".*

### GORA ETA BEHERA



### Angiozarren "beste altxor bat" suntsitu izana salatu dute



Egurrerako makinek Goimendin hiru mende dituzten harrizko eskailera batzuk suntsitu dutela salatu dute: "Auzolanean garbitzean konturatu gara azken 200 metroak apurtuta daudela".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).

### OHARRAK

#### Udan euskara ikasteko Udalaren dirulaguntza

Udaleko Euskara Zerbitzuak hainbat dirulaguntza jarri ditu martxan udan euskara ikasteko edo ikasketa osagarriak euskaraz egiteko. Eskarera irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira, BAZen. Argibide gehiago: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

#### Jardun: udako euskarako postal lehiaketa

Lehiaketaren XIII. edizioan parte hartzeko aukera ireki dute, irailaren 15era arte. Helburua da "formatu erraz batean" jendea euskaraz idaztera bultzatzea. Postal onenaren saria 100 eurokoa da eta partaide guztien artean 50 euroko saria zozketatuko dute. Epaimahaiak baloratuko ditu edertasuna, originaltasuna, edukia eta idazkera. Argibide gehiago: 605 71 24 69.



# "Genozidioa nazio baten espiritua hiltzea da"

**XABIER IRUJO** NEVADAKO UNIBERTSITATEKO GENOZIDIO IKERKETEN ZUZENDARIA Bergarako Olaso dorrean izan da hitzaldia egiten Irujo, eta, solasaldiak emandakoaz gain, genozidioaz eta genozidio kasuez aritu da berbetan GOIENAREKIN

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA Nevadako Unibertsitateko Genozidio Ikerketen Katedrako zuzendaria da Xabier Irujo Ametzaga (Caracas, 1967) irakasle, historialari eta idazlea, eta joan den astean *Errozabalgo guda eta Iruñeko erresumaren sorrera (778-824)* izan zuen berbagai Olaso dorreko hitzaldian.

**Nabarralde Fundazioak antolatuta Bergaran izan zara hitzaldia egiten; zer-nolakoa izan zen?**

Oso pozgarria izan zen. Oso hurkoa dugu Telesforo Monzon. Nire aitona Bingen Ametzaga, amaren aita, hainbat familia-rekin, tartean monzondarrekin, erbestera aterata zen, Amerikako hegoaldera. Gogoan dut 10 urte nituenean Telesforo ezagutzeko aukera izan nuela Donibane Lohizunen zeukan erbesteko etxean.

**Iruñeko erresumaren sorrera izan zenuen hizpide.**

778an Errozabalgo lehen guda izan zen eta Karlomagno, porrotaren ostean, bertan behera utzi zuen marka hispanikoa delako proiektua, eta ez zen berriro Euskal Herrira etorri. Baskoniak bere independentzia bermatu zuen bataila hartan. Gero, beste zenbait bataila gertatu ziren. 824an ere baskoiak nagusitu ziren, frankoen ejertzitoen buruak harrapatu zituzten eta Eneko Aritza Iruñeko Erresumako errege izendatu zuten.

**Genozidio Ikerketen zuzendaria zara; genozidioa nola definitu?**

Jende asko hiltzea da genozidioaren helburu orokorra lortzeko estrategietako bat. Pertsona bakarrik hiltzearekin ekintza bat genozidiotzat hartu daiteke. Jende asko hil arren, gerra krimena edo humanitatearen aurkako krimena izan daiteke. Gauza bat ez da bestea baino okerragoa. Genozidioa nazio baten espiritua hiltzea da.

**Karlomagnoaren kanpaina hura genozidioa izan zen?**



Xabier Irujo, Olaso dorrearen atarian. N.F.

## "EZIN DIZKIOGU GIZARTE OSO BATI LEPORATU IDEOLOGIA KONKRETU BATEN EKINTZAK"

Genozidio ikerketen aita Raphael Lemkinek kapitulu oso bat eskaini zion Karlomagno eta bere inperioaren sorrerari. Lemkinek agente genozidiotzat hartu zuen, eta ni guztiz bat nator. Hainbat lurralde militarri menderatu ostean, eta jende asko hil ondoren, saiatu zen erlijio katolikoa hark ulertzen zuen moduan ezartzen eta zeuden beste erlijio eta hizkuntza guztiak desagerrarazten.

**Eta Palestinan gertatzen ari dena?**

Bai, eta hori ez dut nik esaten bakarrik, baizik eta Nazio Batuen Erakundeko zenbait bulegok eta erakundek argitaratu dituzte txostenak xehetasun guztiak. Netanyahuaren gobernuak palestinar asko hil ditu, baina saiatzen ari da Palestinan Israelen monokulturalitatea ezartzen eta hango hizkuntza, ohiturak edo janzkerak zapaltzen estatu mo-

nokolore eta monoerlijiosoa ezartzeko. Horrek ez du esan nahi Hamas ez denik talde genozida bat.

**Eskuin muturreko Likud alderdia dago Israelgo gobernuan.**

Eta nabarmendu nahiko nuke alderdi hori ari dela egiten genozidioa, eta ez juduen herria. Ezin dizkiogu gizarte oso bati leporatu ideologia konkretu baten ekintzak. Israelgo koalizio gobernuko giza taldea genozidio egileztat har dezakegu.

**Nola uler daiteke halako sarraski bat XXI. mendean?**

Mende honetan genozidio asko dago, tamalez. Zaila da aurkitzea herrialde bat non genozidioa ez den gertatzen ari. Pentsatzen duguna baino arruntagoa da. Kasurik kritikoenak izan daitezke Ukrainako zati batzuetakoa, Zisjordania, Palestina, Myanmar, Sudan... Raphael Lemkiren hitzetan, herri bateko hizkuntza ez bada eskola publikoetako transmisio-hizkuntza beste hizkuntza batzuekin batera edo bakarrik, genozidioa gertatzen ari da. Orduan, aplikatu hori gaur egungo munduan. Hor duzu non gertatzen ari den eta non ez genozidioa.

## Hilaren 28ra arte ezin izango da gunea gorde San Martzialen

Udalak jakinarazi duenez, 128 mahai eta 981 aulki alokatu dituzte herritarrek San Martzialgo erromeriarako

**I.A.A. BERGARA**

San Martzial erromeria San Martzial egunean egingo da aurtun, ekainaren 30ean, eta herritarrek 128 mahai eta 981 aulki alokatu dituzte egun horretarako. Bergarako Udalak jakinarazi du kuadrillen guneak ezin izango direla zintekin gorde ekainaren 28ko 15:00ak baino lehen. Adierazi du San Martzialgo ermitan eta inguruetan azken ordura arte mantentze-lanak egin behar izaten dituztela, eta, hortaz, adierazitako epearen aurretik jarritako guztiak ken-

du egingo dituztela, "mantentze-lanek eskatzen duten heinean", eta Udalak ez duela "inongo erantzukizunik izango" erreserba-zintak kentzeagatik.

Halaber, gogorazi du debekatuta dagoela mahaiak jartzeko lurra aitzurrarekin lantzea terrazak eginez. Egunean zehar herribusak joan-etorriak egingo ditu Oxirondo plazatik.



Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Mariaren Lagundiko ideia garaile

Mariaren Lagundia Ikastolak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak antolatzen duen fiskalitatea berritzeko gazteen ideia lehiaketako lehen saria lortu du, *Zerga Connect* proiektuarekin. Zergadunek ordaindutako zergen xedea herritarrei erakustea planteatu dute, zergekin finantzatutako zerbitzuetan pegatina identifikatzaileak jarrita.

**UGARTE**  
AROEZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurrira  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROEZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**21**  
**K**  
KALITATEA

Enpresa Registrada N°90/025



Aste honetan Bergaran jokatuko dituzte itzulerako neurketak. MIREIA BIKUÑA

# Burua tente bukatu gura dute herri artekoa

Bergarak hiru partiduak galdu zituen herri arteko txapelketako finalerdietako joaneokan Zaldibiaren aurka. Gaur (18:45) jokatuko dituzte itzulerako neurketak, eta, taldekideek itxaropenik galdu ez duten arren, jakitun dira oso zaila izango dela

**Iñigo Barrena** BERGARA

Matematikek aurkakoa esaten duten arte kirolean inoiz ez da itxaropenik galdu behar, eta puntu horretan dira Bergarako pilota saileko kideak. Herri arteko txapelketa aparta egiten ari dira; horren adibide da finalerdiak jokatzeko txartela eskuratu dutela hainbat urteren ondoren. Txapelketak aurrera joatearekin batera maila igotzen eta partiduak zailtzen joan dira, eta une horietan agertzen dira koska bat gorago dauden pilotariak.

Hala, aurreko astean jokatu zituzten Bergarak eta Zaldibiak finalerdietako joaneok neurketak, eta goierritarrak nagusi izan ziren hiru partiduetan: kadeteetan (22-14), gazte mailan (22-5) eta nagusietan (22-17). Ia "ezinezkoa" den arren, Peru Alberdi pilotariak ez du itxaropenik galtzen: "Ez da ezinezkoa. Haiek sinetsita etorriko dira, eta, behintzat, partiduren bat irabazteko gai baldin bagara, ondo. Ea,

adibidez, kadete mailakoa irabazteko gai garen".

**Aurkari indartsua**

Joaneok neurketak amaitu bezain pronto, Julen Aranburu entrenatzaileak GOIENARI adierazi zion gazte mailan eta nagusien mailan "partidu onak" jokatu zituztela, baina gazte mailan "alde handia" egon zela hasieratik. Hain zuzen, Peru Alberdi da gazte mailako pilotarietako bat, eta zaldibiarren hiru bikoteak "konpentsatuak" daudela aitortu du: "Maila bakoitzean atzelari onak dituzte. Atzeko koadroetan nagusi izaten dira aurkariaren aurrean, dominatu egiten zaituzte, eta gero, aurrean erraz amaitzeko

**JOANEKO NEURKETAK GALDUTA, HOGEITA HAMAR TANTOKO DESABANTAILA DUTE BERGARARREK**

pilotak izaten dituzte euren aurrelariak". Gaineratu du joaneokan gazte mailako pilotari titularra "min hartuta" egon zela eta jokatu zuten biak ere eskuetatik "pattal" zeudela.

**Frontoira joateko gonbita**

Sailkapenarekin amestea ia ezinezkoa da, baina horrek ez du esan gura gaur arratsaldeko hitzorduak ez dituenik bertaratzeko osagaiak. Urte batzuk badira Bergara ez dela herri arteko txapelketako finalerdietan egon, eta aurtengoa agurtzeko modu ezin hobea frontoia beteta egotea litzateke. "Ez da sarritan egoten aukera herri arteko txapelketako finalerdiak ikusteko, eta herritarrei frontoira etortzeko gonbita egiten diegu, giro aparta egon daiteke", adierazi du Peru Alberdik. Era berean, berretsi egin du bai hura eta baita taldea ere "gogotsu" eta "itxaropentsu" daudela gaur arratsaldean itxura ona emateko.



Kartzela zaharreko xake txapelketako sari banaketa. YON SUINAGA

## Etxean gelditu da xake txapelketako sari nagusia

Iraitz Arizabaleta bergararrak irabazi zuen, domekan, kartzela zaharrean jokatu zen txapelketa

**I.B.K. BERGARA**

Tradizio bihurtu da Bergaran kartzela zaharreko xake txapelketa, eta aurten ere ez du hutsik egin. Guztira, 25 partaidek eman zuten izena, eta, antolatzaileek adierazi dutenez, partaide kopuru "handia" eta "giro aparta" egon zen joan den domekan. Irabazleak, ordea, bakarra izan behar du, eta oraingoan garai-kurra etxean gelditu zen; izan ere, Iraitz Arizabaleta bergararra izan zen txapelduna. Bigarren tokian sailkatu zen Miguel Gomez azpeitiarra eta brontzea ere mahonero batentzat izan zen, Mikel Barkero bergararentzat. Maila ez-federatuen ere irabazle etxekoa izan zen, Aitzol Lennisorok eraman baitzuen garai-kurra.

**Maila handiko txapelketa**

Federatuen eta ez-federatuen txapelketak jokatu ziren kar-

tzela zaharrean, eta bietan ere "maila handia" egon zela aitortu dute antolatzaileek. Horren adibide da lehen hiru sailkatuek puntu kopuru berearekin amaitu zutela, zazpi puntu posibletik bost lortuta. Guztira, zazpi txanda jokatu zituzten, suitzar sistemara. Hala, txapelketa aurrera doan heinean, puntu kopuru bera duten jokalariek elkarren aurka jokatzeko ibili dira, bikoteek zailtasun maila bera dutela bermatzeko.

**Uztailaren 20an, gazteentzat**

Bergarako Xake Elkartek ez du gelditzeko asmorik eta dagoeneko beste txapelketa bat ere iragarri du datorren uztailaren 20rako. Kasu horretan, goizez jokatu da txapelketa eta gazteei bideratutakoa izango da, 16 urtez azpikoendako, hain zuzen ere.

## Udako futbol txapelketa une erabakigarrian da

Ekain hasieran ekin zioten udako futbol txapelketari eta dagoeneko fase erabakigarrian da. Multzokako faseko neurketa guztiak jokatu, erabakita gelditu da ze taldek jokatu dituzten liga txapelketa eskuratzeko kanporaketa faseak eta zeintzuek kopa txapelketak. Gainera, ligan atzo iluntzean ziren jokatzekoak ligako final

laurdenetako azken partiduak, eta gaur ikusgai da *Goiena.eus* atarian ze talde sailkatu diren finalerdietarako.

Kopan, berriz, Leones de Montepinar, LH Artaldea, Litxar FC eta Elgeta saiatuko dira garai-kurra eskuratzen. Nesken txapelketan ere atzo erabaki ziren nortzuek jokatu dituzten finalerdiak –*Goiena.eus* atarian ikusgai–. Finalerdi guztiak astelehenean jokatu dira, eta final handiak, berriz, egubakoitzean.

# Orfeoiarekin hunkitzeko gertu dago San Pedro

Ekainaren 29an, 'Adoro Te Devote' kontzertu sinfoniko-korala eskainiko dute Bergarako Orfeoiak eta Ganbera Orkestrak San Pedro elizan (19:00), Mendelssohnen eta Beethovenen pieza bana interpretatuta. Stoltz Freres organo berritua entzuteko aukera ere egongo da

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Bergarako Orfeoiaren eta Ganbera Orkestraren eskutik, *Adoro Te Devote* kontzertu sinfoniko-koralaz gozatu ahalko dute herritarrek San Pedro egunean, ekainak 29, San Pedro elizan (19:00). Sarrerak salgai daude [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) atarian, hamar eurotan.

**Mendelssohn eta Beethoven** Orfeoiko zuzendari Aitor Biainek aurreratu duenez, Alemaniako erromantizismoa ulertzeko funtsezko bi musikagileren pieza bana interpretatuko dituzte: "Bergarako Orfeoiak urte luzez antolatu izan ditu kontzertu sinfoniko-koralak San Pedro elizan. Iaz, mendeurrenaren urtean, Mozarten *Requiem* izan zen protagonista. Aurten, ildo beretik, *Adoro Te Devote* aurkeztera gatoz: musika erromantikoa, Ludwig Van Beethovenen eta Felix Mendelssohnen pieza banarekin". Mendelssohnen *Hör*



Orfeoiko Begoña Lasagabaster, Agurtzane Arriola eta Aitor Biain. J.B.L.

*mein Bitten, Herr!* eta Beethovenen *Messe C-Dur* interpretatuko dituzte, eta Biainek azken pieza horren berezitasuna azpimarratu du: "Beethovenek Joseph Haydnk ezarritako tradizio bat jarraitu zuen, 1795ean Ingalate-

rratik itzuli ondoren, Esterhazy familiarentzat meza bat konposatzea urtero printzearen emaztearen urtebetetzea ospatzeko. Haydnk 1802an amaitu zuen tradizio hori, osasun arazoengatik [...] Beethovenen obra

ezezagunetako bat da; oso gutxietsitako maisulantzat hartzen dena. Meza hori da eskainiko duguna, orkestrarekin eta lau bakarlarirekin".

## 83 lagunen parte-hartzea

Kontzertuan 46 kantarik, 33 musikarik eta lau bakarlarik –Nerea Ibarra sopranoa, Ainara Uribesalgo kontraltoa, Aitor Garitano tenorra eta Karlos Etxaniz baxua– hartuko dute parte; guztira, 83 lagun pasatuko dira agertokitik. Abeslarien artean egongo da orfeoiko presidente Begoña Lasagabaster, eta dio "oso gogotsu" dagoela ekainaren 29ko zita berezirako: "Presidente izateaz gain, abeslaria ere banaiz, eta oso gogotsu nago San Pedro elizan abesteko. Esfortzu handia egin dugu, buru-belarri ari gara entseatzeko. Beste koru batzuetatik ere hurbildu zaizkigu abeslariak babsa eskaintzera, eta oso gustura gaude orain arteko emaitzarekin. Azpimarratzekoa da lau bakarlariek direla bergararrak, eta baita orkestrako kide asko ere. Uste dut ikuskizun polita irten-go dela; mereziko du etortzea".

## Organoa ere batuko da festara

San Pedro eguneko eta elizako kontzertuak beste osagai erakargarri bat ere izango du, azken hilabete luzeetan Frantzia konpondu eta berritu duten Stoltz Freres organoak presentzia berezia izango duelako. Organoa-

ri ongietorria eta aitortza egingo du, Aitor Oleak Mozarten *Ave Verum* pieza joko du. Organoa ez dago erabat berrituta eta afinatuta; adibidez, pedal guztiak ez dizkiete jarri oraindik.

## Dokumentala ekainaren 25ean

1923an sortu zen orfeoia, XIX. mende bukaeratik Bergaran zegoen tradizio koralaren ondorioz. Bada, 1923tik 2023ra arte bizitakoak laburtzen dituen *100 urte kantuan* izeneko dokumentala ekainaren 25ean estreinatuko dute Seminarixoan (19:00); sarrera doakoa izango da.

ABAO Komunikazio Agentziak egin duen ikus-entzunezkoak 70 minutu inguru irauten du eta, besteak beste, orfeoiarekin lotura zuzena duten edo izan duten honako pertsona hauek elkarrizketatu dituzte ikus-entzunezkoak: Asuntxi Gallastegi, Julio Unamuno, Marili Altuna, Miren Gurutze Arana, Karlos Etxaniz, Kristina Larrañaga, David Azurza, Aitor Biain eta Kontxi Laskurain. "Orfeoiko protagonista nagusien elkarrizketak ditu, besteak beste. Interesgarria dela uste dugu", dio Lasagabasterrek.

## MEDEURRENA LABURTZEN DUEN DOKUMENTALA ESTREINATUKO DUTE EKAINAREN 25EAN

## Pop eta rock doinuak Muniben, bandaren ezohiko kontzertuan

Banda beste entzule batzuegana heltzeko ekintza izango da; abestien artean, Su Ta Gar, Berri Txarrak, Zea Mays...

**J.B.L.** BERGARA

Bandak kontzertu berezia emango du bihar, hilak 22, Munibe plazan (19:00); euri arriskua badago, udal pilotalekuan izango da. Bandako zuzendari Enrike Txurrukaren arabera, banda ezohiko entzuleengana heltzeko saiakera baten emaitza da: "Iaz kalera irtetea pentsatu genuen, errepertorio *poperao* edo herrikoiago batekin. Ezagutzen ez gaituenak pentsa dezake musika klasikoa edo pasodobleak jotzen ditugula soilik, eta ez da horrela! Edozein estilo jotzen dugu;

klasikotik hasi eta gaur egunera arte. Iaz orkestrarekin saiatu ginen, baina euri arriskuagatik ezin izan genuen kalean jo".

## Bandako abeslarien laguntza

Biharko egitaraua "guztiontzat ezagunak" diren abestiek osatuko dute: "Abeslarien laguntza izango dugu, denak bandako kideak. Moldaketak ere guztiak dira gureak". Kontzertua hasteko, *Concert Prelude* (Philip Sparke) obra sinfoniko motza joko dute. Eta ondoren etorriko dira honako pieza hauek: Su Ta Gar



Bandaren Pentekosteetako kontzertua, udal pilotalekuan. GOIENA

taldearen hainbat kanturen moldaketak; nazioarteko musika elektronikoa arrakasta izan duten piezen bilduma; Xabi Solanoren *Erre zenituzten* abestia; Sinead O'Conorrek famatu egin zuen eta Lia Ayerbek abestuko

duen *Nothing compares to you*; Metallicaren *Nothing else matters* –Asier Elorzak abestua–; Zea Maysen *Negua joan da ta* –Mariñe Diazek abestua–; eta Berri Txarrak taldearen *Katedral bat* –Biken Larrañagak kantatua–.

## Solstizio gauaren eta San Juan auzoko jaien ospakizuna

Jardunek, Udalaren eta musika eskolaren laguntzarekin, solstizio gau ospatzeko dei egin du hilaren 23rako, plazan (22:15): "Gau berezi honetarako herriko zenbait eragile elkartu eta ekitaldi txiki bat antolatu dugu suaren inguruan. Fandangoa eta arin-arina jakinez gero, etorri eta dantzatu suaren bueltan!".

Bestalde, jaiak ospatuko dituzte San Juan auzoan. Ekainaren 24a izango da egun handia, honako ekintza hauekin: meza (12:00) eta ondoren luntxa, trikitilariak alaituta; lora-sortaren erakusketa (13:00); 80 urtetik gorako auzotarrei omenaldia (13:15); eta auzotarrendako bazkaria Tartufo jatetxean (14:30).

# Batzorde aldaketa Arrola mendizale elkartean

Zazpi bazkide arituko dira elkartearen egunerokoan lanean, eta aurten egingo diren ekintza batzuen berri eman dute: Pirinioetara irteera iraileko asteburu batean eta Gaztelugainen baba-jana udazkenean. Rokodromoan ere arreta jarri nahi dute

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Batzorde aldaketa izaten du urtero Arrola mendizale elkarteak, bi urtez batzordean egon direnek lekua uzten baitiete batzordekide berriei, beste bi urteko epean elkartearen egunerokoan lanean aritzeko. Hala, Larraitz Berraondo, Mariñe Etxaniz, Unai Kortabarria eta Jon Fernandez herrikideek lekukoa pasa diete Txomin Arzallusi, Ione Larrañagari, Julian Ramirez de Okarizi eta Ainize Lizarralderi, batzordeko zozketaz hautatutako bazkideei. Horiak, ordea, ez dute hutsetik hasi beharko, alboan izango baitituzte jada urtebete-ko esperientzia duten Alazne Jauregi, Ander Arbulu eta Miren Karmele Iparragirre.

Hain justu, herenegun, ekainaren 19an, egin zuen urteko batzarra Arrola mendizale elkarteak, eta orduan eman zuten batzordearen eraketaren berri, aurrerago egingo duten bileran zehaztuko dituzten arren ba-

tzordekide bakoitzak izango dituen ardurak.

2023ko ekintzen berri ez ezik, 2024ko lehen seihilekoan eginkoak ere izan zituzten oinarri batzarrean, eta, batik bat, parke naturaletara eginiko irteerak izandako arrakasta nabarmendu zuten: herritar talde baten ekimenez, Euskal Herriko natura parkeak ezagutzeko irteerak egiten dituzte hilero-hilero, eremu horien "ezaugarri nabarmenenak" ezagutzeko; esate baterako, uztailearen 13an, zapatua, izango da hurrengoa, Aiako Harria ingurura.

Horrez gain, datozen ekintzei dagokienez, iragarri zuten iraileko asteburu batean Pirinioetara joateko asmoa dutela, eta

**MENDIRAKO MATERIALA EROSI DU ELKARTEAK, ETA HERRITARREN ESKURA JARTZEKO ASMOA DU**

Gaztelugainen iaz eginiko baba jana ere errepikatuko dutela.

**Rokodromoa eta materiala**

Rokodromoa ere hizketagai izan zuten batzarrean, batzordekideak kezkatuta baitaude haren funtzionamenduari. Haien arabera, elkarteak badu diru partida bat horretarako zehaztuta, baina, hein batean, rokodromo-ko erabiltzaileen beharra dute diru hori zertan inbertitu zehazteko. Iaz talde bat sortu zuten propio horretarako, eta urrats batzuk egin zituzten; bada, elkarteak era horretako mugimendu bat jarri nahiko luke martxan. Gai hori aztertuko dute, beraz, ikasturte honetan zehar.

Horrez gain, jakinarazi zuten mendian erabiltzeko materiala erosi dutela, hala nola kranpoiak, kaskoak eta pioletak, eta argi dute herritarren eskura -bazkideek, agian, abantaila batzuekin-jarri nahi dituztela; alabaina, zehazteko dute zein izango den horretarako bidea.



San Juan bezperako dantza saioa, iaz. GOIENA

## San Juan bezpera ospatuko dute etzi, ohiko egitarauarekin

Arbola jasotzea, Oinarinen dantza saioa, etorri berriei harrera eta sua izango dira iluntzeko protagonistak

**A.R.K.** ANTZUOLA


San Juan egunaren bezpera da ekainaren 23a, etzi, eta ospakizunak izango dira iluntzean. 20:00etan hasita, arbola jasoko dute lehendabizi Herriko Plazan udaleko ordezkari eta langileetako batzuek, baina laguntzaile izango dituzte hainbat herritar ere, soketatik tiraka. Ondoren, berriz, Oinarin dantza taldeko kideen txanda izango da.

San Juan zortzikoa dantzatu-ko dute dantzariak arbolaren inguruan, eta baita soka dantza ere, herritarren bat omentzearekin batera. Gaueko hamarre-

tan, aldiz, San Juan sua egingo dute Herriko Plazan.

**Iritsitakoei ongietorria**

Horrez gain, ongietorria egingo diete atzerititik etorri berriak diren herritarrei. Udalak 24 lagun bidali die ekitaldian parte hartzeko gonbidapen-gutuna, baina, gaur-gaurkoz, ez dakite zenbatek hartuko duten parte, normalean "gutxi" agertu ohi direla nabarmenduta. Hala ere, udal ordezkariak hitz batzuk esateaz gain, Oinarineko dantzariak agurra dantzatu-ko diete elkartzen diren guztiei.



Ezkerretik eskuinera, eta goitik behera: Jauregi, Arbulu, Arzallus, Iparragirre, Kortabarria eta Fernandez. A.R.K.

## Mugiment txartela eskuratu dezakete gimnasioko abonatuak

'Mugiment KTX' aplikazioa deskargatu behar da txartela eskuratzeko; bestela, abonatu-txartela aurkeztu daiteke

**A.R.K.** ANTZUOLA

Mugiment txartela eskuratu dezakete Antzuolako gimnasio-ko abonatuak aurrerantzean, sare horretan dauden Araba, Bizkai eta Gipuzkoako beste kirol instalazio batzuk erabiltzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, *Mugiment KTX* aplikazioa deskargatu behar da sakelako telefonoan, eta datu pertsonalak bete behar dira erreferentziatzeko zentrotzat Antzuolako udal gimnasioa aipatuz. Hala, erregistroaren jakinarazpena jaso ondoren, txartela era-

bili daiteke gainontzeko kirol instalazioetan, txartel digitala eta nortasun agiria erakutsiz harrerako langileei. Sakelako telefonorik izan ezean, berriz, abonatu-txartela eta nortasun agiria aurkeztu daitezke.

**Uztaileko ekintzak**

Uztailearen 1etik 16ra eskaintza berezia izango da gimnasioan: *crossfit* saioak izango dira 8-12 eta 12-16 urte artekoendako; helduendako, berriz, body tonoa eta ibilketa nordikoa. Izena aurrez eman behar da, udaletxean.



2019ko Kalebarrengo jaiak, arbola jaso ondoren. GOIENA

# Kalebarrengo jaiak, gaur hasi eta etzi arteko festa

Berritasunen artean dira haurren sagar dantza, bingo musikatua eta karaokea; gaur izango dira. Bihar, berriz, arbola jasoko dute, eta batzordekideek haren bila joateko dei egin dute; horrez gain, auzoko gazteei batzordera batzeko gonbita egin diete

## A.R.K. ANTZUOLA

Beste urte batez, hutsik egin gabe, bueltan dira Kalebarrengo jaiak. Gaur hasi eta etzi arte zenbait ekintzaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, eta horien artean badira berritasun batzuk. "Aurten, haurren danborradaren orde, umeen sagar dantzarekin emango diegu hasiera jaietara, zapatu gauean

egiten denean parte hartzeko gogoia izaten baitute gaztetxoek; hala, horretarako aukera hau eman nahi diegu, Kalebarrengo jaietako bereizgarrietako bat baita", adierazi du Saioa Zabalok, Kalebarrengo Jai Batzordeko kideak, azpimarratuta biharko –hilak 22– sagar dantzan 13 urtetik gorakoek izango dutela parte hartzeko aukera.

Hain justu, gaur arratsaldean izango da haurren sagar dantza, 18:30ean, eta merienda izango dute amaitutakoan. Ondoren, herri afaria, bingo musikatua, karaokea eta aulki jokoa izango dira gauean zehar.

## Zapatua, indartsuena

Zapatua izan ohi da egunik indartsuena, ordea, jai horietan,

eta horrela izango da aurten ere. Umeendako jokoak eta bikileta ginkana –Peña Aiastui elkartearen eskutik– izango dira goizean, eta buruhandiak, arbola jasotzea, Antzuolako txaranga –herrian bigarren emanaldia egingo du–, Emaion erromeria taldea eta sagar dantza, berriz, arratsaldetik aurrera. "Iluntzeko zortzietan jasotzen da arbola, baina 15:00ak aldera elkartzen gara bila joateko, trikitiarekin eta panderoarekin batera. Kasu honetan, mutilak gehiago izaten dira, eta, beraz, dei egin nahiko genieke neska-mutilei etortzeko, giro polita sortzen da eta". Igandean, azkenik, txistulariak, haurren dantza saioa, salda eta txorizoa eta pailazoak izango dira.

Horrez gain, Zabalok erantsi du aurtengo jaietarako zapiak izango dituztela salgai, hiru eurotan, eta Gorosti eta Aitz Garbi tabernetan daudela eskuragarri. Are gehiago, auzotarrei loreontziak lotzeko dei ere egin diete batzordekideek, umore puntu batekin, urteetan "tradizioa" izan baita loreontziak lekuz aldatzea.

## Batzordearen osasuna

16 eta 23 urte arteko auzoko hamabost pertsona inguruk osatzen dute gaur egun Kalebarrengo Jai Batzordea, belaualdi aldaketa izaten baitu sarritan. Zabalok azaldu duenez, neskek osatzen dute taldearen gehiengoa, eta jaietarako "prest eta gogoz" daude guztiak, antolakuntzan ere "ongi" baitabilta. Hala ere, batzordean parte hartzeko dei egin diete auzotarrei: "Kalebarrengo gazteei batzordera batzeko esan nahi diegu, jende gehiagorekin lana errazago egiten baita".

## Jaietako egitaraua

Ekainaren 21etik 23ra, gaurtik etzira, ospatuko dituzte Kalebarrengo jaiak.

### Hilak 21, egubakoitza

- **18:30** Umeen sagar dantza; amaitzean, merienda.
- **21:00** Herri afaria, bakoitzak berea eramanda; ondoren, bingo musikatua eta karaokea.
- **00:00** Aulki jokoa.

### Hilak 22, zapatua

- **10:30** Umeendako jokoak.
- **18:00** Ginkana.
- **18:00** Buruhandiak.
- **20:00** Arbola jasotzea; ondoren, Antzuolako txaranga.
- **23:00** Emaion erromeria taldea.
- **00:00** Sagar dantza; ondoren, erromeria.

### Hilak 23, domeka

- **10:00** Txistularien diana.
- **12:00** Oinarin dantza taldekoen dantza saioa; ondoren, salda eta txorizoa.
- **17:00** Zapotxin pailazoa.

## JAIETAKO ZAPIAK SALGAI DITUZTE AITZ GARBI ETA GOROSTI TABERNETAN, HIRU EURO TAN

## Komunikazioa hobetu dezan, galdetegi bat zabaldu du Udalak

Komunikazio "argi, eraginkor, bateratu eta zirkularra" garatzeko asmoa du Antzuolako Udalak udazkenean, eta, horretarako, galdetegi bat zabaldu du herritarren artean, euren komunikazio ohiturak ezagutzeko eta Udalaren komunikazioa nola hautematen duten jakiteko.

Ekainaren 30era arte, domeka, izango dute herritarrek galde-

tegia betetzeko aukera, liburutegian inprimakia eskatuta edo online: [labur.eus/AntzuolaKomunikazioGaldetegia](http://labur.eus/AntzuolaKomunikazioGaldetegia). 12 urtetik gorakoek dute parte hartzeko aukera, eta guztiz anonimoa dela jakinarazi du Olatz Lezetak, Antzuolako alkateak. Hala, herritarrei parte hartzeko dei egin die, "jakitun" direlako Udalaren aldetik ez dutela "komunikazio bateratu eta sistematikorik" jasotzen eta hori aldatzeko komunikazio estrategia garatu beharrean daudela.

## Eskularen erakusketa izango da ikusgai Olaranen asteburuan

Eskularen ikastaroa izan da ikasturtean zehar Antzuolan, eta haurrek zein helduek eginko lanak ikusgai izango dira bihar eta etzi Olarango erakusketa aretoan; 18:30etik 20:30era artean egongo da zabalik aretoa. Hala ere, oraingoan huts eginez gero, datorren astean ere izango da horretarako aukera, ekainaren 29an eta 30ean.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# Jaietarako, autodefentsa feminista tailerra

Zapatu goizean hiru orduko saioa egingo dute, Sortzen taldeko Sheila Melcon Lopez gizarte-hezitzaileak gidatuta. Amantalak talde feministak Udalarekin elkarlanean plazan ipinitako informazio txoko berria ere martxan da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Eguenean hasiko dira jaiak eta Amantalak talde feministako kideek aproposa ikusi dute aurreko aste bukaeran autodefentsa feminista tailerra egitea. Kiroldegiko gimnasioan izango da, 10:30etik 13:30era, eta Sheila Melcon Lopezek gidatuko du. Emakumeentzako tailerra izango da, ez dago adin mugarik eta ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.

Bideberri Mankomunitatetik bideratua, autodefentsa estrategia feministak eraikitze saioa izango da. "Egunerokotasunean jasaten ditugun eraso matxistak identifikatzen ikasteko eta horiei indibidualki zein kolektiboki nola aurre egin lantzeko garrantzitsua da", azaldu du Amantalak talde feministako Jone Arbuluk. Parte hartzaileei gomendatu diete arropa eroso, estera eta ura eramateko.

**Gune morea jaietan**

Jaiei begira, talde feministak eta Gazte Asanbladak eraso matxisten aurkako protokoloa prestatu dute. "Gune seguruak sortzeko beharrezkoa da denon parte hartzea, eta, horregatik, gaur emango dugu protokoloaren berri, 19:00etan, gaztetxe parean". Jaietan protokoloarekin laguntzeko zapi morea eramango duten pertsonen bila dabilzala ere esan dute.

**Informazio txoko feminista**

Aurrerantzean, informazio txoko feministan izango dute lekua antzerako abisuek. Kultura etxeko ate ondoan kokatua, informazio eguneratua ipiniko dute bertan. Indarkeria matxistak eragiten dituen ondorio larriak salatze Euskal Herriko erailketa kopuruaren berri ere jasoko dute. "Informazioa eguneratzen joango gara, indarkeria matxistak oraindik hiltzen duela gogorarazteko".



Amantalak taldeko lau kide, informazio txoko feminista berriaren ondoan. UDALA

## "Aspektu psikologikoetan eta fisikoetan zentratuko gara"

**SHEILA MELCON LOPEZ** PSIKOLOGOA ETA GIZARTE-HEZITZAILEA

Sortzen Taldean adituak dira indarkeria matxistaren aurkako analisis, arreta-protokoloak eta prestakuntza-prozesuak egiten eta emakumeen ahalduzko prozesuak gidatzen. Berdintasunarekin eta indarkeria matxistarekin lotutako tailerren hezitzailea da Sheila Melcon. Hark gidatuko du zapatu goizean kiroldegian egiteko den autodefentsa feminista tailerra.

**Nolakoa izango da saioa?**

Defentsa pertsonalerako saioa baino gehiago, autodefentsa feministarako estrategiak elkarrekin lantzeko izango da. Saiatuko gara beldurraren eraikuntza desmuntatzen, indarkeria sexuala zer den aztertzen, ikara sexuala eragiten duten faktoreak zeintzuk diren eta nola eragiten diguten ulertzen, emakumeok sentitzen dugun



SORTZEN TALDEA

beldurra zergatik sentitzen dugun hausnartzen... Eta, horren aurrean, autodefentsarako estrategiak pentsatzen. **Elkartrukerako espazio bat izango da, beraz.** Aspektu psikologikoetan eta fisikoetan zentratuko gara. Gu defendatzeko agenteak baino gehiago, espazio seguruak behar ditugu, eta horiek lortzeko ibilbidean ahalduzko behar dugu. Elkarrekin egin beharreko bidea da.

## Pettiren kontzertua izango da gaur Ozkarbi elkartean

Goibekok antolatuta, 20:00etan hasiko da eta sarrera 6 euro izango da; bazkideendako, 3 euro

**L.Z.L.** ELGETA

Lanpetuta dabil Petti. Zapatuan Bilboko BBK Music Legends jaialdian jo zuen eta Balerdi Balerdi taldearekin ere badihardu. 25 urte pasa dira lehen diskoa *-Amets bat-* plazaratu zuenetik, eta dozena bat etorri dira gero. Aurrera begiratzea gustatzen zaio Pettiri, ez hainbeste atzera, baina halako urtemuga borobilek ia nahitaez eragiten dute ariketa hori: "Atzera begiratzen dudanean ikusten dut gehienbat zahartzen ari naizela; kar-kar. Ez, serio jarrita, ikusten dut nondik narroren, eta egindako ibilbidean hartutako esperientzia eta egindako lagunak. Batez ere, horrekin gelditzen naiz".

**Lagun handiak Elgetan**

Bakarka arituko da gaur Ozkarbin. "Lagun handiak ditut Elge-



Petti. PETTI

tan eta urte asko dira joaten ez naizela. Gogotsu nago", azaldu du. Ez du joko duen erreperitorioa erabaki: "Bakarrik jotzen dudanean ez dut prestatzen. Gustatzen zait libre joatea, eta jendeak, uneak edo giroak eskatzen dutena ematea".

## Gazan bizi duten "izugarrikeria", irudi digitaletan jasota

Mertxe Amondarain tolosarraren ilustrazioak ikusgai daude buztin gelan. "Egoera gordinak dira, baina ezin dugu beste alde batera begiratu", dio. Erakusketa eguaztenera arte egongo da zabalik. Jaiegunean 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta aste barruan 18:00etatik 20:30era. Azoka egunean ere zabalik izango da.



Amondarain Elgetan. L.Z.L.

## OHARRAK

### Udako solstizioa domekan

Udalak eta guraso elkarteak antolatuta, 18:30ean mugi-boogie saioa izango da plazan; eta ogitarteko banaketa, 20:30ean, bolatokian. Iluntzean, dantzak eta konjurua egingo dituzte umeek San Juan piloaren inguruan, eta sua piztuko dute.

### Astlehenean hasiko dira udalekuak

Uztailaren 24ra arte iraungo dute eta 97 umek eman dute izena. Hezitzaileak zazpi izango dira.

### Ferixa Nagusikoak

Astebete eskas falta da jaietarako. Ikus jaietako gehigarri berezia 31. orrian.

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUENA 27

### MOZORRO EGUNA

**12:00** Buruhandiei ongiatorria. Udalekuak.

**19:30** Mozorro jaitsiera Elgetako trikitilariekin, alkate txikiak bidea zabalduz.

**20:00** Mausitxa Txaranga.

**20:00** Txosnen irekiera.

**23:00** Erromeria Mugi panderoa taldearekin.

**00:00** Larrain dantza. Ondoren, erromeriak jarraituko du 01:00ak arte.

**01:00** Kontzertua txosnagunean: Babesgabe.

**14:00** Umeentzako bazkaria plazan.

**15:30** Puzgarri eta jolasak umeentzako.

**18:00** Talde jolas parte-hartzaileak kuadrillendako plazan.

**18:00** Txosna irekiera.

**19:30** Buruhandiak.

**20:00** Kontzertua txosnagunean: Ai Ama.

**22:00** Dantza bertikala Geurera taldearen eskutik.

**23:00** Zezensuzkoa.

**23:15** Kontzertua plazan: Xiberoots.

**00:30** Galtzontzillo eta kulero karrera.

**01:00** Kontzertua txosnagunean: Estaka eta Etxeko DJak.

## ZAPATUA 29

### HERRI EGUNA

**07:00** Gaupasero argazkia Gazte Asanbladaren eskutik.

**11:00** Esna deia.

**11:30** Txosna irekiera.

**11:30** Kuadrillen hamaiketakoa Intxorta Elkartearen.



Kuadrilla bat iazko Mozorro Egunean. GOIENA

**12:00** Jaioberriei harrera udaletxean.

**12:30** Bergarako erraldoiak.

**12:30** Saski erotikoaren zozketa (Amantalak).

**13:00** Euskal dantzak Elgetako haurren eskutik. Ondoren, soka dantza.

**14:30** Herri bazkaria plazan: paella erraldoia eta saiheski errea.

**16:30** Bingoa plazan, Gazte Asanbladaren eskutik.

**17:00** Erromeria JAINAGA ETA NARBAIZAekin.

**18:00** Buruhandiak.

**19:30** Txitxi-burruntziak Intxortako Lehoiak peñaren eskutik.

**19:30** Falcons de Villafrança *casteller*-ak kantxan.

**20:30** DJ TRACK ibiltaria.

**22:15** Kalejira plazan: Mexiko Lindo Si Señor.

**23:00** Zezensuzkoa.

**23:15** Kontzertua plazan: Mexiko Lindo Si Señor.

**01:00** Zumba saioa txosnagunean.

**02:00** Etxeko DJak.

## DOMEKA 30

### FERIXA EGUNA

**10:00** Herriko eta Debagoieneko baserritar eta artisau azoka, ganadu azoka.

**11:30** Athletic-Reala partidu herrikoiak, Intxortako Lehoiak lagunarteak antolatuta.

**17:00** Haur eta gaztetxoentzako *Oh Pera* ikuskizuna, Zirko Txoskoren eskutik.

**17:00** Pilota partidua. Sanferminetako torneoko Baikokoen finala; eta, norgehiagoka horrekin batera, binakakoak.

**18:30** Buruhandiak.

**20:00** Parrillada plazan.



Bi ume iazko jolas parkeko puzgarrietako batean. GOIENA

## EGUBAKOITZA 28

### UME ETA ERRETIRATUEN EGUNA

**11:00** Umeentzako puzgarri eta jolasak.

**11:15** Kuadrillen hamaiketakoa Ozkarbi elkartearen.

**12:00** Herri kirolak plaza barrenean. Ioritz Gisasola, Irati Astondoa eta Urdax Magunazelaia.

**13:00** Meza, iazko jaietatik hil diren jubilatuen alde.

Xalbadorpek antolatuta.

**13:40** Erretiratuen argazkia.

**14:00** Jubilatuen bazkaria kiroldegian. Ondoren, trikitia.



# Disfrutatatu Elgetako jaietan!

MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta

# Hainbat ekintza egongo dira umeei bideratuta

Umeen eta Erretiratuen Eguna ekainaren 28an izango da aurten, eta haurrek hainbat ekintza izango dituzte egunean zehar. Jolasean ibiltzeko puzgarriak eta bazkaria izango dira egitarauan nagusi. Helduagoentzat ere izango dira jokoak

## Gontzal Belategi Zubia ELGETA

Umeen eta Erretiratuen Eguna hilaren 28an izango da aurtengo Ferixa Nagusian. Haurrek jolasean ibiltzeko eta ondo pasatzeko aukera izango dute egunean zehar, hainbat ekintzaren bidez.

## Puzgarriak

Umeen gozamenerako, puzgarriak eta jolasek jarriko diote abiapuntua egunari. 11:00etatik aurrera egongo dira erabilgarri puzgarriak: eguraldiaren arabera, plaza ondoan edo frontoian. Atracciones Sanz enpresak jarriko ditu puzgarriak. "Elgetara sei puzgarri eramango ditugu: hiru haur txikiendako izango

dira eta beste hirurak heldu-txoagoentzat", adierazi du Juan Pablo Sanzek.

## Umeen bazkaria

Puzgarrietan ibili ostean, bazkaltzeko aukera izango dute gatzetxoek. 14:00etan hasiko da bazkaria, plazan. "Makarroiak tomatearekin, haragi-bolak patatekin eta izozkia izango dira menuan", adierazi du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

Bazkariko txartelak Bolatoki tabernan eskuratu daitezke, sei euroren truke. Erosteke azken eguna ekainaren 26a izango da, eguaztena. Momentuz, hogeitau me apuntatu dira.

## Guztientzako jokoak daude

16 urtetik gorakoendako ere talde jolasak izango dira, 18:00etan, plazan. Bost pertsonako talde mistoak egin beharko dira, eta izena eman Haizea edo Lola tabernetan edo [danonartian@elgeta.eus](mailto:danonartian@elgeta.eus) helbidean. Herri kiroletan oinarritutako probak izango dira: sokatira, txingak, katuska jaurtiketa eta abar.

## Erretiratuek ere protagonismoa izango dute Ferixa Nagusian

Erretiratuek zentraltasuna hartuko dute 28an; egitarau polita izango dute: meza, argazkia eta bazkaria

## G.B.Z. ELGETA

Erretiratuen Eguna ere bada 28a, eta protagonismoa izango dute egunean zehar. Askotariko ekintzak antolatu ohi dituzte haiei bideratuta, eta aurten ere hala izango da.

## Herri kirolak

Hirugarren urtez jarraian herri kirolak izango dira Ferixa Nagusian, 12:00etan, plaza bazterrean. Erretiratuen mugak gainditzen ditu ekimen horrek. Aurten puntako hiru kirolari ikusteko aukera izango da: Ioritz Gisasola *Zelai IV.a*, Irati Astondoa, Imanol Albizu *Goi-koetxe* eta Urdax Magunazelaia.

## Meza

Meza egingo dute erretiratuek, 13:00etan, elizan. Joan den urteko jaietatik hona hil diren erretiratuen aldekoa izango da.

## Argazkia

Mezaren ostean, 13:40 aldera, erretiratuek argazkia aterako dute, guztiek elkarrekin. "Orain arte, 80-90 pertsona bitarte elkartu izan gara argazkian; beste horrenbeste elkartzen baldin bagara, zenbaki polita izango da" adierazi du Jose Antonio Ojangurennek, Xalbadorpe erretiratuen elkarteko presidentek.

## Bazkaria

14:00etan, erretiratuek bazkaria egingo dute. Aurten, antzokian beharrean, kiroldegian egingo dute. "Urdaiazpikoa, esparragoak, bakailao-entsalada, okela hornigaiekin eta tarta izango dituzte, eta ardoa eta kafea ere barne daude", azaldu du Ojangurennek. Txartelak eskuratzeko aukera bihar eta etzi izango da, Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 13:00ak arte, 14 euro ordainduta.



Ferixa Nagusiko Jaixak  
primeran pasatzea espero dugu!

Pagatza Parke Industrialia 5, Salla E · Elgeta, Gipuzkoa  
[www.elcoro.com](http://www.elcoro.com)

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dikizue  
elgetar guztioi eta bertaratzen zareten guztioi!*





Elgetar gazteak euskal dantzak egiten joan den urteko herri egunean. GOIENA

# Ohiturei eusteko asmoz dator aurten Herri Eguna

Ohitura bilakatu dira Herri Eguneko hainbat ekintza, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Batzuek aurreko eguneko festa amaitu bitarte, elgetar jaioberriek harrera jasoko dute udaletxean. Dantzek, paellak eta saiheskiek ere ez dute hutsik egingo

**Gontzal Belategi Zubia** ELGETA  
Ekainaren 29an izango da Herri Eguna, eta ohiko elementuekin dator. Aurreko eguneko festa argazki bidez amaituko dute, 07:00etan, eta 11:00etan ekingo diote, esna deiarekin batera.

**Harrera jaioberriek**  
Ohitura da urte batetik bestera jaio diren elgetarrei harrera egitea udaletxean, eta aurten ere hala izango da. 12:00etan elkartuko dira udaletxean, eta, guztira, hamabi haur izango dira. "Kopuru handia da eta horrek poztu egiten gaitu", adierazi du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. Guztiek jasoko dute dagokien zapia, eta "baditugu opariak prest jaioberrientzat", nabarmendu du Unzetabarrenetxeak.

**Euskal dantzak eta soka dantza**  
Elgetako gazteek euskal dantzak egingo dituzte herriko plazan, 13:00etan hasita. 30 haur inguru izan dira dantzak entseatzeko, eta hainbat dantza egingo dituzte; besteak beste, erromeriako dantzak, Bizkaiko dantzak eta propio sortutako dantza sinpleagoak.

Ostean, zinegotzien soka dantza hasiko da. Hil hasieran hasi zituzten entseguak. "Aurreko urtean ikasitakoa nabaritzen da, baina praktikatuko beharra dugu", dio alkateak. Erroldatu berriak ere izango dira: "Batzuek esan digute dantza egiteko prest daudela; beste batzuei lotsa ematen die. Normala da, baina gomendatzen dugu dantza egitea, momentu berezia da".

**Paella eta saiheskia**  
14:30ean izango da bazkaria. Urteroko menua izango da: paella erraldoia eta saiheski erreka. 600 errazio paella misto egiteko asmoa duela adierazi du Vicente Quintana paellariak, eta 40 begetarianoak. Saiheskiak, berriz, 100 kilo izango direla esan du Peio Bilbao elgetarrak. Txartelak Lolan, Maialden eta Haizean eskuratu daitezke, paella 6 eurotan eta saiheskia 4tan.

**Buruhandiak eta erraldoiak**  
Bergarako Erraldoi Taldearen eskutik buruhandiak izango dira, 18:00etan. Jaietan ohiko bilakatzen ari dira haiek ere.

Ondo ibili jaietan!

ELGETAKO UDALA

**FERIXA NAGUSIKO JAIXAK**  
2024 ELGETA **EKAINAREN 27TIK 30ERA**

# 40 idi pare eta 45 artisau eta baserritar postu

Domekako azokak ematen die izena Elgetako jai nagusiei, eta aurten ere bertako eta inguruko ekoizle askoren topalekua izango da Ferixa Nagusia; izan ere, askotariko produktuak izango dira salgai goizean goizetik

## Larraitz Zeberio Lekkuona ELGETA

Bi gune nagusi izango ditu Elgetako Ferixa Nagusiak: artisauen eta baserritarren azoka plaza inguruan eta ganadu azoka Berraondokoan. Sebas Arantzabalek aurreikusten du 45 bat postu elkartuko direla artisauen eta baserritarren azokan: "Azken baieztapenen faltan, esan daiteke urteroko ekoizleek hartuko dutela parte azokan. Ez da herriko baserritarrik izango; bai, ordea, artisauak eta bestelako jakiak aurkeztuko dituztenak". Sonia Miranda, Pili Arin, eta Maite Barrainkua artisauen azokan izango dira. Jon Aranzetak Larrabiltxoko ezti eskai-



Ganadu azoka, iaz. AITOR AGIRIANO

niko du eta Hasna Bohouchek, Mohamed Elhoumanik eta Omar Bittik, Marokoko gozoak. Beste hainbat ekoizlerekin osatuko da azoka. Gazta, ogia, gozoak, barazkiak, frutak, etxetresnak... Segurako talogileek eta Elgoibako Lizasagar sagardotegiak ere postu bana izango dute.

## 40 bat idi pare

Ganadu azokari dagokionez, idiak izan dira beti Elgetako ferixako bereizgarri nagusia eta 80 bat espero ditu Agustin Beretxinagak aurtengorako. Hau da, 40 bat idi pare. Aurten ere berak dihardu ganadu ferriaren antolaketan laguntzen, eta, azaldu du hamasei pare izango direla bizkaitarrak eta 28 bat pare gipuzkoarrak.

Herriko ganaduzaleek ere izango dute lekua azokan; besteak beste, Arantzeta baserriko Pello Bilbaok ardiak eta ahuntzak eramango ditu, Lapurdiko Roberto Basaurik behorrak eta astoak, Larrabilgo Ormaetxeatarrek ardiak eta Barrenenguko Beretxinagatarrek idiak, behiak eta txahalak. Azoka goiz osoan zehar izango da ikusgai.

## Pilota eta futbol norgehiagokak domekan

Domekan pilotari profesionalen partidua izango da frontoian. Lau eta erdiko San Fermin torneoko finalurrekoa jokatu dute Baikoko pilotariek. Aurrez aurre izango diren bikoteak dira: alde batetik, Lizeaga Laso edo Jakarekin; eta, bestetik, Ugartemendia Artola edo Peña II. arekin. Irabazleek Iruñeko Labriten jokatzekoa den finalerako txartela eskuratuko dute. Sarrerak salgai daude Bolatoki tabernan 20 eurotan eta Baikoren webgunean 25 eurotan. Egunean bertan ere izango dira leihatilan. Jaialdia 17:00etan hasiko da.

## Futbol partiduak

Intxortako Lehoiak lagunartek antolatuta, berriz, domeka goizean zale zuri-gorrien eta txuri-urdinen arteko partiduak jokatu dira kantxan. Umeen partidua 10:30ean izango da, gizonezkoena 11:30ean eta emakumezkoena 12:30ean. Izen-emate orriak Bolatoki eta Haizea tabernetan daude.



**MEK Lema**  
Doitasunezko torneaketa  
*Gora Elgetako jaiak!*

Pagatza industrialdea 7B • Elgeta • 943 78 80 23 • [www.mekgroup.eu](http://www.mekgroup.eu)



**MOZORRO JAITSIERA ELGETATIK**

EKAINAREN 27AN, EGUENA, 19:30EAN

**ZUZENEKOA GOIENA TELEBISTA**

**ZUZENEKOA GOIENA.EUS**



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**

Zu hemen zaude.



# Reggae doinuetatik mariatxietara jaietan

Askotariko estiloetako zazpi musika talde eta hiru kale-ikuskizun izango dira Ferixa Nagusiko jaietan. Plaza eta txosnagunea izango dira eszena nagusiak, baina kalez kale ere izango dute zer gozatu herritarrek zein bisitariek



Xiberoots taldearen kontzertua. XIBEROOTS

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA  
Dantza bertikala egingo dute Geurera taldeko kideek barikuan-22:00etan. Zapatuan, berriz, Els Falcons de Vilafranca elkarreko *casteller*-ak helduko dira Elgetara eta kantxan egingo dute erakustaldia, 19:30ean. Domekan, aldiz, ume eta gazteendako *Oh Pera* zirku ikuskizuna izango da plazan, 17:00etan.

Musikari dagokionez, Mautxar txarangak girotuko du moztorro jaitsiera, eta jaiak hasi orduko musika izango dute lagun festek. Zapatuko DJ Track izango da bigarren proposamen ibiltaria. Plazako kontzertu nagusiak lau izango dira:

**EKAINAK 27 / 23:00**  
MENDIZALEEN PLAZAN

## Mugi panderoa

Erromeria taldea Ferixa Nagusiko jaietan izango da aurten ere. Betiko pieza dantzagarri eta euskaldunekin etorriko dira.

**EKAINAK 28 / 23:10**  
MENDIZALEEN PLAZAN

## Xiberoots

Zuberoako reggae taldeak Euskal Herria eta euskara ditu xede. Eszenan sentitzen duten punk energia nabarmentzen dute.

**EKAINAK 29 / 17:00**  
MENDIZALEEN PLAZAN

## Jainaga eta Narbaiza

Urteroko erromeria da eta elgetarren gustuak ondo ezagutzen dituzte Eibarko bi trikitilariak.

**EKAINAK 29 / 22:15**  
MENDIZALEEN PLAZAN

## Mexiko Lindo Si Señor

Dozena bat lagunek osatzen dute taldea eta betiko mariatxi doinuak ekarriko dituzte.

## Txosnagunean ere ekintza sorta

Bigarren urtez Gazte Asanbladak kudeatutako txosnagunea izango da jaietan. Eguenean zabalduko dute, 20:00etan, eta moztorro onenaren sari banaketa eta Elgetako Babesgabe taldearen kontzertua (01:00) izango dira bertan. Barikuan, berriz, Ai Ama (20:00) eta Estaka (01:00) taldeek joko dute. Etxeko DJak ere arituko dira txosnagunean bai barikuan bai zapatuan.

Gainerakoan, nabarmentzekoak dira gaupasero argazkia –zapatuan, 07:00etan–, bingo jokoa –zapatuan bazkalostean– eta zumba saioa –domekan, 01:00etan–.

Horrekin lotuta, jendea behar da txosnaguneko txandak osatzeko.

# Janela

Mariak jai zoriontsuak  
opa dizkizue elgetar guztioi!



Salbador kalea ELGETA



[www.cieautomotive.com](http://www.cieautomotive.com)



**CIE Recycle**

**JAI ZORIONTSUAK  
ELGETAR GUZTIOI!**

Pagatza Industrialdea 3B  
ELGETA

Tel.: 943 78 80 00

# Indarrak batuta landu gura du energia Udalak

Energia komunitateak sortzen bidelagun izan eta laguntzeaz harago, beste proiektu batzuk ere landu gura ditu Udalak herritarrekin batera, bien arteko elkarlanarekin energiaren gaian aurrerapausoak eman ditzaketela sinistuta

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Energiaren gaiak garrantzia du herritarren zein Udalaren egunerokotasunean, eta, hori horrela dela ikusita, alde bien elkarlanarekin aurrerapausoak eman daitezkeela uste du Udalak. Horixe proposatu du, hain zuzen ere, Energiaren Zikloa Aktibatu ekimenaren barruan egindako azken hitzaldian, "erantzun kolektiboak" ematearen alde.

**Udazkenetik aurrera**

Energia kontsumoa murriztea eta energia efizientziaren alde egitea dira helburuak, eta herritarrek zein Udalak eman dituzte pausoak bide horretan. Baina elkarri lagundu diezaioketela ikusi du Udalak azterketa bat eginez, eta planteamendu hori nola gauzatu lantzen hasiko dira.

Esaterako, energia komunitateak sortzeko Udala bidelagun izatea izan zen azken Partaide-tzako Aurrekontuetan herrita-

ren boto gehien lortu zituen asmoetako bat. "Horretarako prestutasuna badago. Herritarrek eskatu dute eta komunitateak berak egin behar du hori, baina Udala prest dago laguntzeko. Asmoa da irailetik aurrera dinamizazio lanak egitea horrek forma hartzen laguntzeko", dio Xabier Igartua udal ordezkariak. "Energia komunitatez harago, baina, badaude landu daitezkeen beste puntu batzuk ere. Energia bulegoa, esaterako, laguntzeko dago. Atari batean egon daiteke teilatuan eguzki plakak jartzeko edo ez jartzeko eztabaida. Hor, adibidez, lagundu dezake Udalak, sortuko den energia herrira badator gero. Eraikinak birgai-

**ENERGIA KOMUNITATEA SORTZEKO DINAMIKAK HASIKO DITUZTE IRAILEAN**

tzean ere begiratu daitezke, adibidez, energiari lotutako instalazioak eta aztertu euren eragina edo etekina epe batean. Berdin ibilgailu elektrikoaren aurrean egin daitezkeenari buruz ere; landu egin beharko da hori".

**Diagnosia lehenengo**

Ehun ekonomikoa, Udala eta herritarrek batu eta energiaren gaiari erantzun kolektiboak ematea da Udalak gurako lukeena, eta hori gauzatzeko pausoak ematen jarraituko dutela aurreratu du Igartuak.

Energiaren merkatuaren araudia, funtzionamendua, izan da Energia Aktibatze Zikloa ekimeneko beste gaitako bat; baita herriko energia testuinguruaren diagnosia ere. Lehen hitzaldian izan zuten hori berbagai. Igartuak emandako datuen arabera, Oñatiko urteko argindar kontsumoa 168 GWh bueltan dago. "Ideia bat izateko, Oñatiko Ur Jauzietatik sortzen dena-



Eguzki plakak kiroldegiko teilatuan. GOIENA

ren baino hamahiru aldiz gehiago da hori. Baina energia ez da soilik argindarra. Herrian kontsumitzen den gas natural kontsumoak 300 GWh gaintzen du urtero. Bestalde, garraioan dugun gastu energetikoaren batez bestekoa energia behar guztien herena izan daiteke. Oñatin industriak pisu handia duenez -%60-65 inguru-, garraioarena portzentajea jaitsi egiten da, baina, guztira, 620 GWh-ko energia kontsumoa izan dezakegu". Herrian sortzen den energia berriztagarriari buruz, berriz, urteko 80 GWh ingurukoa izango dela dio Igartuak: "Baina, hala ere, herriko kontsumo osoaren %13. Herriko argindar kontsumoaren %45 inguru".

**Erakusketa astelehena ezker**

Bailara mailan, Debagoieneko diagnostiko energetikoa eta bere inpaktu ezagutarazteko eta hausnarketak partekatze asmoz, D2030 ekimenak *Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak* erakusketa ibiltaria prestatu du, eta 24an Oñatin izango da. Aritz Ameztegi D2030eko energia eremuko arduradunaren hitzetan: "Asmoa da herritarrengana sortzen eta lantzen ari garen informazioa eta eza-gutza helaraztea, herritarra ahalduntzea eta egoeraz kontziente izatea, iruditzen baitzaigu nahi genukeena baino gutxiago garelako bizi dugun egoeraz". 28ra arte egongo da, kultura etxean.



OIHANA ELORTZA

## Bailara elkartearekin akordioa

Azken osoko bilkuran aho batez onartu zen Udalaren eta Bailara elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena egitea, eta eguaztenean gauzatu zuten alde biek akordioa. Debagoieneko garapen sozioekonomikoari lagundu eta elkarteko enpresen irudia eta lehiakortasuna sustatzea du helburu Bailarak, eta herriko enpresak ere batzera animatu zituen alkateak.

## Aldakiño itxiko dute astelehen eguerdian, lanak egiteko

Olakua eta San Martin auzoak lotzen dituen Aldakiño bidea itxita egongo da egun batez datorren astean, lan batzuk egin behar dituztelako han. Bideko zorua labainkorra ez izateko lanak egin behar dituzte, zehazki, eta helburu hori beteko duen tratamendu berezi bat eman lurrari. Lan horiek egin bitartean ezingo da inor pasatu handik, eta, beraz, itxi egingo dute.

Datorren astelehenean, hilak 24, hasiko dira lan horiek egiten, eguerdian, 12:00etan. Egun oso bat, 24 ordu iraungo dute egin beharreko lanek, eta, horrela, martitzen eguerdira arte, ekainaren 25a, ezingo da bide hura erabili 12:00ak arte.

## Kudeatzaile berria behar dute Pake Lekuko tabernan

Pake Leku erretiratuen elkarteak tabernaz arduratuko den pertsona berri baten beharra dauka, eta inork interesa edukiz gero bertara joan eta zuzendaritzako kideren batekin harremanetan jartzeko mezua zabaldu gura dute herritarren artean.

Yula Krekoten da tabernako arduraduna 2022ko maiatza ezker, baina utzi egingo du uda ondoren, eta haren ordezko bila dabil orain Pake Leku elkarte. Lanaren eta kontratuaren gaineko xehetasunak interesatuekin partekatuko dituztela aurreratu dute zuzendaritzako kideek. Adierazi dute, baina, izena emateko epea ekainaren 25era arte izango dela.

## OHARRAK

### Gomiztegi ikusgai

Gomiztegi baserriaren egunerokoa ikusgai egongo da *Ongi etorri baserrira* ekimenaren baitan. Uztailaren 5ean eta 6an izango dira bisitak.

### Irailera arte

Pentsiodunek astelehenetan egiten dituzten elkarretaratzeak eten egin dituzte irailera arte. Aste honetakoa izan da azkena.

### Txondorra, azkenetan

Azken egosketa bakarrik falta zaio txondorrari. Laster hasiko dira barruko egurrarekin egindako ikatza ateratzen. Bitartean, zaintzak egin daitezke edo bisitan joan.

# Betiko mezua dakar Fan Hemendik Egunak

Poteo musikatua eta bazkaria egingo dituzte eguerdian eta plazan hasi eta plazan bukatuko den manifestazioa 18:00etan, Oñati uzteko esateko Guardia Zibilari. Aurrekoak bezala, manifestazio animatua izango da, erraldoekin eta txarangarekin

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

"Ez ditugu herrian nahi, kuartelik gabeko herria izan nahi dugu, eta, hori ahaztu ez dezaten, aldarrikapenak kalera aterako ditugu". Helburu horrekin egingo da, beste behin, Fan Hemendik Eguna Oñatin, bihar, zapatua.

## Helburu berekin

Bederatzigarrena izango da aurten. 2018an egin zen azkena, 2019an Jare Kuartela Eguna ospatu zen, eta, pandemia osteko geldialdiaren ostean, berriz bete gura dituzte kaleak, Guardia Zibilari Oñati uzteko esateko: "Ez ditugulako nahi eta ez ditugulako behar". Egungo Fan Hemendik taldea ez da hasierakoa, jende berria dago, baina aldarrikapenak berbera izaten jarraitzen duela adierazi dute: "Fase berri honetan ez du zentzurik Guardia Zibilak hemen egoteak". Gaineratu dute hainbat eragiletako jendeak osatzen duela taldea, eta, aurten atxikimendu kanpainarik ez egin arren, jende askoren babesa izango dutelakoan daude. "Ziklo haren bukaerak, baina, ez du beraien presentzian aldateta nabarmenik ekarri, ez eta joateko intentziorik agertu ere. Zergatik jarraitzen dute, bada, oraindik hemen? Bada-



Fan Hemendik Eguneko manifestazioaren hasiera, 2017an. GOIENA

kite, ondo jakin ere, beraien irteera gatazkaren balizko konponbiderako urrats handia dela", diote euren deialdian.

## Txarangarekin batera

Eguerdian, 12:30ean, poteo musikatua hasiko dute, Antixena gaztetxean, eta bazkaria egingo dute horren ostean. Manifestazioa arratsaldean izango da, 18:00etan, plazatik abiatuta. Handik gora joango da, Bidaurretaraino, eta gero, Euskadi etorbideetik jaitsiko da Kale Zaharrera, eta Lizaur Arkitektoa

kalean barrena plazara iritsiko da. Jarraian egingo duten ibilbidea dela aurreratu dute deitzaileek, ez dutela inon geldialdirik egingo, ezta kuartelaren parean ere. Baina, orain artekoak izan diren moduan, biharko manifestazioa ere animatua izango dela gaineratu dute: herriko erraldoiak aterako dira eta txaranga baten laguntzarekin egingo da. Biharko egunaz gain, beste ekitaldi batzuk ere egin dituzte ekainean zehar –hitzaldiak eta musika, esaterako–, Fan Hemendik Egunaren baitan.

## GORA ETA BEHERA



## Denbora luzez bertan behera utzitako autoak

Elorregitik Oñatira doan bidegorriaren kontra ibilgailu pare bat bertan behera utzita daudela konturatu da irakurle bat, eta kentzeko eskaera egin du: "Bi daude bata bestearen ondoan, eta gero eta zikin gehiago ari da pilotzen barruan. Aspalditik daude hor; kendu egin beharko lituzkete".

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo [688 69 00 07](tel:688690007).



TXANDA

## 200 euroko saria irabazi dute

Udaberriko sariak eman zituen eguazten iluntzean Txanda dendarien elkarteak. 4.200 euro zozkatu ditu, guztira, 200 euroko 21 sari; bakoitzak 50 euroko launa txartel eskuratu ditu Txandako dendetan gastatzeko. Maiatzaren 20tik ekainaren 12ra egindako *Oñatiko erosketa-pasia* kanpainako sarituak dira.



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei  
erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • [onati@gualbiasesores.com](mailto:onati@gualbiasesores.com) • [www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# Bi talde lehiatuko dira biharko desafioan

Harri-jasotzen, ingudea altxatzen, trontzan, txingak eramaten eta aizkoran lehiatuko dira hiruna laguneko bi talde zapatuan, 19:30ean, plazako frontoian. 2018ko giza probetan laguntzaile izan zuten Migel Anjel Ibabe 'Agerre' izango dute gogoan

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

2018an giza proben erakustaldia egin zuen taldeak bazuen asmoa esperientzia errepikatzeke. Ideia hori zutela gaixotu zen orduan laguntzaile izan zuten Migel Anjel Ibabe *Agerre* kirolzalea, eta, haren heriotzaren ostean bada ere, asmoa gauzatu gura dute. Horrela, hura gogoan dutela egingo dute zapatuan herri kirolen desafioa.

**Urdinak eta gorriak**

Bi talde lehiatuko dira elkarren aurka. Urdinean: Enaitz eta Eleder Ibabe eta Xabi Barrena; gorrian: Joakin Egaña, Mikel Olalde eta Gorka Egaña. Harri-jasotzen, txingak eramaten, trontzan, ingudea altxatzen eta aizkoran arituko dira talde biak. "Harria jasotzea izango da egingo dugun lehen proba, eta hor irabazten den bora izango du alde proba horretako onenaren taldeak. Segidan egingo ditugu beste proba guztiak, eta amaieran ikusiko da nor den bukatzen lehena", dio parte hartuko duen Enaitz Ibabek. Plazako frontoian -kiroldegikoan, eguraldia txarra bada- izango da desafioa, eta horren berri ematen dute esatariak ere egongo dira, herri kirolletako probetan egon ohi diren moduan. Aitor Tatiegik eta Urko Arregik egingo dituzte esatari lanak, bertotan. Gainera, txosna txiki bat muntatuko dute; jatekoa eta edatekoa egongo da han. Erakustaldiko gastuak ordaintzeko izango da batuko duten dirua.

**Otsaila ezkerreko entrenatzen**

Otsailean hasi ziren zapatuan egingo duten desafio hori prestatzen. Astean birritan elkartu dira ordutik, eta, horretaz aparte, bakoitzak bere prestaketa fisikoa landu duela ere gaineratu du Ibabek, gimnasioan, bizi-kletan eta korrika, adibidez.

Lezoko talde baten aurka arituz ziren duela bost urteko giza



Lehian arituko diren kirolariak, eguazteneko entrenamenduan. ANDARTO KIROL KLUBA

proban, eta herri bietan egin zituzten desafioak. Zapatukoak orduko hartan du jatorria, baina oraindik ez dakite etorkizunean jarraipenik izango duen edo ez: "Etorri zaigu jendea eurak ere honetan arituko zirela esanez, baina ez dakigu ze

**TXOSNA BAT JARRIKO DUTE ETA BATUTAKO DIRUA IZANGO DA DESAFIOKO GASTUAK ORDAINTEKO**

itxura hartuko duen honek hemendik aurrera. Talde bat egiteko lokala ere beharko genuke, entrenatzeko, materiala bera ere garestia da, gutxieneko jarraikortasun bat bermatu beharko genuke..."

**Eskerrak alde aurretik**

Zapatu iluntzean, 19:30ean, hasiko da erakustaldia. "Xumea" izango dela aurreratu du Ibabek, eta eskerrak eman gura dizkie, aurrez, ikustera joango diren herritar guztiei. Baita euren babesleei ere.

## Koplak, musika eta dantzak domekan suaren bueltan

Olaiturrin egingo dute San Juan bezperako sua, domekan, 22:00etan, eta herritarrak gonbidatu dituzte

**O.E.G. OÑATI**

Astelehena, San Juan eguna, laneguna dela ikusita, joan den urtean baino ordu erdi lehena-goztuko dute sua aurten Olaiturrin: 22:00etan. Musika eskolako ikasleek, Oñatz dantza taldeak eta Txinparta bertso eskolako kideek hartuko dute parte, besteak beste, ekitaldian, joango diren herritar guztiekin batera.

Txalaparta hotsek emango diote hasiera San Juan bezperako festari. Bertso eskolako kideek koplak prestatu dituzte *San Juan, San Juan berde* kantuen doinuarekin, eta hitzak jasotzen dituzten eskuorriak banatuko dituzte joango diren herritarren artean, denek elkarrekin kanta dezaten. Musika eskolakoek lagunduko diete musikarekin. Oñatz dantza taldeko dantzariak, berriz, hiru



Joan den urteko sua. GOIENA

dantza egingo dituzte: San Juan zortzikoa, arin arina eta fandangoa.

Udal brigadako langileek eramango dituzte egurrak eta egingo dute pila, domekan 22:00etan su emateko. Eta ingurua txukundu egingo dute.

## Torrauzoko krosetan parte hartzeko izen ematea haziz doa

Ekainaren 30ean egingo dute aurtengo Torrauzoko krosa, 25.a, eta dagoeneko 150 lagunetik gora daude izena emanda, baita hainbat talde ere. Era berean, asko dira lasterketan sariak eta dirulaguntza emanez parte hartuko duten herriko dendak, ostatuak eta zerbitzuak ere.

Parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Online da izena

emateko bidea, [www.herrickrosa.eus](http://www.herrickrosa.eus) webgunean sartuta. Egunean bertan, goizean bukatuko da horretarako epea, baina prezioa ez da bera: ekainaren 28ko 22:00ak arte, hamar euro dira; eta ekainaren 30ean, 09:00ak arte, hemezortzi euro. Dortsalak Torrauzon jaso beharko dira goizean bertan.

Abixaraneke antolatzen duen zazpigarrena da, aurten kartel eta logo berriekin, "filosofia eta egungo errealitatea hobeto irudikatzeke".

## 'Biblioporrak' gida atera berria etxez etxe banatuko dute

Liburuak, bildumak, CDak eta DVDak gomendatzen dituen *Biblioporrak* gida etxez etxe banatuko dute. Guztira, liburuen 40 titulu gomendatzen dira; ikus-entzunezkoen atalean, berriz, hiru disko eta zazpi film. Arrasateko Helena Azkarragaurizarrek egin du diseinua, eta, ohikoa denez, gomendioek iruzkin bat dute ondoan.

## Basandereak taldeak joko du datorren egunean gaztetxean

Musikarekin lagundutako pin-txo-poteak antolatzen hasi ziren Antixena gaztetxean ekainaren hasieran, eta datorren astean ere jarraipena izango du ekimen horrek. Basandereak taldeak joko du 27an, Lezon sorturiko hirukoteak, gitarra eta kaxak lagunduta kontzertu akustikoak egiten dituen taldeak. Iluntzean izango da, 19:00etan hasita.

"Aupa!

Lortu dot azkenien!

Oin, Debagoienien

nun erosi neike

auto bat?"



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okm Gidaren  
eskaintza osoa.

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Azken hilabetean Ointxe!-tik ahal izan dituzten ate guztiak jo dituzte MUko neskek LF2 kategoriara igo daitezen; alegia, Granadako kantxan lortutako ametsa errealtate bilakatzeko. Hilabete eroa izan da Jose Mari Balzategirendako (Arrasate, 1959) eta zuzendaritzako gainontzeko kideendako, baina lortu dute helburua. Hori bai, garbi utzi dute gutxieneko aurrekontua dutela; babes gehiago lortzeko lanean jarraitu beharra dute.

**Mailaz igotzea erabaki duzue; erabaki erraza izan da?**

Orain esango dizut baietz, erabakia erraza izan dela, baina honaino iristea ez da erraza izan, inolaz ere ez.

**Zelakoa izan da azken hilabetea?**

Batzarrez betetako; ateak jo ditugu han eta hemen. Guztira, esango nuke 40 enpresatara jo dugula babes eske; ate batzuk itxita aurkitu ditugu eta beste batzuetan erantzun positiboa izan dugu. Baina bai, uda partean asmoa dut liburuxka bat idazteko, aitzakien dekalogo moduko bat; denetarik entzun dugu, batzuk oso originalak; kar-kar.

**Hilabete baino ez da igaro MUK Granadan igoera lortu zuenetik...**

Ze pozik itzuli ginen handik, baina baita bertigo handiarekin ere. Bagenekien ze lan geneukan aurretik. Hala ere, hasieratik sentitu genuen babesa, bertako udalen partetik jarrera ona, eta horrek bultzada eman zigun.

**Segituan esan zenuten 130.000 euro inguru beharko zenituztela.**

Esango nuke kopuru horretara iritsi garela, baina hori gutxieneko aurrekontua da. Egia da gutxi gorabeherako aurrekontu bat dela; izan ere, ez dugu jakiterik zenbat diru beharko dugun seguru. Baditugu finakoak izango diren gastu batzuk; alegia, lizentzietan 15.000 euro joango zaizkigula, partiduko epaileen gastuak 500 eurokoak izango direla... Baina ez dakigu, esaterako, bidaietan zenbat diru gastatuko dugun; Tenerifera behin edo hirutan joan beharko dugun, taldea indartzeko zenbat gastatu beharko dugun... Halako gastuen berri oraindik ez dugu, eta garbi dugu babesa bilatzeko ahalegina oraindik ez dugula amaitu; bestelako ekintzak egiten joango gara aurrerago.

**Laguntza publikoa eta pribatua behar izaten dira halakoetan; gaur egun zer da zailagoa lortzen?**

# "Garbi daukagu proiektua bertakoekin egin behar dugula"

**JOSE MARI BALZATEGI** OINTXE! SASKIBALOI KLUBEKO LEHENDAKARIOREA

Mondragon Unibertsitateko neskek LF2 mailan jokatu dute datorren denboraldian; zuzendaritzak lortu du maila horretara igotzeko gutxieneko aurrekontua osatzea



Jose Mari Balzategi, aste barruan. X.U

Esango nuke biak daudela maila berean. Babes publikoaren aldetik, esaterako, Arrasateko eta Aretxabaletako udalen partetik oso jarrera ona ikusi dugu, babestuak sentitu gara, baina kontziente gara udalek euren mugak dituztela. Foru Aldundian, bestetik, hasieratik geneukan garbi Kirolgiren partetik zail izango genuela ezer jasotzea, euren estatutuetan jasota daukatelako babesletzak Gipuzkoako bi talde nagusiendako izango direla, eta gu hirugarrena gara. Saiatu gara Foru Aldundian EH Bildukoekin egoten, EAJkoekin, sozialistekin... ea bestelako laguntzarik jaso genezakeen... Turismo Saisetarik, Berdintasun Saisetarik... baina ez dugu erantzunik jaso. Eta Mankomunitetik, adibidez, ezezkoa jaso dugu. **Garbi zeneukaten mailaz igotzeagatik ez zenutela kluba hipotekatu...**

Oso garbi izan dugu hori, badugu eta horren esperientzia. Duela hamarkada batzuk kluba desagertzeaz egon zen, eta orduan ni nintzen presidente. Urbina-Maltzagako urteez ari naiz berbetan; senior mailako gizonetako or-

**"ORAINDIK EZ DAKIGU ZEHAZKI ZENBAT GASTU IZANGO DITUGUN LF2 KATEGORIAN"**

duko EBAn ibili ziren. Orduan kategorია oso inportantea zen, baina apustu handia egin genuen talde harekin, eta... Ez ditugu akats horiek errepikatuko. Ointxe! zorrik gabeko kluba da, ordainketa guztiak eguneratuta ditu eta horrela jarraitu behar du izaten.

**Gauza bat da arlo ekonomikoa, baina zuzendaritzatik ere ahalegin handia egin beharko duzue, eta, are garrantzitsuagoa dena, jokalarien konpromisoak erabatekoa izan beharko du.**

Oso denboraldi luzea izango da, garbi dugu hori. Hain zuzen, aste barruan egon gara jokalariekin batzartuta, begietara begiratu diogu elkarri eta honako galdera hau egin diogu geure buruari: prest gaude denok konpromisoa hartzeko? Erantzuna baiezkoa izan da. Izan ere, garbi dugu proiektu honek bertakoa izan behar duela, Granadan egon ziren jokalariek osatu behar dutela taldea, eurena delako meritua. Garbi dago saiatu beharko dugula taldea apur bat indartzen, norbait ekartzen, baina bizkarrezurra etxean dugu. Bestalde, Ointxe!-tik garbi dugu kudeaketan ere profesionalizazioz jo behar dugula, eta dagoeneko halaxe dugu kirol zuzendaria, esaterako. Halako klub bat ezin da erretiratu batzuen lan boluntarioarekin kudeatu. Orain, administrazioan eta komunikazioaren arloan ahalegina egin beharko dugu.

**Zein izango da taldearen helburua?** Lehiakorrak izan nahi dugu, garbi dugu hori. Ez du zentzurik gora igotzeak urtebetean behera jaitsiko garela baldin badakigu. Proiektua LF2 kategorian egonkortzea da asmoa, baina ez da erraza jakitea horretarako zer behar dugun, ze maila egongo den kategorian horretan.

**Partiduak Iturripen jokatzeko da asmoa?**

Ikusiko dugu hori. Hasteko, Aretxabaletako Udalarri eskerrak eman nahi dizkiogu, aurten Ibarren jokatzeko aukera eman digulako. Proiektu honek bailarako izan behar du, ez Arrasateko bakarrik. Guk Espainiako Federazioari eskaera egin diogu partiduko Iturripen izan daitezen, baina kategorian honetan egurrezko zorua, lurreko saskiak... eskatzen dituzte eta Iturripen ez dugu halakorik. Urtebeteko salbuespena eskatu dugu, eta astean onartu digute.



# Sustraietara buelta, txapeldun izateko

**ESKALADA** Mikel Linazisoro bergararra eskaladako Espainiako txapeldun izan berri da zailtasunean, eta orain, datozen asteetan jokatu den Munduko Kopa du begiz jota. Aurrez, bloke-eskalada uzteko erabakia hartu zuen, haren sustraietara itzultzeko

**I.B.K. BERGARA**

Eskaladako Espainiako zailtasun modalitateak txapeldun berria du joan den astea ezker, eta debagoiendar batek du garaikur hori lortzearen ohorea. Mikel Linazisoro bergararra izan zen Madrilo Arroyomolinos herrian jokatu zen proban goren eskalaztea lortu zuena, eta ez nolana hiko horma batean. "Bide oso gogorra jarri zuten ekipatzaileek. Oso zaila zen eman beharreko pausoak ikustea, eta erdian, zati batean, hankak solte eta gorpuzarekin buelta batzuk eman behar ziren", adierazi du Linazisorok. Zailtasun horren barruan eskalazteko debagoiendarra izan zen jarraitu beharreko pauso horiek ondoen irakurtzen jakin zuena: "Bidea irakurtzen jakin nuen, eta, erdiko zailtasun hori igarotakoan, horrek eman zidan indarra gorago joateko. Dena dela, erori nintzenez ez nuen askorik ospatu, baina gainontzekoak nola ibili ziren ikus nuenean lan ona egin nuela jakin nuen".

Garaipena eskuratuta pozarren zen Mikel Linazisoro: "Urteko proba garrantzitsuenetakoa izaten da Espainiako txapelketa, eta denboraldiko helburu nagusienetakoa ere bai. Datorrenarako indartsu eta motibazio handiarekin nago".



Mikel Linazisoro, Madrilen jokatu den txapelketan. MIKEL LINAZISORO

## Bi garaipen asteburu berean

Zoriontzekoa eta txapela kentzeko modukoa da Linazisorok Madrilen lortutakoa, baina ez da asteburu hartan lortu zuen sari garrantzitsu bakarra, egun bat lehenago Medikuntza graduatu baitzen bergararra. Hain zuzen, graduazio festaren ostean hartu zuen Madrilerako joateko autobusa, eta aitortu du sekulako "motibazioarekin" iritsi zela txapelketa egunera.

Batzuentzat txapelketa garaiki presio uneak izaten dira; Linazisororentzat, aldiz, ihesbide bat

izaten dira. "Azterketak ditudanean edo ikasi egin behar dudana garaian txapelketak baldin badituzt, maila hobea ematen dut lehiaketetan. Batzuetan, txapelketetan %100 murgilduta zaudenean, presio handiagoa jartzen diozu zeure buruari. Nire kasuan, hiru egun lehenago Madrilen egon izan banintz, askoz presio handiagoarekin iritsiko nintzen lehiaketa egunera. Aurreko egunetan eta orduetan bestelako gauzak egiteak eta burua beste nonbaiten edukitzeak lagundu egiten dit", dio bergararrak.

## Hurrengo txapelketak

Hurrengo erronka potoloa datozen asteetan Innsbrucken (Austria), Chamonixen (Frantzia) eta Briançonan (Frantzia) jokatu den Munduko Kopa izango du. Azken garaipenarekin, sentsazio onekin iritsiko dela aitortu du: "Azken txapelketak irabazteak indarra eta motibazioa ematen dit Munduko Kopan lan ona egiteko". Ez da izango, ordea, aurten izango duen txapelketa bakarra, urriaren 24tik 26ra bitartean Espainiako Kopa jokatu dena eta Kataluniako Vilanova i la Geltru herrian. Gainera, postu ezin hobean iritsiko da, Espainiako txapelketa puntuagarria izan delako kopari begira. Horrez gain, azaroan Mallorcan jokatu den txapelketan izango dela adierazi du bergararrak.

## Sustraietara itzulera

Azken arrakasten arrazoia aurkitzeko, Mikel Linazisororen sustraietara jo behar da, Araozko harrietan soka soinean zuela eskalatzen hasi zeneko garaietara. Izan ere, bergararrak bloke-eskalada alde batera uztea erabaki zuen duela hilabete batzuk, eta txikitatit gustuko duen modalitatean zentratzeko erabakia hartu du. "Iaztik ez nintzen gozatzen ari bloke-eskaladan, txapelketen inertzian sartuta nengoan, baina txapelketak amaitu eta gauza negatibo gehiago ikusten nituen positiboak baino. Horregatik, aurten bloke-eskalada uzteko erabakia hartu dut", dio Linazisorok.

Gozatzen aritu ez den arren, ez da izan erabakia hartzeko arrazoi bakarra: "Eskaladan mundu mailan onenen artean egon nahi baduzu, zerbaitetan jarri behar duzu arreta. Orain,

denbora gehiago izango dut gustatzen zaidan horretan zentratzeko, txapelketa gutxiago izango baitut. Era berean, eskalada-blokean egon diren estilo aldaketak ere ez zaizkit batere gustatu eta horrek ez nau batera motibatzen. Gainera, ez dakit zergatik, baina aurten Espainiako Federazioak ere laguntza gutxiago eman dizkigu txapelketetara bidaiatzeko, eta horrek ere lagundu du erabakia hartzen", aitortu du eskalatzaileak.

## Aurrera begirakoak

Dagoeneko begi-bistan ditu hainbat txapelketa eta erronka bergararrak, eta uda sasoiaren erdian "gutxi" egongo dela adierazi du. Aurrera begira dituen asmoei buruz galdetuta, datozen urteetan eskaladan zentratuko dela dio: "Espainiako hautatzaile Alberto Ginesek Sant Cugat del Vallesen (Katalunia) duten goi-errendimenduko zentrora joateko esan dit, eta, hala, urrian Bartzelonara joango naiz; hila-bete batzuetan han bizi izango naiz. Goi-mailako instalazioak dituzte han, gaur egun geroz eta garrantzitsuagoak dira, gainera, eta buru-belarri entrenatzen ibiliko naiz". Dena dela, nabarmendu du eskaladako lehiaketak utzitakoan ez duela bere burua mundu horretako "entrenatzaile" gisa ikusten; behin eskalada utzitakoan, graduatu berri den eta "gustuko" duen medikuntzaren mundura "itzuliko" dela argi daukela dio.

## INNSBRUCKEN, CHAMONIXEN ETA BRIANÇONEN DITU HURRENGO ERRONKAK LINAZISOROK

# Andoni Gorosabelek 2028ra arte sinatu du Athleticekin

**FUTBOLA** Eskuin hegaleko jokalaria arrasatearra libre iritsi da, Alavesen jarraituko ez zuela baieztatuta

**I.B.K. ARRASATE**

Andoni Gorosabel arrasatearrak Athleticen jokatu du datozen lau denboraldietan, klub zurri-gorriarekin 2028ra arte sinatuta. Eskuin hegaleko atzelariak Alavesen egin du azken urtea, eta,

talde babazorroan jarraituko ez zuela esan ostean, Ernesto Valverden esanetara arituko da aurrerantzean.

Denboraldi bikaina egitetik dator Gorosabel. Alaveseko jokalaria garrantzitsuenetakoa izan

da mailari eusteko helburuan, guztira 37 neurketa jokatu baititu, eta, minutu gehien jokatu dituen taldeko bigarren jokalaria izan da gasteiztarrekin. Alavesen aritu aurretik sei denboraldi egin zituen Realean, eta Lehen Mailan zein Europako txapelketetan esperientzia duen futbolaria da Andoni Gorosabel; izan ere, 183 neurketa jokatu ditu elite mailan. Athleticekin sinatu eta haren lehen hitzetan, Athleticera iristea "erronka handia" dela adierazi du.



Gorosabel, Athleticeko kamisetarekin Lezaman. ATHLETIC CLUB

# "Jarraitzaile aktiboak izan ditut Euskal Herrian"

KIKO VENENO MUSIKARIA

Arrasateko sanjuanak borobiltzeko musikari andaluziarra gonbidatu du Udalak; Herriko Plazan egingo du kontzertua, ekainaren 26an, eguaztena, 20:00etan hasita

## Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

50 urte baino gehiago daroa taularen gainean Kiko Venenok (Figueres, Girona, 1952), eta indarrez jarraitzen du publikoaren aurrean hitz zorrotzak doinu dantzagarriekin kantatzen. **Arrasaten kontzertua egiteko gogotsu zaude?**

Bai, beti gogotsu. Kantatzeko gogo barik ezin da kantatu.

**Hainbat alditan izan zara Euskal Herrian; zelako harrera izan du zure musikak bertan?**

Bueno, ona. Euskal jendarteak musikarekiko jarrera zelan aldatu duen ikusi dut urteetan zehar. Askeago mugitzen dira orain; gehiago parte hartzen dute eta txalo jotzera ere ausartzen dira. Beti sumatu dut nire musikak jarraitzaile oso aktiboak izan dituela Euskal Herrian, eta oso gustuko dut hori.

**Zuzenean edo zeharretik, klase-kontzientzia erakutsi izan duzu beti; traba bat izan da zure ibilbidean, edo, alderantziz, indargunea?**

Beti izan dut kontzientzia politiko hori, demokraziarengatik egotekoa, ahulenen aukeren alde egitekoa. Arrakasta handia izan banu, akaso ezingo niokeen postura horri eutsi, baina nik izan dudana neurritzko arrakastarekin musikan, ez dut arazo hori. Uste

du nire jarraitzaileek uler dezaketela nire ezkerreko politika postura. Baina egia da eskuinekoak diren jarraitzaile asko ere baditudala, besterik barik nire musika eta mezua gustatzen zaiena, eta hori ere ondo dago.

**Aldarrikapenak egiteko tresna egokia da musika?**

Nire kasuan, bai, baina neurriarekin beti. Ogibide honetan hasi nintzenez, pentsatu nuen musika, artea, etapa bat harago zihoala, politika baino etapa bat hobe zela; bizitzaren ulermen osoagoa zen. Eta gero, musikak dakarren fenomeno soziala, garaiko ezaugarriekin doana. 60ko eta 70eko hamarkadetan bakezaleak eta askatzaileak ziren mezuak, ezkerrekoak ez zirenak ere bai. Egun, ifrentzuan gaude; akaso, sistemak uxatu egiten du. Ezkerreko mezuak entretenimendua eta hutsalkeria bakarrik nahi dute. Ulertu behar da komunikabide guztiak eskumaren eskuetan daudela. Informazio guztia eskuindarra da. Aspektu horretan, irteera bako kalezulo batean gaudela.

**50 urte pasa dira Veneno disko argitaratu zenuenetik; zenbat aldatu da musikaren industria?**

Suposatzen dut galdera hau erretorikoki egiten didazula. Uste dut ni baino prestatuago

zaudetela hori erantzuteko eta seguru gaia ikertu duzuela, eta, bestela, egin beharko zenukete.

**Eta denbora tarte horretan, zenbat aldatu da Kiko Veneno?**

Hori ere zuek esan behar duzue, gutxi balio du nik esandakoak. **Esan izan duzu 40 urte bete zintuzenean hasi zirela musikatik bizitzen; zein egoeratan eman ahal izan zenuen pauso hura?**

Santiago Auseroni esker aurkitu nuen industriaren tarte bat. 77an Ricardo Pachoni esker Veneno grabatzeko aukera izan nuen moduan; 92an, urte batzuk lehenagotik, Santiagoren, Ceron-en eta Radio Futuraren laguntza izan nuen, eta euren



Kiko Veneno Arrasaten izango da eguaztenean. AKIMOSKI

bulego osoarena, eta horrek ahalbidetu zidan jauzia ematea. **Zaila da musika dibertitzeko egiteko eta musikatik jateko arteko oreka topatzea?**

Oso zaila. Uste dut zorte handia izan dudala lana aske egiteko, nire publikoa izan eta makurtu behar ez izateko. Eta noski, dudana adinarekin ez dut dagoeneko aldatuko.

**Hiru urte pasatu dira Hambre argitaratu zenuenetik; baduzu musika proiekturik esku artean?**

Bai, noski. Garrantzitsuena orain Ricardo Pachon hori edo Santiago Ceron hori aurkitzea da, zeinek lagunduko didan nire heldutasuneko behin betiko dis-

koa izaten; beteranotasuna esan nahi dut, nire bizitzako funtsezko hirugarren diskoa esan nahi dut. Horretara noa.

**Baduzu euskaraz abesten duen gustuko bakarleri edo talderik?**

Bai, nola ez. Jabier Muguruza-ren goxotasunak maitemindu ninduen; euskaraz kantatzen eta pentsatzen, Ruper Ordorikaren indarra. Ez nuen aukerarik izan Euskal Rock Erradikala gozatzeko, askotariko arrazoiengatik; ez da ez zitzaidala gustatzen, baina ez ninduen momentuak harrapatu. Zea May-sen rocka ere gustuko dut. Eta azkenaldian, Olatz Salvadorren goxotasunarekin gozatu dut.

## Orain dela hamar urte ere Arrasaten

Debagoieneko Mankomunitateak, Sua argitaletxearen eta Ginmusic-en laguntzarekin, 2014eko maiatzaren 30etik ekainaren 1era bitartean egin zuen Mundumira jaialdira gonbidatu zituen Kiko Veneno eta haren banda; izan ere, kontzertu "gogoangarria eta dantzagarria" eman zuten lepo betetako Arrasateko Biteri plazan.



2014ko Mundumira jaialdian Kiko Venenok egin zuen kontzertua. GOIENA

## SAN JUAN GAUA ARRASATETIK

EKAINAREN 23AN, DOMEKA, 22:15EAN

ZUZENEOA GOIENA TELEBISTA

ZUZENEOA GOIENA.EUS



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





Eraso! musika taldeko kideak; eskuinetik bigarrena, Arrasaten bizi den Sertx. ERASO!

# la 30 urteko ibilbidea borobiltzeko, agur-diskoa

Eraso! taldeak 'Azken batean' izeneko diskoa argitaratu zuen maiatzaren 30ean, eta udazkenean abiatuko du Zarauzko laukoteak agur-bira; Arrasaten bizi den Sergio Gonzalez de Txabari 'Sertx'-ekin izan da GOIENA; hasieratik dago taldean

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Nahiz eta eguenero Zarauzko entsegu-lokalean "pozik" elkartzen jarraitzen duten, agur esateko unea iritsi zaio Eraso! laukoteari. "Ez dugu lehen genuen grina hori, eta, pena ere badugun arren, agurtzeko unea iritsi zaitu. Ez genuen atzeko atletik irten nahi, eta agur-bira bat egitea pentsatu genuen, baina bira egiteko agur-disko bat behar genuela konturatu ginen, eta *Azken batean* sortu dugu; has-tapenetan bi maketa argitaratu genituen eta zazpi lan luze ondoren. Bada, honako hau gure hamargarren lana da", azaldu du Sertx-ek Arrasate Irratiko *Zaku bete kontu* saioan.

**Disko kontzeptuala** Iraungitze-data ezarri ondoren taldeko abeslariarentzako ez da samurra izan kanta berriak sortzea. "Kantuak idazteko orduan igarri dut hori, eta, azkenean, disko kontzeptual bat atera zait. Agur-kantuak dira gehienak, gure ibilbidea laburbiltzen dutenak; adibidez, disko zabaltzen duen *Oroitzapenak*. Ibilbidean zehar alboan izan ditugunei eta bidean eza-gutu ditugunei eskerrak emateko gogoz sortutakoak dira". "Pozik" daude emaitzarekin, eta "hunkituta" ere bai, zaleen aldetik jaso dituzten mezuekin. "Ikaragarriak dira mezuak, mal-koekin idatzitakoak horietako

hainbat. Eta eskertu beharrekoa da hori; izan ere, mimo handiz ari gara irailean abiatuko dugun eta 2025eko amaiera bitartean egingo dugun bira prestatzen".

**Bakarkako hirugarren lana** Taldeaz gain, bakarkako proiektua ere badu Sertx-ek; ekainean zen hirugarren bilduma argitaratzeko, baina udazkenerako atzeratu du kaleratzea. "Eraso!-ren agurra eta beste kontu batzuk tarteko ez da posible izan. Grabatuta dago eta apirilaren 19an argitaratu nuen bi-deoklipa, *Bihotza negar* izena duena; datozen asteetan dut beste kantu bat sarean aurkezteko asmoa".

## Udal Biblioteken gomendioak 'Biblioporrak' gida berrian

Gida paper formatuan biblioteketan eskura daiteke, eta udal biblioteken webguneetan dago formatu digitalean

**A. A. J. ARETXABALET** Orain dela 30 urte hasi ziren eskualdeko bibliotekak bi gida argitaratzen: *Neguko gida*; eta *Biblioporrak* izeneko, udan. Argitalpen berrien artean aukeraketa eginda, profil askota-

riko erabiltzaileendako gomendioak eskaintzea da helburua. Aretxabaleko biblioteka arduratu da gidari forma ematen aurten, baina bidelagun izan ditu Antzuolako, Aramaioko, Arrasateko, Bergarako, Esko-

riatzako, Oñatiko eta Legazpiko udal liburutegiak.

**Bi euskarritan** Arrasateko Helena Azkarragariz artistak egindako diseinuarekin sormen-lanen zerrenda aurkeztu dute. Haurrentzako eta gazteentzako eskaintza adin-ka banatuta gomendatu dituzte; eta helduentzako, berriz, hama-sei liburu, hiru disko eta zazpi filma gomendatu dituzte. Bi formatutan dago gida eskuragai: paperean eta digitalean.

## Goienakideen txokoa

### EKAINEKO SARIAK

**Liburu-irakurgailua**  
Kobo Nia e-booka



Parte hartzeko sariaren izena: ebook



### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazten dugun LOTU 75/1000 legezko arazoa, goienakide.dago sare datu pertsonal bakoitzaren funtzioak betetzeko. Irabazten dugun LOTU 75/1000 legezko arazoa, goienakide.dago sare datu pertsonal bakoitzaren funtzioak betetzeko. Irabazten dugun LOTU 75/1000 legezko arazoa, goienakide.dago sare datu pertsonal bakoitzaren funtzioak betetzeko. Irabazten dugun LOTU 75/1000 legezko arazoa, goienakide.dago sare datu pertsonal bakoitzaren funtzioak betetzeko.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: ekainaren 25a

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jotetxea [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUJOTA: 30€  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Esakoriatza.** 4 logelako pisua alokatzen da Eskoriatzako Aranburuzabala kalean. Bista ederrak ditu eta oso egoera onean dago. 618 76 34 40

## 3. LOKALAK

## 301. SALDU

**Oñati.** Estetikako negozioa saltzen dut erretroragatik. Interesa baldin baduzu, deitu mesedez hurrengo telefono zenbakira: 943 78 01 46

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aldizkari banatzailea Oñatin.** Goiinak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldizkariak banatzeko. Autoa beharrezkoa da. Harremanetarako: 943 25 05 05 edo harpidetza@goiena.eus

## 402. ESKAERAK

**Antzuola-Bergara.** 20 urteko neska naiz. Udan umeak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 609 32 73 39

**Arrasate eta Bergara.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Etxetik kanpo bizi izaten lan egiteko prest nago. 641 97 29 77 edo 670 96 68 08

**Arrasate eta Bergara.** Soziosanitario titulua daukat eta, orduka, pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 670 96 68 08 / 641 97 29 77

**Arrasate.** Umeak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke uztailan. Lehen hezkuntza ikasten dagoen neska arrasatearra naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 86 15 00

**Bergara eta Arrasate.** Neska goizetan orduka garbiketa lanak egingo prest. 642 37 01 92

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Erreferentziak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 07 42 98

**Bergara.** Neska euskalduna, gazte eta ardurtsua uztaila eta abuztua bitartean umeak zaintzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 90 09

**Bergara.** Udarako hurren zaintzaile izateko prest. 21 urte dituen neska ardurtsua eta euskalduna. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikaslea eta lan esperientziaduna. Begirale titulua daukat, baita Habeko C1 ziurtagiria ere. Nirekin

harremanetan jartzeko zenbaki honetara deitu edo bidali Whatsapp bat: 688 62 62 76

**Bergaran eta Elgetan.** Neska euskalduna uztailan umeak zainduko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 48 55 64 (June)

**Bergara.** Pertsona nagusiak paseatzera ateratzeko edota garbiketa lanak egingo prest nago. Deitu 642 37 01 92 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo gertu. Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 50 56 62

**Debagoiena.** Emakumezkoa orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biltegietan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 25 01 17

**Debagoiena.** Emakumezkoa orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biltegietan, harrera lanetan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Ikasketak ditut. Deitu 688 76 35 74 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo beste la lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota etxe zein hoteletan garbiketa lanak egingo nituzke. 623 41 18 95

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo beste la lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota etxeetako, hoteletako eta enpresetako garbiketa lanak egingo nituzke. Sukaldea ere arituko nintzateke. Telefonoa: 612 44 06 32

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo beste la lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 632 34 22 25

## ALDIZKARI BANATZAILEA OÑATIN.

Goiinak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldizkariak banatzeko. Autoa beharrezkoa da. Harremanetarako: 943 25 05 05 harpidetza@goiena.eus

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 01 32 58.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zainduko gertu dagoen emakume ardurtsua naiz. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 43 45 84

**Debagoiena.** Gizonezkoa pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo gertu. Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 55 43 86

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. 642 11 57 74

**Debagoiena.** Neska ardurtsua etxean bertan bizi izaten, orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo prest. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. 632 32 70 13

**Debagoiena.** Neska gaztea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo gertu. Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 43 50 58 27

**Debagoiena.** Neska gaztea pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo prest. Astean zehar eta asteburuetan orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke pertsonen zaintzan edota garbiketant. Neska gazte eta atsegina naiz. Interesatuok dei ezazue telefono zenbaki honetara: 631 64 66 36

**Debagoiena.** Orduka pertsona nagusiak zainduko nituzke etxe zein baserrietan. Gidabaimeana eta soziosanitario titulua. Esperientzia handia dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 15 50

**Debagoiena.** Ospitale zein etxeetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Astelehenetik ostiralera gauze eta asteburuetan orduka lan egingo gertu. Soziosanitario ikasketak eta gomendiozko gutuna ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 48 17

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo gertu. 5 urtetako esperientzia eta soziosanitario titulua. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 01 66 16

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo gertu nago. Orduka lan egingo nuke astean zehar zein asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Deitu 644 78 30 45 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Orduka lan egingo prest. Telefonoa: 613 11 92 98

**Debagoiena.** Udan klasiak emango nituzke. DBH 4 mailararteko klaseak emateko gertu dagoen 18 urteko neska naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 74 29 30

**Haurrak zaintzeko prest.** Udarako (uztaila edo/eta

abuztua) ume-zaintzan lan bila nabil. Irakasle ikasketak eta haurrekin urte askotako esperientzia! Deitu eta galdetu lasai! 688 64 06 04

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Txakurkumeak opari.** Txakurkumeak oparitzen dira. Ile motza eta txikiak. Polit-politak. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 53 32 76

## 8. DENETARIK

## 806. GALDU

**Urrezko kataia.** Ostiral arratsaldean, 17:30-19:00 bitartean, Larragoin eta Garagartza arteko bidean 24-4-1960 data daukan urrezko kataia eta domina galdu nituen. Oso berezia da niretzat. Eskertuko nuke norbaitek informazioa balu, nirekin harremanetan jartzea, mesedez: 620 12 47 45

**809. ERRENTAN EMAN**  
**Arrasaten taberna errentan.** NAHI taberna alokatzen da, sukaldea dauka, aukera ona (erdiko kale 18). Arrasateko Herriko Plaza Nagusian. Deitu 618 76 34 40 telefono zenbakira.

## ZORION AGURRAK



**OÑATI Aizatz Altube Arkonada**  
27an, 11 urte. Zorionak, politto! Iritsi da azkenean zure eguna! Jarraritu xalada, jatorra, langilea ta alai izaten! Izugarri Maite zaitugu!



**BERGARA Izar eta Irati Loliola Lopez**  
Ekainaren 25an, 6 urte. Izar, Irati, ZORIONAK! Egun polita pasauko ta familia guztian parteti Zorionak! Asko maite zaituztegu!



**BERGARA Garazi Eizmendi Bardeci**  
Ekainaren 24an, 11 urte. Zorionak, Garazi! Besarkada erraldoi bat etxeko guztien partetik eta batez ere Ihintzen partetik. Asko maite zaitugu.




**OÑATI Julen Orueta Diez**  
23an, 9 urte. Zorionak, mutikote! Patxo potolo bat familia osuan partetik, batez be Oihane, Iraide eta Aratzen partetik. Maite zaitugu!



**OÑATI Niko Regueiro Madina**  
Ekainaren 23an, 9 urte. Zorionak, Niko! Egun zoragarria izan eta besarkada erraldoi bat etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



**BERGARA Malen Igarza Sotil**  
Ekainaren 22an, 6 urte. Zorionak, Malen! Primeran ospatu zure urtebetetze eguna! Muxu haundi bat danon partetik!



**ESKORIATZA Unax Aramendi Altxua**  
Ekainaren 21an, 13 urte. Zorionak, Unax! Topera disfrutau zure eguna lagun eta etxekoekin. Asko maite zaitzugu!



**BERGARA Yasmina Moreno Escobar**  
Ekainaren 21an, 34 urte. Zorionak, amato! Oso ondo pasa zure eguna, pillo bat maite zaitzugu.



**OÑATI Ekain Oronoz Mugarza**  
21an, 6 urte. Zorionak, Ekain! Ondo ondo pasau eguna ta disfrutau! Gustora zelebrauko! Patxo haundi bat etxeko danon partetik!



**OÑATI Elene Urzelai Larrañaga**  
Ekainaren 20an, 10 urte. Zorionak, Elene! Dagoeneko 10 urte! Muxu handi-handi bat maite zaitugun guztien partetik.



**BERGARA Ekhi Laskurain**  
Ekainaren 20an, 4 urte. Zorionak, Bitxito, familixako danon partetik! Egun zoriontsua pasau! Asko maite zaitzugu! Patxo haundi bat!



**BERGARA Unai Sotil Domenech**  
Ekainaren 19an, 12 urte. Zorionak, maite! Ondo pasau eguna! Patxo potolo bat familiaren partetik bereziki Aratz, Sara, Malen eta Unaxen partetik.



**ESKORIATZA Malen Larrañaga Ayala**  
Ekainaren 18an, 2 urte. Zorionak, Malen, familixako danon partetik! Egun zoriontsua pasau! Asko maite zaitzugu! Patxo haundi bat!



**OÑATI Maialen Zulueta Vicuña**  
Ekainaren 18an, 9 urte. Zorionak, printsesaaaa! Ondo ospatu zure eguna! Izugarri maite zaitzugu familiaren partetik!



**ESKORIATZA Unai Arana Romero**  
Ekainaren 16an, 15 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ondo pasa zure eguna. Asko maite zaitzugu, Beñat, aita eta ama.

**Korosti**  
Inmobiliaria

**Bergara: Aumategi bidea,**  
96m<sup>2</sup>, 3 logela, trastelekua  
duplexa egiteko  
aukerarekin; lur saila  
aparkaleku bezala  
erabiltzeko. 155.000€

**Bergara: Lizaria,**  
95m<sup>2</sup> erabilgarri,  
3 logela eta terraza  
patiora. Oso egoera  
onean.  
210.000€

**Bergara: Zubiaurre,**  
65m<sup>2</sup>, 2 logela,  
gune lasaia,  
egoera onean,  
eguzkitsua.  
90.000€

Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

Informazio  
gehiago:



## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENAKIDEKO BAZKIDEENDAKO.

HILDAKOAK

- Rosa Bergaretxe Abarrategi.** Arrasaten, hilaren 13an. 86 urte.
- Jose Izquierdo Martin.** Arrasaten, ekainaren 19an. 87 urte.
- Pakita Larrañaga Zubiaurre.** Bergaran, hilaren 13an. 83 urte.
- Agustin Zanguitu Azpiri.** Bergaran, ekainaren 12an. 78 urte.
- Teodora Garcia Rincon.** Bergaran, ekainaren 19an. 91 urte.
- Eloina de Blas Diez.** Aretxabaletan, ekainaren 14an. 96 urte.
- Eusebi Bergara Guridi.** Oñatin, ekainaren 16an. 95 urte.
- Ana Maria Arregui Sanz.** Oñatin, ekainaren 19an. 84 urte.
- Antonio Urzelai Bikuña.** Oñatin, ekainaren 19an. 87 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**  
 Egubakoitza, 21 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09  
 Zapatua, 22 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30  
 Domeka, 23 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74  
 Astelehena, 24 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99  
 Martitzena, 25 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26  
 Eguaztena, 26 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74  
 Eguena, 27 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- BERGARA EGUNEZ**  
 Egubakoitza, 21 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63  
 Zapatua, 22 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
 Domeka, 23 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
 Astelehena, 24 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74  
 Martitzena, 25 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87  
 Eguaztena, 26 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05  
 Eguena, 27 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**  
 Egubakoitza, 21 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Zapatua, 22 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Domeka, 23 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Astelehena, 24 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28  
 Martitzena, 25 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28  
 Eguaztena, 26 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
 Eguena, 27 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**  
 (22:00etatik 09:00etara)  
 SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
- BERGARA GAUEZ EGUNERO**  
 (22:00etatik 09:00etara)  
 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
 COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA



**Urrezko ezteiak**  
 Julian Gesalaga eta Mari Carmen Aranguren oñatiarrek apirillean bete zituzten urrezko ezteiak, baina bihar, zapatua, ospatuko dituzte, Oñatin. "Zorionak, aitaita eta amama! Egun ederra pasako dugu elkarrekin".



**Etxeberriarrak**  
 Angel Etxeberria eta Milagros Agiriano senar-emazteek hunkituta jaso zuten Oñatiko Erretiratuena Eguneko omenaldia. Seme-alabak eta ilobak izan zituzten alloan.

ESKER ONA

**Nuria Elkorberezibar Ormazabal**



2024ko ekainaren 3an hil zen, 48 urte zituela.

Hileta elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2024ko ekainaren 21ean.

ESKER ONA

**Antonio Urzelai Bikuña**




2024ko ekainaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztoi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko ekainaren 21ean.

OROIGARRIA

**Teodora Garcia Rincon**



Adolfo Briongosen alarguna

2024ko ekainaren 19an hil zen, 91 urte zituela.

Maitakor ta eskuzabal, Zerrendan lehena beti eman diguzu zuk zeneukan dena 'jainkoen erregalu' zen zure izena ta antzerako zerbait da izan zarena

Itzaltzen joan zaigu familiako dama ze gogor ta krudel den zahartzearen drama zure maitasun dena ezerk ez darama ez zaitugu ahaztuko sekula amama

Bergaran, 2024ko ekainaren 21ean.

ESKER ONA

**Maritxu Arregui Lazpiur**



2024ko ekainaren 18an hil zen, 102 urte zituela.

Zure bizi poza zure bihotza eta maitasuna hainbeste urte zure ondoan izan ganenon bihotzean beti zu izango zara.

Seme-alabak: Pedro eta Ana Baquero, Miren eta Iñaki Balerdi; bilobak: Judith, Irene, Mikel, Daniel, Nuria, Iñigo; anai-arrebak: Luis, Justina †, Margarita † eta beste senide guztiak.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko, sendikoen izenean.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**Oroilore**  
 Hileta zerbitzuak

**BABESLEA**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak euren bidez aurrizten lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango ditue agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gugan izan dituzten konfiantzagaririk eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55  
 BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**AKS SARIEN BANAKETA EKITALDIA**


Arrasateko kirolari eta kirol talde onenak eta Arrasateko Udalak ematen duen errekonozimendua banatzeko ekitaldiaren laburpena.

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:30, 20:30 eta 22:30

**SAN JUAN GAUA ARRASATETIK**

Txomin Madinak eta Ilaski Serranok aurkeztuta, Goienaren eta ETBren elkarlanari esker. Zuzenean telebistan eta *Goiena.eus*-en.

'Bereziak' Domeka, 22:15

**ENTZIERROAK ZUZENEAN, EGUNERO**

Arrasateko sanjuanetako entzierroak emango dituzte zuzenean telebistan eta *Goiena.eus*-en.

'Bereziak' Astelehena, martitzena eta eguaztena, 08:55

**SAN JUAN JAIK ARRASATEN**

San Juan jaiek emandakoaren erreposoa egingo dute, besteak beste, protagonisten berbak jasoko dituzte.

'Jaiak' Eguaztena, 19:00, 21:00 eta 23:00

**MOZORRO JAITSIERA ELGETATIK**

Elgetako jai nagusiei hasiera ematen dien ekitaldia zuzenean emango dute telebistan eta *Goiena.eus*-en.

'Bereziak' Eguena, 19:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 21****ELGETA Ikasturte amaierako bazkaria eskolan**

Ikasleak, irakasleak eta langileak elkartuko dira.  
*Herri Eskolan, 12:00etan.*

**ARETXABALETA Puzgarriak eta musika igerilekuan**

DBH-1 eta DBH-2koak, 16:00etatik 18:45ak arte; eta DBH-3 eta DBH-4koak, 19:00etatik 22:00ak arte. Debalde.  
*Kiroldegian.*

**ARETXABALETA Musika entzunaldiak: konbo**

Leizarra musika eskolako ikasleak.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengoa jaiak**

18:30ean, umeen sagar dantza, eta merienda; 21:00etan, afaria, eta ostean, bingo musikatua eta karaokea; eta 00:00etan, aulki-jokoa.  
*Kalebarrenen.*

**ARRASATE Dantza emanaldia**

Arrasate Musikaleko dantza taldearen eskutik. Herritar guztiendako.  
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Eman bizia' antzezlan**

Umeendako emanaldia Antxo Eta Pantxa pailazo taldearekin, 7x7 *kultura kolean* ekimenaren baitan.  
*Larrino auzoan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Una vida ligada a Casa Palop' liburuaren aurkezpena**

Jose Ramon Lara Castro egilea egongo da ekitaldian.  
*Al-Andalus elkartean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Ikasturte bukaerako emanaldia**

Musika eskolako ikasleak.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 20:00etan.*

**ELGETA Pettiren kontzertua**

Musikari beratarraren zuzenekoak, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak gonbidatuta. Sarrerak, sei euro.  
*Ozkarbi elkartean, 20:00etan.*

**ARRASATE Añube eta Kaparrak taldeak**

Añubek *Errautsetatik loratzen* diskoa aurkeztuko du, Aretxabaletako Kaparrak taldearen laguntzarekin.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**ZAPATUA 22****ESKORIATZA XX. Kontzejupe Pilota Txapelketa**

Atxorrotx kultur elkartearen eskutik.  
*Kontzejupean, 10:00etan.*

**OÑATI Aitzulora txangoa familian**

Zaittasun baxuko ibilaldia, Araotzetik hasita. Izena emateko: 943-78 28 94 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus).  
*Arrikruzten, 10:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatua Oloso dorrea**

Gaur, euskaraz, bi bisita: 10:15ean eta 12:15ean. Izena emateko: 943-76 90 03.  
*Laboratoriumen.*

**ANTZUOLA Kalebarrengoa jaiak**

10:30ean, jokoak; 12:00etan, ginkana; 18:00etan, buruhandiak; 20:00etan, arbola jasotzea eta ostean Antzuola txaranga; 23:00etan, Emaion taldearekin erromeria; eta 00:00etan, sagar dantza eta erromeria.  
*Kalebarrenen.*

**BERGARA Bisita gidatua**

11:00etan eta 12:30ean. Erreserba egiten duen lehenak aukeratu dituzte bisita mota eta hizkuntza. Izena emateko: 943-76 90 03.  
*Laboratoriumen.*

**OÑATI Fan Hemendik Eguna**

12:00etan, poteo girotua; 15:00etan, bazkaria; eta 18:00etan, manifestazioa.  
*Oñatin.*

**OÑATI III. Hika Eguna**

13:00etan, hika-poteoa, Arrano tabernan hasita; 14:30ean, hika-bazkaria Iturritxon; eta 19:30ean, Eingo taldearekin erromeria.  
*Oñatin.*

**OÑATI Juan jaiak Garagaltzan**

13:30ean, etxafuegoak; 14:00etan, bazkaria; eta ostean dantzaldia, mus txapelketa eta haurrendako jolasak.  
*Garagaltzan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak****Azkoagan**

18:00etan, *Gora txopue!*; 19:30ean, garagardo dastatzea; eta 22:00etan, afaria, eta ostean, Beturra taldearen kontzertua.  
*Azkoaga auzoan.*

**BERGARA Patxi Irurzunen bi libururen aurkezpena**

*Chucherías Herodes* eta *La mentira es la que manda* liburuak aurkeztuko ditu idazle iruindarrak.  
*Kartzela zaharrean, 18:30ean.*

**ARETXABALETA 'Go!azen' karaokea**

Telesaileko aktoreekin.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**BERGARA Musika Banda**

Pop-rock kontzertua egingo dute, Metallica, Zea Mays, Berri Txarrak, Su Ta Gar... taldeen kantuekin.  
*Munibe plazan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Agerre'-ren omenezko desafioa**

Harri-jasotzen, ingudea altxatzen, trontzan, txingak eramaten eta aizkoran.  
*Plazako frontoian, 19:30ean.*

**ARRASATE Eire, Dupla eta Tapia Eta Leturia taldeak**

Sanjuanak.  
*Txosnaganean, 23:00etan.*

**DOMEKA 23****BERGARA San Juan auzoko jaiak**

10:00etan, apaintze lanak; eta 21:00etan, etxafuegoak eta San Juan suak baserrietan.  
*San Juan auzoan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengoa jaiak**

10:00etan, diana; 12:00etan, Oinarineko dantzariak, eta salda eta txorizoa; eta 17:00etan, Zapotxin pailazoa.  
*Kalebarrenen.*

**OÑATI** Garagaltzako jaiak

12:00etan, meza eta luntxa;  
21:00etan, etxafuegoak eta San  
Juan sua.  
*Garagaltzan.*

**BERGARA** Kantu jira herrikoia

San Juan bezperan kaleak  
girotzeko, Jardun Euskara  
Elkartearen eskutik.  
*Bergaran, 12:30ean.*

**LEINTZ GATZAGA** San Juan sua

17:00etan, ira prestatzea;  
19:00etan, bolo txapelketa  
herrikoia; 21:00etan, txistor-  
pintxoak; eta 22:00etan, sua.  
*San Migel plazan.*

**ELGETA** Udako solstizioa

Musika saioa, ogitartekoak,  
trikitalariak eta San Juan sua.  
*Elgetan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA** San Juan  
bezpera

Askotariko ekintzak. Informazio  
osoa 14. orrian.  
*Herriko Plazan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA** San Juan sua

Askotariko ekintzak. Informazio  
osoa 17. orrian.  
*Eskoriatzan, 18:00etan.*

**ARAMAIO** San Juan jaiak  
Azkoagan

18:00etan, neska-mutikoendako  
jolasak; 19:30ean, parrillada; eta  
22:30ean, San Juan sua.  
*Azkoagan.*

**ANTZUOLA** San Juan bezpera

20:00etan, arbola jasotzea,  
Oinarinen dantza saioa eta atzerritik  
Antzuolara etorri diren herritarrei  
harrera; eta 22:00etan, San Juan  
sua.  
*Antzuolan.*

**OÑATI** San Juan sua

Txondorrari su ematea eta San Juan  
zortzikoa Oñatzeko dantzariekin,  
trikitalarien doinuekin eta  
bertsolarien koplekin.  
*Olaiturrin, 22:00etan.*

**BERGARA** Solstizio Gaua

Musika emanaldia, dantza saioak,  
sua piztea eta beste hainbat.  
*San Martin plazan, 22:15ean.*

**ASTELEHENA 24****ELGETA** Udalekuaren hasiera

Bost asteko zerbitzua, HH-2tik  
LH-6ra arteko umeendako.  
*Elgetan, 09:00etan.*

**OÑATI** Pentsiodunen  
elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARAMAIO** San Juan jaiak  
Azkoagan

12:00etan, meza; ostean,  
parrillada; eta 17:00etan, briska  
eta mus txapelketak eta  
umeendako jolasak.  
*Azkoaga auzoan.*

**BERGARA** San Juan auzoko  
jaiak

12:00etan, meza, eta ostean,  
luntxa; 13:00etan, lore-sorta  
erakusketa; 13:15ean, 80 urtetik  
gorako auzotarrei omenaldia; eta  
14:30ean, bazkaria.  
*San Juan auzoan.*

**ARRASATE** Aiert eta Zirrara  
taldea

Sanjuanak.  
*Txosnagunean, 20:00etan.*



BERDINKI

**BERGARA** 'Mikra' ikuskizuna

Berdinki Zirku Garaikide Konpainiaren eskutik. Berdintasunaren inguruan  
dituzten gogoeta eta kritikak plazaratzen dituen konpainia, Irati Gonzalez eta  
Koldo Arakistain aktore-akrobatekin.  
*Ekainaren 27an, San Martin plazan, 19:30ean.*

**ARRASATE** Esne Beltza

Sanjuanak.  
*Monterron parkean, 23:15ean.*

**MARTITZENA 25****ARRASATE** Bertso saioa

Sanjuanetako saioa, AEDren  
eskutik. Maialen Lujanbio, Aroa  
Arrizubieta, Unai Iturriaga eta Ane  
Zuazubiskar bertsotan.  
*Seber Altuben, 12:30ean.*

**BERGARA** Jardunen batzar  
orokorra

Bazkideendako. Lehen deialdia  
18:00etan, eta batzarraren hasiera  
18:30ean.  
*Jardunen egoitzan.*

**BERGARA** Bergarako Orfeoia

**100. urteurrenko dokumentala**  
ABAO Komunikazio Agentziak  
egindako 70 bat minutuko  
dokumentala. Debalde.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARRASATE** Zea Mays eta The  
Clayton

Sanjuanak.  
*Txosnagunean, 22:30ean.*

**EGUAZTENA 26****BERGARA** Musika eskolako  
ikasleen emanaldia

Xabier Arrillaga Bengoa izango dute  
gogoan.  
*Laino Skate parkearen  
kanpoaldean, 18:30ean.*

**ARETXABALETA** Garazi eta Sala

Arrasateko musikarien kontzertu  
akustikoa, *7x7 kultura kalean*  
ekimenaren baitan.  
*Mitarte kalean, 19:00etan.*

**ARRASATE** Kiko Veneno

Sanjuanak.  
*Herriko plazan, 20:00etan.*

**BERGARA** 'Animalia' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan  
eta azpittuluekin. Sarrerak, hiru  
euro.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

**EGUENA 27****ARAMAIO** Gazte Langileon  
Topaketak

17:00etan asanblada irekia egingo  
dute eta 18:00etan frontenis eta  
eskalada txapelketak izango dira.  
*Aramaion.*

**OÑATI** Pintxo-potea eta  
Basandereak taldea

Pintxo-potea eta Lezoko  
Basandereak hirukotearen  
kontzertua.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**BERGARA** 'Mikra' ikuskizuna

Berdinki Zirku Garaikide  
Konpainiaren eskutik.  
*San Martin plazan, 19:30ean.*

**EGUBAKOITZA 28**

**ESKORIATZA** San Pedro bezpera  
Informazio osoa erdiko gehigarrian.  
*Eskoriatzan.*

**OÑATI** Zubillagako jaiak

18:30ean, txupinazoa eta *Pello*  
basurdearen jaitsiera. Ondoren,  
erraldoi eta txorimaloak,  
gaiteroekin; 19:30ean, pala  
txapelketako finala; 20:30ean,  
barbakoa; 22:30ean, Kontralde,  
Inguma eta Garratz taldeak; eta  
ostean, DJ Izura eta bingo-jokoa.  
*Zubillagan.*

**ARETXABALETA** 'Ezkutukotik  
ikusgaitasunera' erakusketa:  
azken egunak

Lesbianismoaren gaineko bilduma  
ikusteko azken eguna uztailaren 1a  
izango da.  
*Arkupen.*

**BERGARA** Zinegoak

Bilboko LGTBQ+ 21. Nazioarteko  
Zinema eta Arte Eszenikoan  
jaialdiko film laburrak ikusteko  
aukera. Debalde.  
*Seminarixoan, 20:00etan.*

**OÑATI** 'Manolo Kabezabolo'  
dokumentala

Alberto Andres Lacastaren lana.  
Sarrerak, bost euro.  
*Zinema-aretoan, 22:00etan.*

**OÑATI** 'Txakolinaren  
ospakuntza' emanaldia

Ganbara Faktoriaren eskutik, *Kalean*  
egitarauaren baitan.  
*Upain txakolindegian, 22:00etan.*

**ARRASATE** Arrasate Musikaleko  
Big Band

Herritar guztiendako.  
*Monterron parkean, 22:30ean.*

**ZINEMA****OÑATI****KULTURA ETXEA****Vidas perfectas**

Egubakoitza:  
22:00.

Zapatua: 19:30,  
22:00.

Domeka eta  
astelehena: 19:30.

**GASTEIZ****FLORIDA****Garfield**

Egubakoitza:  
19:00.

Zapatua: 12:00,  
19:00.

Domeka: 12:00,  
17:00.

**Amigos**

**imaginarios**

Egubakoitza:  
19:30.

Zapatua: 12:00,  
19:30.

Domeka: 12:00,  
17:15.

Astelehenetik  
egunera: 17:00.

**Bad boys**

Egubakoitza:  
16:30, 21:30.

Zapatua: 12:00,  
16:30, 21:30.

Domeka: 12:00,  
17:00.

**Paradise is**

**burning**

Egubakoitza eta  
zapatua: 19:00.

Domeka: 19:30.

Astelehenetik  
egunera: 17:00.

**Ex-maridos**

Zapatua eta  
domeka: 12:00,  
17:00.

Egubakoitza eta  
astelehenetik  
egunera: 17:00.

**Del revés 2**

Egubakoitza:

17:00, 19:15,  
21:30.

Zapatua: 12:00,  
17:00, 19:30,  
22:00.

Domeka: 12:00,  
17:30, 20:00.

Martitzena: 17:15.

Eguaztena eta  
eguna: 17:30,  
19:45.

**Eureka**

Egubakoitza eta  
zapatua: 16:30,  
21:45.

Domekatik  
egunera: 16:30,  
21:45.

**La patria**

**perdida**

Egubakoitza eta  
zapatua: 19:15,  
21:45.

Domekatik  
egunera: 19:15.

**Vidas perfectas**

Egunbakoitza eta

zapatua: 17:00,  
21:15.

Domeka: 19:30.

Astelehenetik  
egunera: 19:30.

**Alumbramiento**

Egubakoitza eta  
zapatua: 16:30,  
19:00, 21:30.

Domekatik  
egunera: 17:00,  
19:15.

**Memory**

Egubakoitza eta  
zapatua: 17:00,  
19:00, 21:15.

Domekatik  
egunera: 17:15,  
19:30.

**Los**

**indeseables**

Egubakoitza eta  
zapatua: 17:00,  
19:30, 22:00.

Domekatik  
egunera: 17:00,  
19:15.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI  
ASKASIBAR

## Isiltasun itzala

"Azkenean, gai politiko bat da. Askotan, gehiegi hitz egiten dugula uste dut, eta ez dakit hori egokiena den, ni hemen futbolari profesional gisa ari naizelako berbetan". Posible zen hitz horiek Franco diktadorearenak izatea, jakina baita Espainiako caudilloak bere ministroei politikan ez sartzeko gomendioa egin ohi zuela, baina ez, Unai Simonenak dira, Kilian Mbappek eskuin muturraren kontra egin zituen adierazpenen harira esanak.

Diktadura garaietan bezala, orain ere, iritzi politiko deseroseoan gainean isiltasun itzala zabaldu nahi izatea kontserbadurismo kasposoenaren adibide da. "Politikaz ez galdetu, ni futbolaria naiz!", dio Simonek, paparrean Espainiako selekzioaren ikurra duela, kolore gorri-horiek euskaldun askori begietako mina sortuko ez baligute bezala.

Jakin nahiko nuke egungo Athleticeko atezainak zein iritzi duen Iribarrek eta Kortabarriak Atotxan ikurrina atera izanagatik. Frankismoaren hondarrean euskal futbolariak isilik geratu behar zuten orain eskuin muturrarekin egin behar luketen moduan? Epelkeria-zaleentzat bai, noski, orduan bezala orain ere bando berean daudelako.

## BUKATZEKO



Izaskun Iriondo eta Antxon Egiburu. G. BELATEGI



Ane Zumelaga eta Susana Elorza. G. BELATEGI

# Gipuzkoako Merkatariak Federazioak saritu ditu

Oñatiko Antxon harategiari ibilbidea aitortu diote, Egiburu familiak 107 urte bete dituelako sektorean; eta Oñatiko Sillero dendari tokiko negozioen lehiakortasuna hobetzea helburu duen 'Singular denda' errekonozimendua eman diote

**Mireia Bikuña Madrid OÑATI**  
Gipuzkoako Merkatariak Federazioak urteko batzarra egin zuen hilaren 16an Getarian. Ekitaldian hainbat sari eta errekonozimendu banatu zituzten. Besteak beste, Oñatiko bi komertziori. Alde batetik, Antxon harategiaren familia-ibilbidea saritu zuten, Eguren familiak 107 urte bete dituelako sektorean.

Beste alde batetik, tokiko negozioen lehiakortasuna hobetzea helburu duen *Singular denda* errekonozimendua jaso zuen Sillero Oinetakoak-ek.

**107 urteko ibilaldia**  
Oñatiko San Lorentzo auzoan dagoen Antxon harategia Egiburu familiaren laugarren belaunaldia da. Antxonon birrai-

tonak lehena zabaldu zuen, Donostiako Bretxan, 1917ko maiatzaren 21ean. Bigarren eta hirugarren belaunaldiek Urretxun izan zuten harategia. Han aitarekin ikasi zuen Antxon Egiburuk, Oñatira joan aurretik. "107 urte. Lau belaunaldi. Lan handia, bizipen politak eta buruko minak ere bai. Baina halako sariak beti dira pozgarriak,

eta gustagarriak. Tokiko negoziook asko eskertzen ditugu errekonozimendua", esan du.

Duela 38 urte zabaldu zuen harategia Oñatin, eta Izaskun Iriondo emaztearekin darama negozioa. Bosgarren belaunaldia egongo ote den galdetuta, ez du erantzun garbirik eman.

### 'Singular denda'

Sillero Oinetakoak-ek bi denda ditu Oñatin: Kale Barrian eta Kale Zaharrean. Belaunaldi askoko negozioa da hori ere. Lau garren belaunaldiko Ane Zumelagak dauka ardura egun, eta oso pozik jaso du *Singular denda* errekonozimendua: "Lanean jarraitzeko indarra ematen digu sari honek. Oso eskertuta gaude".

Tokiko komertzioen lehiakortasuna hobetzea de *Singular denda* egitasmoaren helburu nagusia. Hori lortu ahal izateko hainbat formakuntza-saio egin behar izan ditu Zumelagak. "Lan handia egin dugu. Aholkulari bat etorri zen dendara arlo ezberdinen inguruak lantzeko. Bereziki, komunikazioa hobetzeko tresnen erabilerari buruzkoa gustatu zitzaidan. Sare sozialak nola erabili, Instagram bidez nola lortu feedbacka bezeroekin... Oso aberasgarria izan da, eta emaitzak ikusten ari gara orain", aitortu du.

### Oñatin, hamabi

Gipuzkoako Merkatari Elkarteak 2014an sortu zuen *Singular dendak* programa. 2017an heldu zen Oñatira. Ordutik, hamabi negoziok lortu dute errekonozimendua hori. Udazkenean, berriz, Singular denda aitortza lortu ahal izateko prozesu berria abiaraziko dute.

## ENTZIERROA ZUZENEAN EGUNERO ARRASATETIK

EKAINAREN 24AN, 25EAN ETA 26AN, 08:55EAN

ZUZENKOA GOIENA TELEBISTA

ZUZENKOA GOIENA.EUS



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

